
Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia
1997



Memoria
1997
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia





Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia

1997

Bilbo, 1998

Testu-idazketa: J.L. Lizundia, P. Tellería, I. Rekalde
Testu gainbegiratzea: Patxi Goenaga

© Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-2326-98

AURKIBIDEA

Aurkezteko	7
I. Ekintza orokorrak	9
I.1. Gertakari akademikoak	11
I.2. Hizkuntz Arauak	25
I.3. Zenbait erabaki aipagarri	41
II. Sailak eta batzordeak	45
Batzorde-lana, lan-metodologia, bilerak	47
II.1. <i>Iker</i> saileko batzordeak	49
II.1.1. Hiztegi-gintza batzordea	49
II.1.1.1. <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH)	49
II.1.1.2. Hiztegi Batuko lantaldea	55
II.1.2. Gramatika batzordea	59
II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea (Hizkuntz Atlas)	61
II.1.4. Onomastika batzordea	73
II.1.5. Literatura batzordea	79
II.1.5.1. Herri Literatura azpibatzordea	79
II.1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzordea	81
II.1.6. Batzorde suntsikorrak	83
II.1.6.1. Euskara Batuko batzordea	83
II.1.6.2. Ahoskera azpibatzordea	87
II.2. <i>Jagon</i> saileko batzordea	89
III. Erakunde zerbitzuak	93
III.1. Sarrera	95
III.2. Egoitza	97
III.3. Ordezkaritzak	101
III.3.1. Donostiakoa	101
III.3.2. Gasteizkoa	105
III.3.3. Iruñekoa	107
III.3.4. Baionakoa	111
III.4. Azkue Biblioteka	113
III.4.1. Azkue Biblioteka zerbitzua	113

III.4.2. Azkue Biblioteka batzordea	117
III.4.3. Azkue Bibliotekako katalogazio-lanak	119
III.5. Argitalpenak	121
III.5.1. Edizio zerbitzua	121
III.5.2. Argitalpen batzordea	125
III.5.3. Argitalpenen banaketa zerbitzua	127
III.6. Ekonomia zerbitzua: 1997ko balantzea	129
III.7. Prentsa zerbitzua	133
IV. Herri Administrazio eta erakundeekikoak	135
IV.1. EAEko eta Nafarroako Herri Aginteak eta Euskaltzaindia	137
IV.2. Udalak	139
IV.3. Euskal Herriko Unibertsitatea	141
V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia	143
V.1. Euskaltzain eta karguen zerrendak	145
V.2. Euskaltzaindiko batzordeak	147
V.3. Euskaltzaindiko barne-organigrama	151
V.4. Aurkitegia	153

Aurkezteko

Urteko ibilbidearen ispilu izan nahi izaten dute oroitidazkiek. Erakundearen irudi korporatiboa erakutsi nahi izaten dute. Oraingo hau ere, irakurle, Euskaltzaindiak 1997. urtean egin dituenen laburpen-bilduma duzu. Euskera aldizkarian ematen da xeheki bilkuren eta erabakien berri, baina, agian, irakurle jakin-goseak ez daki gainerako batzordeen eta sail desberdinen nondik norakoaren berri. Gizartearen ordezkari diren hainbat erakundek ere ez ditu eskura, modu errazean, argitalpen horiek. Hauet eskaini nahi die, bereziki, Euskaltzaindiak Oroitidazki hau, erakunde-bizitza eta erakunde-irudia jasotzen duen liburua.

Argitalpen honek Euskaltzaindiaren ikuspegi orokor, baina aldi berean zehatz bat, eskaintzea du helburu. Alde bate-tik, erakundea osatzen duten kideak nor diren jasotzen da. Orobat, Euskaltzaindiak bere lana bideratzeko antolatuak dituen sailen eta zerbitzuen berri ematen da, bai akademi lana bideratzen dutenena, bai eguneroko kudeaketa zuzenerako eratuak direnena. Hau dena liburu honen V. atalean biltzen da.

Euskaltzaindiaren kudeaketa dela eta, aipatzekoa da 1997. urtea zuzendaritza berritu batekin hasi zela. Zuzendaritza hautatu berriaren aurkezpena egin zuenean, euskaltzainburuak jomuga berezitzat ezarri zuen Euskaltzaindiaren aldeko Fundazioa abian jartzea. Abenduko bileran eman zitzaion oniritzia Euskaltzaindiaren Alde izena eramango duen fundazioaren egitasmoari. Horrelako euskarri bat behar beharrezkoa du Euskaltzaindiak eta laster egia bihurtua ikustea espero dugu. Oraindik bide luzea egin beharko du egitasmoak, baina fundazio horren lehenbiziko oinarri-zirriborroa ibiltzen hasia da.

Bestalde, liburu honetan pertsona batzuen lana aipatzen da, eta pertsona hauen artean badira urte luzeetako lana eskaini diotenak erakundeari eta Euskal Herriari. Euskaltzain urte-tsuen artean, Federiko Krutwig-en izena aipatu behar dugu lehenbizi. Berau dugu urte gehien daramana euskaltzain, berrogeita hamar, hain zuzen. Hori dela eta, Euskaltzaindiak ere bere omenaldia eskaini nahi izan dio liburu gisa.

Eta izenak aipatzen hasiz gero, euskaltzain "urtetsuak" omentzea ezezik, euskaltzain berria hautatzea ere egokitu zaio Euskaltzaindiari: Andres Urrutia dugu euskaltzain berri hori. Alfonso Irigoienek utzitako lekua betetzeko hautatua izan zen martxoko bilkuran.

Eta izenekin jarraituz beste bi gehiago aipa daitezke: batetik, Euskaltzaindiak bere liburutegirako arduradun berria hautatu eta izendatu du: Prudentzio Gartzia. Eta bestetik, L.

Villasanterena aipatuko dugu lerro hauetan. Izan ere, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak eratutako Euskadi sarirako proposatu zuen Euskaltzaindiak haren izena eta saritua geratu zen. Berarentzat izan zen 1996ko Euskadi saria, giza eta gizarte zientzietan bereziki nabarmendu diren curriculum-ak saritzea helburu duena. Horretaz gainera, Eusko Jaurlaritzaren Lan Ona-ri izeneko goraipamena jaso du Luis Villasante jaunak.

Euskarak daraman normaltze bidean uka ezina da azken urteotan araugintzak hartu duen abiada. Aipatzekoa da, bereziki, hiztegi eta onomastika mailan 1997. urtean egin den lan eskerga. Hilero-hilero, euskaltzainek mahai gainean izan dute hitz zerrenda bat, eztabaidatzeko eta onartzeko. Zerrenda hauek, jakina, zenbait batzorderen aurrelana eskatu dute, Hiztegi Batukoarena eta Onomastikakoarena, alde batetik eta Euskara Batukoarena ondoren. Lan handia, nolana ere. Kontu honen guztiaren berri jasotzen da liburu honetan, I. 2. atalean.

Euskaltzaindia hizkuntzaren normaltzearen atzetik ari den erakundea dugu. Baina bere estatusa ere normaltze bidean doala dirudi. Garai bateko estuasun ekonomikoetatik ihes egiten saiatzen ari da. Horretarako, hainbat lekutan ate joka ibili behar badu ere. Zorionez, eskale lan horrek -eskea lantzat har badaiteke- bere fruituak ematen ditu sarritan eta horri esker, gu ere garai batean baino zerbait erosoago gabiltzala esan behar, oraindik ere egoera normaletik urruti egon arren. Zorionez, ohiko diru iturriei bestelakoak ere eransten zaizkio urterik urte. Aurten aipagarria da, gainerako erakundeek, udalek, aurrezki kutxek eta gizabanakoek ematen dutenaz gain, Euskaltzaindiak BBV fundazioarekin sinatu duen hitzarmena. Hitzarmen honi esker, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua izango denaren lehenbiziko emaitza landu ahal izango da. Euskararen normalkuntzari begira honek duen garrantzia ezin uka.

Jakina, Euskaltzaindiaren lana ez da bakarrik hileroko bilkuretan eztabaidagai izaten dena edo arau gisa kaleratzen dena. Euskaltzaindiaren lana bere batzordeetan oinarritzen da. Lan hori batzuetan argitalpen gisa ageri da baina beti ere, argitaratzen den orok, ordu askotako lana izaten du atzean. Oroitidazki honetan luze eta zehatz jasotzen da batzorde horien guztien lan isil horren berri. Oroitidazki honen izatearen arrazoia bilatu behar bagenu, kaleratzeko aitzakiren beharko balitz, hauxe litzateke nahikoa: batzordeen lanaren berri jasotzea nolabait. Horregatik eskaini diegu batzordeei lan honen atalik zabalena ere: hain zuzen, II. atalean biltzen dira, banan-banan, batzorde guztien jardunaren xehetasunak. Irakurleak hortik atera ahalko ditu kontuak eta ikusi zertan ari den Euskaltzaindia.

Tori, irakurle, euskararen alde sortu zen eta euskararen alde ari den erakunde honen 1997.eko berriak eskaintzen dizkizun Oroitidazki hau. Ez dugu ezer saldu nahi. Izatekotan ere, gure babesleei eta adiskide guztiei zer garen eta zertan ari garen erakustea da nahi duguna. Eta, jakina, erakusten hasita, geure esker ona ere erakutsi nahi diegu bere babesa eta adiskidantza eskaintzen diguten erakunde eta gizabanako guztiei. Horra.

Patxi Goenaga,
idazkaria

I. Ekintza orokorrak

I.1. Gertakari akademikoak

I.2. Hizkuntz Arauak

I.3. Zenbait erabaki aipagarri

I.1. GERTAKARI AKADEMIKOAK

Urtarrila

Alfonso Irigoien euskaltzainaren hilberri txostena

Egoitzaren Hitzaldi Aretoan, urtarrilaren 31n, arratsaldeko batzar irekian X. Kintana euskaltzainak, Alfonso Irigoien euskaltzain zenaren hilberri txostena irakurri du. Txosten hau Federiko Krutwig jaunarekin batera taxutu du. Hitzaldian zehar Alfonso Irigoienen bizitzaren eta lanaren zertzeladak aletzen joan dira: sorrera, familia, haren zaletasunak (pintura eta eskultura), euskal arloan egindako lanak, etab.



Euskaltzaindiaren egoitzan, 1997-I-31n, Alfonso Irigoienen hilberri-txostena eta Euskalzale aldizkariaren mendeurrena; ezkerretik eskuinera: J. A. Arana Martija, Xabier Kintana, J. Haritschelhar, P. Goenaga.

Euskalzale aldizkariaren mendeurrena

Jose Antonio Arana euskaltzainak, R. M. Azkuek sortutako *Euskalzale* aldizkariaren mendeurrenean, agerkari horrek izan zituen gorabeherak xeheki oroitarazi nahi izan ditu. Mendeurren hori dela eta, joan den mendeko euskal aldizkarien erakusketa paratu du Euskaltzaindiak aretoan bertan.

On Manuel Lekuona zenaren artxiboa

Juan Mari Lekuonak, euskaltzainburu izandako bere osabaren artxibotik idazle hauen zenbait eskuizkribu eman dizkio Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekari: Domingo Aguirre, Juan

Bautista Aguirre (hiru dokumentu, 1800 eta 1802koak), R. M. Azkue (1931), Jaime Verastegui (1931) eta izengabe batena.

1997ko protokoloa sinatzea


Herri Aginteen eta Euskaltzandiaren arteko II. Hitzarmenaren eranskin gisa sinatu da 1997ko urtarrilaren 13an, Bizkaiko Diputazioak gonbidaturik, Guggenheim Museoaren bulegoetan, aurtengo protokoloa.

Prentsaurrekoa 1997ko ekintzez

Urtarrilaren 17an, goizeko 11etan, Euskaltzaindiak prentsaurrekoa eskaini du Donostiako ordezkaritzan. Mahaian Jean Haritschelhar euskaltzainburua, Beñat Oihartzabal Iker sailburua eta Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea egon dira. Ekitaldi horretan, Euskaltzaindiko batzorde eta egitasmoei 1997an burutuko dituzten egitekoen berri eman da, Euskaltzaindiak egingo dituen aparteko ekintzena eta urteko batzar egutegiarena.

EA alderdia Euskaltzaindian

EAKo ordezkariek Euskaltzaindiaren egoitzan izan dira urtarrilaren 30ean. Zuzendaritzarekin bildu dira, eta Akademiaren egoitza ikusteaz gainera, Erakundeak esku artean dituen lanen eta beharren berri eman zaie.



Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 1997-1-30ean, EA alderdiak egindako bisita: ezkerretik eskuinera: J. L. Lizundia, Eugenio Iriando, P. Goenaga, Iñaxio Oliveri, J. Haritschelhar, J. A. Arana Martija.

Otsaila

1996ko R. M. Azkue literatura-sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiak 1996an antolatutako R. M. Azkue literatura-sarien irabazleak otsailaren 14an jakinarazi dira, Bilboko egoitzan egindako ekitaldian. Hauek izan dira sarituak:

– 10-13 urte arteko haurrak:

Narrazioa, I. saria: Irati Goikoetxea: *Bake mezulariaren garraiolari*.
Olerkia, I. saria: Edurne Salaberria: *Iluntasuna*.

– 14-17 urte arteko gazteak:

Narrazioa, I. saria: Lierni Mendizabal: *Zeharka ote liteke kalekantoirik*.
Olerkia, I. saria: Urki Bilbao: *Nor da maitasuna?*



Euskaltzaindiaren egoitzan, 1997-II-14an, 1996ko R. M. Azkue sarien emanaldi-ekitaldian; lehen lerroan, irabazleak eta atzean BBKren, Euskaltzaindiaren, epaimahaiaren eta ikastetxeen ordezkariak.

Ekitaldi horretan, *Ipuinak eta bertsoak 1995* izeneko liburua aurkeztu eta banatu da, 1995ean saritutako R. M. Azkue literatura-sariak jasotzen dituena, hain zuzen.

Donostiako Udalak Euskaltzaindiari bulegoak lagatzea

Otsailaren 28an, Donostiako Udalak Euskaltzaindiari bere lanetarako bulegoak lagatzeko akordioaren adierazpena egin dio Odon Elorza alkateak Akademiaren osoko bilkurari.

Ramon Etxezarreta Kultura zinegotziaren hasierako hitzen ondoren, alkateak hartu du hitza Euskaltzaindiaren eta Donostiako Udalaren artean gero eta sakonagoa izatea nahi lukeen lankidetzaren erakusgarritzat aurkeztuz. Donostiako Udala euskarari buruz gero eta konpromiso handiagoa hartzen ari dela esan du. Hau dela eta, Aholku Kontseilu bat abian jartzeko asmoa aipatu du eta horretarako Euskaltzaindiaren laguntza espero duela. Bi erakunde arteko adiskidantza aipatuz eta udalaren laguntza osoa eskainiz amaitu du euskaraz eta gaztelaniaz egin duen hitzaldia.

Alkateari Euskaltzainburuak erantzun dio egun honetako akordioak berekin dakarrena-gatik eskerrak emanez eta etorkizunerako adierazitako asmoengatik bere atsegina azalduz.

Martxoa

Prentsaurrekoa Iruñeko ordezkarietan

Martxoaren 12an, Iruñeko ordezkarietan, Euskaltzaindiak Aita Polikarpo Iraizozkoaren

mendeurreneko ospakizunen aurkezpena egin du, prentsaurrekoaren bidez. Andres Iñigo, Patxi Ondarra, Jesus Goldaraz eta Jose Luis Lizundiak eman dituzte xehetasunak. Julio Indaberea eta Alfonso Gartzia, Ultzama haraneko eta Iraizotz herriko alkateak ere mahaiburuan izan dira.

Batzordeen 1996ko errendapen-txostenak

Batzordeen 1996ko errendapenen txostenak, lehenik Zuzendaritzan aurkeztu ondoren, Herri Aginteei aurkeztu zaizkie martxoan. Errendapen-txosten horiek honako batzorde hauen 1996ko lanak jaso dituzte: Hiztegi Batuko batzordearenak, LEF batzordearenak, Gramatika batzordearenak, Onomastika batzordearenak, Literatura Ikerketa azpibatzenarenak, Herri Literatura azpibatzenarenak, Euskara Batuko batzordearenak, Ahoskera batzordeko lantaldearenak, Jagon sailarenak, Azkue Biblioteka batzordearenak, Argitalpen batzordearenak.

Andres Urrutia, euskaltzain berria

Euskaltzaindiak Iraizotzen, martxoaren 21ean egin duen hileroko osoko batzarrean, Andres Urrutia hautatu du euskaltzain oso, Alfonso Irigoienek hutsunea betetzeko.

Aita Polikarpo Iraizozkoari omenaldia

Martxoaren 22an, eguerdiko 12,30etan, omenaldia egin diote Aita Polikarpo Iraizozkoari Ultzamako Udalak eta Euskaltzaindiak Iraizozko kontzeju-etxean. Omendua etxe horretan jaio zen 1897ko urtarrilaren 31n eta 1980ko apirilean Lekarotzen hil.



Iraizotz, 1997-III-22: lehen mendeurrenean, Aita Polikarpo Iraizozkoaren jaiotetxean agerian jarritako idatzia.

Euskaltzaindiko X. Barne Jardunaldiak

Martxoaren 21ean -arratsaldean- eta 22an -goizean- burutu dira Euskaltzaindiaren X. Barne Jardunaldiak Iraizozko kontzeju-etxean. Jardunaldi horietan zehar, Euskaltzaindiak bi urteotan -1997an eta 1998an- hizkuntz gaien esparruan -araugintzarenean- dituen eginkizunetza hausnarketa egin da, bereziki Hiztegi Batuaren, Gramatikaren, Onomastikaren eta Literatura

Ikerketaren arloetan. Bertan hogei euskaltzainek hartu dute parte, batzordeetako idazkariak eta zerbitzu eragileak. Jardunaldiotan, besteak beste, Iker sailburuak sarrera-txosten bat irakurri du; ondoren, batzordeetako idazkariak beren txostenak irakurri dituzte, azalpenon jarraian eztabaida izan delarik.

Ekitaldi hauek Euskaltzaindiak antolatu ditu Ultzamako Udalak eta Iraizozko Kontzejuak babesturik.

"Koldo Mitxelena Elissalt 1915-1987" erakusketa

Koldo Mitxelena Kulturuneak egindako gomitari erantzunez, Donostian martxoan egin den "Koldo Mitxelena Elissalt 1915-1987" izeneko erakusketaren inauguraziora Henrike Knörr joan da, martxoaren 20an, Euskaltzaindiaren izenean.

Apirila

EAJ alderdia Euskaltzaindian

EAJ-ren EBB-ko ordezkariak Euskaltzaindiaren egoitzara etorri dira. Hain zuzen duela zenbait hilabete, Euskaltzaindia gonbidatu zuen EAJ alderdiak Sabin-Etxera. Orain gonbitea itzuli zaie eta Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak eta alderdi politiko horretako ordezkariak bilera izan dute apirilaren 24an. Euskaltzaindiaren asmoak, lanak eta egoitza erakusteko baliagarria izan da bisita hori.

In Memoriam Joan Coromines

Duela zenbait hilabete hil zen Joan Coromines euskaltzain ohorezkoaren omenezko txostena irakurri du, hileroko bilkuran, H. Knörr euskaltzainak, katalan filologo handiaren bizitza eta lanak eta Euskal Herriarendako eta euskararendako erakutsi zuen atxekimendua gogoratuz.

Biblioteka zuzendari berriaren aurkezpena

Euskaltzaindiak kontratatu duen biblioteka zuzendari berria, Prudentzio Garzia Isasti jauna, aurkeztu zaie euskaltzainei, apirilaren 25ean egindako hileroko bilkuran.

Idazkariaren txostena

Patxi Goenagak "Hileroko batzarretako lan banaketaz gogoeta" izeneko txostena irakurri du osoko bilkuran.

Arabako Batzar Nagusietan Onomastikaz

Arabako Batzar Nagusiek, maiatzaren 14an, Arabako Toponimia eta Biztanle-guneen izenei buruzko Jardunaldi teknikoak egin dituzte, Foru erakunde horren egoitzan. Euskaltzaindiko idazkariordea den Jose Luis Lizundiak eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkariak, Jardunaldi horietan parte hartzeko gonbidea jasota, bakoitzak hitzaldi bana eman du. Onomastika batzordeko aholkularia den Ricardo Zierbidek ere parte hartu du, guztira lau hitzaldi izan dituzten Jardunaldi horietan.

Antoine d'Abbadie-ren mendeurrena

Apirilaren 18an, Donostiako Miramar Jauregian, Antoine d'Abbadie-ren mendeurrenako egitaraua aurkeztu dute Juan Jose Goirienea, Eusko Ikaskuntzako presidentea eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Antoine d'Abbadie-ren heriotzaren mendeurrenako ospakizun hau Eusko Ikaskuntzaren ez ohiko Kongresua da eta Euskaltzaindiaren XIV. Biltzarra.

Biltzar horretan 47 hitzaldi eta txosten aurkeztuko dira, 1997ko irailaren 24tik 27ra bitartean, biak barne. Aurkeztuko diren hitzaldi eta txostenak, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren artean osatutako batzorde zientifikoak hautatuak izan dira.

Euskaltzaindiaren araugintzaz eta euskara zuzenari buruzko hitzaldiak Gasteizen

Euskaltzaindiaren araugintzari eta arazo gramatikalei buruzko hitzaldia eman du Gramatika batzordeko idazkaria den Jesus Mari Makazagak eta euskara zuzenari buruzkoa, Jose Ramon Zubimendi Jagon sailkideak Gasteizko Udal Gizarte Etxean. Udalak euskararen inguruan urtero antolatzen dituen ekitaldien barruan kokatzen dira hitzaldi hauek. Arabako hiriburuak eta Euskaltzaindiak elkarrekin izenpetua duten hitzarmenean aipatzen da Euskaltzaindiak honelako ekintzetan parte hartzea.

Luis Villasante saritua

Euskaltzainburuak, osoen batzarrean, zorionak eman dizkio Luis Villasanteri Eusko Ikaskuntzaren Humanitate eta Giza Zientzien Saria irabazi duelako. Eusko Ikaskuntzak Euskadiko Kutxaren babesaz urtero ematen duen saria da hau; Luis Villasanteri 1996. urteari zegokion saria eman diote, eta saria emate-ekitaldia 1997ko irailaren 10ean izan da, Donostiako Miramar Jauregian.



Donostiako Miramar Jauregian, 1997-IX-10ean, Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutxaren 1996ko Humanitate eta Giza Zientzien sariaren ematen-ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Juan Jose de Goiriena, Juan Mari Otaegi, Luis Villasante.

Maiatza

Jagon saileko topaketa-bilera

Maiatzaren 16an, Bilboko egoitzan, egin da Jagon saileko topaketa-bilera. Bileran, Jagon saileko zortzi kidez gain, euskalgintzan ari diren erakunde edota elkarteetako hamasei lagun izan dira.

Herri Urrats

Maiatzaren 11n egin den Herri Urrats-eko ekitaldietan Iparraldeko ordezkaria den Pierre Charritton izan da Euskaltzaindiaren izenean.

UEU-ren 25. urteurrena

Udako Euskal Unibertsitateak bere 25. urteurrena ospatu du, maiatzaren 24an Donibane Lohizuneko Maurice Ravel lizeoko auditoriumean. Euskaltzaindia gonbidatu berezia izan da, bera izan zelako UEUren hasierako babeslea. Beñat Oihartzabalek ordezkatu du euskaltzainburua.

1997ko Manuel Lekuona saria

Eusko Ikaskuntzak Arabako Foru Diputazioan, maiatzaren 23an Micaela Portilla Vitoria andereari eman dio 1997ko Manuel Lekuona saria. H. Knörr buruordea izan da bertan Euskaltzaindiaren izenean.

Europako hizkuntzak eta hizkuntz legeen III. Sinposiuma

Iruñean maiatzaren 8, 9 eta 10ean egin diren "Europako hizkuntzak eta hizkuntz legeen III. Sinposiuma" delakoan Miren Azkarate Jagon sailburuak eta Andres Urrutia Jagon sailkideak parte hartu dute Akademiaren izenean.

Ekaina

Federiko Krutwig-i urrezko luma

Ekainaren 2an, eguerdiko 12:00etan, Bilboko Boulevard kafetegian egin den prentsaurrekoan, *1997ko Urrezko Luma* eman dio Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kulturako foru diputatuak Federiko Krutwig euskaltzainari, Bilboko Liburu Azokaren barruan. Prentsaurrekoan zehar, Ricardo Badiola Euskaltzaindiko argitalpen eragileak Federiko Krutwig-en aurkezpena egin du, honen curriculum luzearen eta lan oparoaren berri emanaz. *Urrezko Luma* saria urtero ematen dute Bilboko Liburu Azokaren antolatzaileek, Bizkaiko Foru Diputazioaren laguntzarekin.

Euskal Deituren Izendegia

Ekainaren 12an Madrilera joan dira, Justizia Ministeritzara, Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria. Iaztik dago Madrilgo Justizia Ministeritzan *Euskal Deituren Izendegia* izango denaren testua, argitaratzeko prest. Madrilen suertatu zen gobernu-aldaketaren ondorioz atzeratu egin da argitalpena, bisita honen xedeak hainbat lasterren liburukia kaleratzea eta inguruko zenbait kudeaketa burutzea izan direlarik.

Gasteizko alkateari bisita

Ekainaren 17an, Akademiaren Zuzendaritza Jose Angel Cuerda Gasteizko alkatearekin elkarrizketatu da. Batetik, iaz Gasteizko Udalak emandako diruarekin egindakoaren berri eman zaio, eta bestetik aurtengo eginkizunak aurkeztu zaizkio. Iaz hasitako bideari jarraituz, 1997an ere Gasteizko Udalak Euskaltzaindiari diru-kopuru garrantzitsua emango diola ziurtatu du Alkateak.

Institut d'Estudis Catalans-en 90. urteurrena

Euskaltzaindiak, ekainaren 18an, orain dela 90 urte, Institut d'Estudis Catalans erakunde sortu zuen Enric Prat de la Riba-ri egin dioten omenaldian parte hartu du. H. Knörr euskaltzainburuordea izan da bertan Erakundearen izenean.

Deia

Bilboko Arriaga Antzokian, ekainaren 9an egin den egunkari honen 20. urteurreneko ekitaldira Henrike Knörr buruordea joan da, Euskaltzaindiaren izenean.

Araba Euskaraz

Ekainaren 15ean, Oion-en egin den Araba Euskaraz izeneko ekitaldira Patxi Goenaga joan da, Euskaltzaindiko idazkaria eta Arabako ordezkaria denez gero.

Uztaila

Jardunaldietako hitzaldien argitalpena

Herri Literaturaren IV. Jardunaldietako eta II. Jagon Jardunaldietako hitzaldi eta txostenak, lortu diren finantziazioei esker, separata moduan ere argitaratu ahal izan dira. Durangon egin ziren Herri Literaturaren Jardunaldien separata Bilbao Bizkaia Kutxak babestu du, eta Tolosan egindako Jagon jardunaldiena Kutxa Fundazioak.

Iraila

Jarraipen batzordea

Euskaltzaindiak Euskal Herriko herri aginteekin sinatua duen hitzarmenaren jarraipena egiteko sortua den batzorde hau 1997ko irailaren 9an bildu da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean.

– Herri aginteen ordezkari hauek izan dira: Josune Ariztondo eta Xabier Aizpurua, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailekoak; Fernando Perez de Viñaspre Nafarroako Gobernukoa; Manuel Legarreta Bizkaiko Diputaziokoa, eta Juan Carlos Mujika Arabako Diputaziokoa.

– Euskaltzaindiaren izenean, Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak eta Juan Jose Zearreta ekonomia eragilea izan dira.

Hauek izan dira bilerako gai nagusiak: Batzorde Teknikoak Euskaltzaindiaren 1996ko lan-programez eta aurrekontuez egindako txostena, diru-laguntzen partiketa eta Arabako Diputazioaren zorra.

Antoine d'Abbadie-ren omenezko XIV. Biltzarra

Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren artean antolatutako Antoine d'Abbadie-ren



Hendaiako Biltzarretxean, 1997-IX-24an, Antoine d'Abbadieren omenezko nazioarteko Biltzarrean; ezkerretik eskuinera: Jean-Louis Davant, Jean Haritschelhar.

omenezko XIV. Biltzarra, irailaren 24tik 27ra bitartean egin da, Hendaiako Sokoburu Biltzarretxean.

Biltzarra egin den etxea Udalarena da, egin berria, eta biltzar hau izan da bertan gauzatu den lehenengo ekintza. Egoitza horrek "Antoine d'Abbadie" izena eramango du.

Amaiera moduan, irailaren 28an, Saran, Euskal Jokoak egin izan diren 43 herrietako alkate edo ordezkari gehienak bildu dira. Egun horretako ekintza nagusiak meza, pilota-partidua eta bazkaria izan dira. Herri ordezkari guztiei, biltzarraren lehen egunean Antoine d'Abbadie-z aurkeztu den liburu-sorta bana eman zaie.



Hendaiako Biltzarretxean, 1997-IX-25an, Antoine d'Abbadieren omenezko nazioarteko Biltzarrean; ezkerretik eskuinera: Xipri Arbelbide, Patri Urkizu, Alain Poignant.

Urria

Koldo Mitxelenaren heriotzaren 10. urteurrena

Errenteriako Udalak, bertako *Lau Haizetara* elkartarekin batera, XI. Kultur Astea antolatu du, urriaren 8tik 11ra arte, Koldo Mitxelenari eskainia. Ekitaldietan zenbait euskaltzainek parte hartu dute, hala nola, Patxi Altuna, Ibon Sarasola euskaltzain osoek eta Patri Urkizu euskaltzain urgazleak.

Bestalde, urriaren 10ean Euskaltzaindiko batzorde hauek egin dute beren hileroko bilera Errenteriako Udaletxean: Euskara Batuko batzordeak, Onomastika batzordeak, Azkue Biblioteka batzordeak eta Jagon sailak. Lehen aldia da Euskaltzaindiko lau batzorde biltzen direla egun eta toki berean egoitzatik kanpo.

Jarraipen batzordea

Hil honetan Euskaltzaindiak Euskal Herriko herri aginteekin sinatua duen hitzarmenaren jarraipen batzordeak urteko bigarren bilera egin du. Hau izan da bilerako gai nagusia: Batzorde Teknikoak Euskaltzaindiaren 1997ko eta 1998ko lan-programez eta aurrekontuez egindako txostena aztertzea.

UZEIren 20. urteurrena

Urriaren 17an, Donostiako Miramar jauregian ospatu du UZEIk bere sorreraren 20. urteurrena. Juan Mari Lekuona, Gipuzkoako ordezkaria, izan da Akademiaren izenean.

Nafarroa Oinez 97

Urriaren 19an, Tafallan, ospatu den Nafarroako ikastolen festa horretan Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria den Andres Iñigo izan da.

Pompeu Fabra eta Koldo Mitxelenaren omenaldia

Bilbon, 1997ko urriaren 31n, Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniari Eskolan, hilero-ko bilkuraren ondoren, Pompeu Fabra eta Koldo Mitxelenari omenaldia eskaini zaie, Eskola horren mendeurrena dela eta. Bertara gonbidatuak izan dira, besteak beste, euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleak.

Mahaiburuan eseri dira: Pello Salaburu, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Juan Luis Ordiales, Ingeniari Eskolako zuzendariordea; Patxi Goenaga, Euskaltzaindiko idazkaria; Antoni Maria Badia i Margarit, Institut d'Estudis Catalans-eko kidea; Miren Azkarate, Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasleen errektoreordea eta Ibon Sarasola, euskaltzaina.

Lehendabizi, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak hitz batzuk esan ditu, Pompeu Fabra eta Koldo Mitxelenak katalanaren eta euskararen estandarizazioaz egindako lana eta kidetasunak azpimarratuz. Bigarren, Juan Luis Ordiales Eskolako zuzendariordea mintzatu da, bilduei ongi etorria emanez, eta omenaldi hau mendeurreneko egutegian nola kokatu den azalduz. Euskaltzaindiaren partaidetza azpimarratu du eta ez dela azkena izango adierazi.



Bilboko Ingeniari Eskolan, 1997-X-31n, Pompeu Fabra eta Koldo Mitxelenaren omenezko ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Pello Salaburu, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Ibon Sarasola.

Ondoren, Antoni Maria Badia i Margarit mintzatu da Pompeu Fabrari buruzko hitzaldi sakona eginez, haren bizitza eta lanez -bereziki, Bilbon, Eskola honetan, irakasletzan eman zituen urteak- eta katalanaren batasunaren gidaritzaz xehetasun ugari emanez.

Jarraian, Ibon Sarasola euskaltzainak, ildo beretik, Koldo Mitxelenari buruzko hitzaldia egin du. Mitxelenak euskararen ikerkuntzan eta batasunean egindako lanez eta jardunaz hitz egin du eta bereziki Pompeu Fabrarekin izan zituen kidetasunak azpimarratu ditu.

Azkenik, Pello Salaburu Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak amaiera hitzak

egin ditu, gaur omendutako Pompeu Fabra eta Koldo Mitxelena buruzko goraiamenak egin ez. Bidenabar, Eskola honek euskalduntzeari buruz eman dituen urratsak azaldu ditu.

Euskaltzainak Guggenheim-en

Urriaren 31n, euskaltzainek *Guggenheim Bilbao Museoa* bisitatu dute, hileroko bilkura eguna aprobetxatuz.

Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak

1997ko ekainean sortutako Nafarroako Euskararen Kontseiluaren barrenean dagoen Toponimia Atalak onartutako "Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak" izeneko txostena, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeari helarazi dio. Batzorde honek urriaren 10eko bileran ontzat eman du txosten hori, eta horren kontu eman da urriaren 31ko Euskaltzaindiaren osoen bilkuran.

Liburu-aurkezpena

Urriaren 16an, hiru liburu hauen aurkezpena egin da Bilboko egoitzan :


- *Euskararen tratamenduak: erabilera*. (Iker, 9), Jabier Alberdi Larizgoitiak prestatua.
- *Toponimia medieval en el País Vasco: B-C-CH-Ç-D-E-F-G*. (Onomasticon Vasconiae, 16), Ángeles Libano Zumalacárreguik prestatua.
- *Morfología del verbo auxiliar labortano*. Pedro de Yrizarrek prestatua.

Liburu hauek Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak sinatua duten hitzarmenari esker argitaratu ahal izan dira. Aurkezpenean Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Miren Azkarate Unibertsitateko errektoreordeak eta liburu egileek hartu dute parte.

Azaroa

Federiko Krutwig-i omenaldia

Azaroaren 28an, arratsaldeko 16:30etan, Bilboko egoitzan, Federiko Krutwig-i omenaldia egin dio Euskaltzaindiak, aurreko 50 urte euskaltzain oso dela. Euskaltzaindiak *Federiko Krutwig-i omenaldia* –iker-10– izeneko liburua eskaini dio, euskaltzainen lanez osatua.



Martin Ugalderen omenaldia

Martin Ugalde euskaltzain ohorezkoari Andoaingo Udaletxean azaroaren 9an egin zaion omenaldi-ekitaldira Jean Haritschelhar joan da Euskaltzaindiaren izenean.

Nazioarteko Terminologia Biltzarra

Eusko Jaurlaritzako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak -IVAPEk- eta UZEIk antolatu duten Biltzar hau azaroaren 12, 13 eta 14an egin da Donostiako Miramar jauregian. Euskaltzaindia partaide izan da Biltzar horretan, eta Ibon Sarasola, Hiztegitagintza batzordeburuak, hitzaldia eman du azaroaren 12an: "Euskal lexikografiaren eta terminologiaren inguruan".

Biblioteka zuzendariaren txostena

Azaroaren 28ko osoko bilkuran, Pruden Garzia biblioteka zuzendariak "Azkie Bibliotekaren Katalogoa (ABK), Euskaltzaindiaren proiektu estrategikoetariko bat" txostena irakurri du.

Katalogatze lan honek berezkoa duen balioaz gainera, badu besteentzako erreferentzia izatearen balioa ere, euskaraz egiten den lehena delako. Horregatik, bestelako liburutegietan ez diren arazoei aurre egitea eskatzen du katalogatze lan honek.

"Euskaltzaindiaren Alde" fundazioaren aurreproiektua

Andres Urrutiak aurkeztu du Akademiaren fundaziorako egitasmo hau, euskaltzainek eta fundatzaile izango direnek ere testuari aldaketak egin diezazkioten.

Jarraipen batzordea

Herri Aginteezikiko Hitzarmenaren Jarraipen batzordeak hirugarren bilera egin du, gai nagusia 1998rako Protokolo erantsia izan delarik.

Abendua

"Lan Onari" goraipamena Luis Villasanterentzat

1997ko abenduaren 19an, eguerdiko 12:00etan, Leioako Artatza jauregian egindako jendaurreko ekintzan, Luis Villasante euskaltzainari LAN ONARI izeneko saria eman dio



Leioako Artatza Jauregian, 1997-XII-19an, Eusko Jaurlaritzaren 1997ko LAN ONARI sarien emanaldi-ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Luis Villasante, Jose Antonio Ardanzen eskutik saria jasotzen.

Eusko Jaurlaritzak. Hala dio sortu berri den sari hau arautzen duen Dekretuak, besteak beste: "LAN ONARI" tituluak eguneroko lanean izandako dedikazioagatik, jarraikortasunagatik eta ekimena edukitzeagatik nabarmendu diren euskal herritarrei ematen die aitormena, beti ere, bere merezimenduak ageri-agerikoak badira".

Luis Villasanteri, euskal kulturaren alde eta bereziki 18 urtetan zehar (1970-1988) euskaltzainburu izan zenean euskararen batasunaren alde egindako lanagatik eman diote sari hau. Euskaltzainburu ohiaz gain, beste jaun hauek izan dira sarituak: J. Arregui, enpresa-gizona; J.M. Ormaetxea, Euskadiko Kutzaren zuzendari ohia; J.A. Sánchez Asiaín, Banco Bilbao-ko zuzendari ohia eta BBV Fundazioaren burua, eta Telmo Zarraonaindia, Athletic Club-eko futbolari ohia.

Ospakizunean, Euskaltzaindiaren izenean, han izan dira, besteak beste, euskaltzainburua, buruordea eta diruzaina eta beste eragile batzuk.

BBK-Euskaltzaindia literatura sariak

Honako lan hauek gertatu dira sarituak aurtengo edizioan:

- "Txomin Agirre" eleberrri-saria Pello Esnalentzat izan da, *Nada de agua en Madrid* izeneko lanagatik.
- "Mikel Zarate" saio-saria Jose Manuel Odriozolak irabazi du *Hizkuntza, kultura eta gizartea* lanarekin.



Euskaltzaindiaren egoitzan, 1997-XII-12an, 1997ko Euskaltzaindia - BBK sarien emanaldi-ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Karlos Linazasoro, Pello Esnal, Mirari Garcia de Kortazar, Jose Manuel Odriozola.

- "Toribio Alzaga" antzerkikoan Karlos Linazasoro izan da saritua, haren lana *Burdindenda* delarik.
- "Felipe Arrese Beitia" olerki-saria Mirari Garcia de Cortazarrek jaso du *Kea urrun-tzean* lanarekin.

Alfonso Irigoien euskaltzain zenari omenaldia

Jose Antonio Arana euskaltzain eta diruzainak eta argitalpen eragile den R. Badiolak hilaren 16an Deustuko Unibertsitateak A. Irigoien euskaltzain zenari eskainitako omenaldian parte hartu dute Euskaltzaindiaren izenean.

Bertsolarien Txapelketa Nagusia

Euskaltzaindiaren "Xenpelar" saria jaso du Andoni Egaña txapeldunak, J. A. Arana zuzendaritzakidearen eskutik, hilaren 14an egin den Txapelketa nagusiaren bukaerako ekitaldian.

Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia

Durangoko Liburu eta Disko Azokan, 1997ko abenduaren 6an, Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia aurkeztu da ofizialki. Mintegi horren helburua, Euskal Herriko biblioteka eta dokumentazio-zentruetan euskararen erabilera normaltea da, batez ere katalogatzeari dagokionez. Sortzaileak erakundeetako bibliotekari euskaldunak dira, horien artean Azkue Bibliotekako zuzendaria.

I.2. HIZKUNTZ ARAUAK

1997. urtean, iazko ildotik joan dira arau-proposamenak; Hiztegi Batukoak eta Onomastikakoak izan dira aurkeztu diren gai nagusienak. Atal honetan aipatzen direnak ez dira eztabaidatutako hitz edo forma guztiak. Ohargileek proposatutako hitz batzuk ez dira onartzen, eta ez dira horiek hemen aipatuko. Beste batzuk, berriz, bigarren itzulirako uzten dira, orduan tratatzeko. Bigarren itzulia esatean hau adierazi nahi da: Hiztegi Batuak izango duen A-Z arteko beste bigarren hitz-zerrenda.

Hona hemen, hilez hil, Euskaltzaindiak osokoen bilkuretan aztergai izan dituen txostenak eta zerrendak eta hartutako erabakiak.

Urtarrila

Erabakiak

“Santutegiko izen ohikoenen zerrenda”.

Goian aipaturiko batzorde bien eraginez, “Santutegiko izen ohikoenak finkatzeko irizpideak” eta Santutegiko izen ohikoen bigarren zerrenda “*Hiazinta-Zuria*” izeneko txostenak aztertu dira.

Dagozkien oharrak, Jean Haritschelhar, Patxi Ondarra eta X. Kintana euskaltzainek ekarri dituzte, eta hauek izan dira eztabaidatu eta zerrendan gehitzea onartu direnak:

- *Ursula*
- *Zelso*
- *Marina / Marino* bikotea
- *Kristobal*
- *Marko*
- *Paskoal*
- *Petri*
- *Saturdi*

– Zenbait izenek duten eta beste zenbaitek ez duten azken -s-ari buruzko auzian, denak -s-rekin bukatzea onartu da. Nolanahi ere, *Juda / Judas* bikotea gordeko da bi izen desberdin diren heinean.

– Hitz amaieran zenbait izenek zerrendan erakusten duten bitasunaz (Ø / -o), denek -o bukaera dutela ematea onartzen da.

Eztabaida honen ondoren, zerrenda osoa bozkatu eta onartu da.

Hiztegi Batuko *akats-dun* eta *saindu/santu* hitzen formak hautatzea:

– *Akastun* forma proposatu du Euskara Batuko batzordeak eta onartua geratu da.

– *Santu / saindu* bikotea dela eta, lekukotasunen arabera, gipuzkerazko eta bizkaierazko testuetan *santu* da erabiltzen dena. Horrenbestez, batzordeak forma hau proposatzen du. Alboan, *Saindu Ipar*. eramango luke.

Eztabaidaren ondoren, hortaz, *Espiritu Santu* forma onartu da.

Hiztegi Batuko *esponja-expres* zerrenda.

Zerrenda honi oharrak egin dizkiote P. Ondarrak, X. Kintanak eta H. Knörrek. Hauek izan dira auzikoen artean onartuak:

- *Eukalipto* / *eukaliptu* formen artean, *eukalipto* onartu da.
- *Eurrez* formari dagokionez, zera onartzen da: *eurrez* Bizk. 'ugari, franko'.
- *Eusko* / *euskotar* bikotetik, lehena onartu da.
- *Esponja* / *belaki*: biak parekotzat ematea onartzen da.
- *Espres* / *espresuki* / *espreski* hirukotea izan da hurrengo eztabaidagaia. Lekukotasun egokiak behar direla eta, hurrengo bileran erabakitzeko utzi da.
- *Exkax* eta *etsaigo* hitzei buruz, batzordeak bereari eusten dio eta hala onartzen da.
- *Estropozo* / *estropezu*: osokoen bilkura *estropezu* formaren alde agertu da.

Honako forma hauek zerrendari gehitzea ere onartu da:

- *Estasi*
- *Eszeptiko*
- *Esposatu* / *ezkondu* biok onartu dira.

Erabakizunak

- *estutasun* / *estuasun*
- *etsamina* hitzetik aurrerakoak hurrengo bilerarako utzi dira.
- *ez-fotografo* zerrenda

Proposamena ohargileei ere helaraziko zaie.

Otsaila

Erabakiak

Lehendabizi, aurreko bilkuran erabakigai gelditu zen *espres/espresuki/espreski* hirukoteari buruz Euskara Batuko batzordeak ekarri duen proposamen berria aztertu da: *espresuki*, Adb.; *espres*, izond./adb. *Espreski* hitza ez litzateke emango. Besterik gabe onartu da proposamena.

- *Estuasun* / *estutasun* bikoteari buruz, bi sarrerak ematea erabaki da, *estutasun*-i lehentasuna emanaz. Hots: *estuasun** e. *estutasun* alde batetik, *estutasun*, bestetik.
- *Etsamina* forma proposatu eta onartu da, eta horrekin batera, *etsaminatu*.
- *Etsenplu* hitzaren kasuan, honako ohar hau bakarrik erantsiko zaio sarrerari: 'adibide, eredu', bat hobetsi gabe.

Hiztegi Batuko *ez-fotografo* zerrenda

Zerrenda honi H. Knörr-ek, J. L. Davant-ek eta X. Kintanak egin dizkiote oharrak. Onartutako formak hauek dira:

- *Ez* forma izena ere izan daitekeela.
- *Ezagutza* egin, *Ezagutza*-ren azpian sartuko da.
- *Ezdeus* sarreraren izen nahiz izenondo izan daitekeela adieraztea ere onartu da.
- *Ezen ez*-i ere azpisarrera emango zaio.
- *Ezin dut etorri* bezalakoei sarrera emateari uko egin zaio. Baina aditzik gabe ematen denean, *ezin du* esan behar dela aipatu da eta sarreraren horrela adieraztea onartu da.
- *Faksimile*-ri buruz, idazkera horren ondoan *facsimile* ere onartzen da.

- *Faborez* eta *mesedez* biak parekotzat ematea onartu da.
- *Ezeuki** e. *ezeduki* jartzea onartu da.
- *Ezpata-ren* sarreran ageri diren *ezpata(-)dantza* bezalako idazkeraz eztabaida izan da. Erabakia hurrengo bileran hartuko da, behar bezala oinarriturik.
- *Forjari* hitza sartzeari onartu da.
- *Flanela* sartzeari onartu da.
- *Fondo* (diruzkoa) eranstea proposatu da.
- *Funts* hitzaren tokia aztertzea eta mahai gainean uztea proposatu da hurrengo bilera arte.
- *Film* ala *filme* behar duen eztabaidatu da ondoren. Arrazoi desberdinak eman dira, fonologikoak, usadiozkoak, etab. Azkenean, *Film* formaren alde agertu dira euskaltzainak. Honen haritik, *filmoteka* hitzari buruzko erabakia hurrengo bileran hartzeko utzi da.
- *Fluor* hitza onartu da.
- *Foral* sarrera onartu da izena nahiz izenondo dela adieraziz.

Erabakizunak

Hurrengo bilerarako Hiztegi Batuko *fotoikonposaketa-gainalde* zerrenda eta Exonomastikako “Mundu zabaleko uharteak” zerrenda aurkeztu dira.

Bestalde, Onomastika batzordeak, lehen onarturiko santu izenen zerrendari aldaketa-gehipen zenbait ezarri dizkio (*Antolin-Tiburtzio* bitartekoak). Hauek ere hurrengo bileran aztertuko dira.

Martxoa

Erabakiak

Exonomastika: “Santutegiko ohiko izenak: *Antolin - Tiburtzio* bitarteko gehigarria”.

Inork oharririk helarazi ez duenez gero, besterik gabe eman da ontzat gehigarri hori.

Exonomastika: “Mundu zabaleko uharteak: *Adamen Zubia - Ithaka*”.

Zerrenda honi buruzko oharririk ere ez da iritsi. Hala ere, honako forma hauek berrikusi dira: *Balear uharteak*, *Faroeetan / Faroeetako*; *Frantzisko*, *Haizealdeko uharteak*, *Haizebeko uharteak*. *Îles du Vent* eta *Îles sus le Vent* frantses deiturak ere zalantzagarriz jo dira eta ziurtatu beharrekoak. Gauza bera gertatzen da beste frantses izenekin ere.

– *Artxipelago* formari dagokionak Hiztegi Batuarekin badu zerikusia eta eztabaidatu beharrekoak jo da. Gauza bera gertatzen da *lurrealde* hitzarekin (cf. *'Suaren lurrealde'*). Hiztegi Batuko lantaldeak ekarriko du honi dagokion txostena eta hurrengo bileran eztabaidatuko da.

Ohar hauek gorabehera, ontzat eman da zerrenda.

Hiztegi Batuko *ezpata(-)dantza*, *filmoteka*, *fondo* hitzak:

- *Ezpatadantza* nahiz *ezpata dantza* onartu da.
- *Filmoteka* hitzak bi adiera izango ditu: 1. 'mikrofilm bilduma'; 2. * e. zinemateka.
- *Fondo* eta *funts* hitzen arteko auziaz izan da eztabaida. Azkenean honako proposamen hau onartu da: "*Fondo, h. Funts*".

Hiztegi Batuko *fotokonposaketa-gainalde* zerrenda.

H. Knörrek eta Tx. Peillenek egin dizkiote ohar hauek zerrenda honi.

Aurkeztutako oharren eztabaidarekin hasi baino lehen, Euskara Batuko batzordekide den I. Sarasolak aurreko bileran onartutakoari zuzenketa bat egin behar zaiola adierazi du: *franela* inolako oharrik gabe agertu beharrean, honela behar duela, alegia: *franela* * e. *flanela*.

- *Freno* hitzaren ordez *galga* hitza proposatu da. Azken hitz honek oraindik ere indar osoa ote duen ez dago argi. Azken urteotako datuak zein diren ikusi arte erabakirik ez hartzea eskatu da. Horrenbestez, hurrengo bilerarako utzi da eztabaidagai hau.
- *Fuera* hitza sartu ala ez eztabaidatu da. Azkenean zerrendan gordetzea erabaki da.
- *Gabon* hitzaren inguruko proposamena ontzat eman da. Honela gelditu da azken erabakia: *Gabon Heg.* 1. 'gau on'; 2 pl 'Eguberri'.
- *Frantziman* hitzari buruz, honako hau onartu da: *Frantximant* Ipar.
- *Futbol-zelai* dela eta, hitz hori *futbol*-en azpi sarrera gisa ematea erabaki da. *Futbol* (-) *zelai*, hortaz.

Bigarren itzulirako utzitakoak:

- *Fotokopia*, *fotosintesi*, *franko*, *fresa* eta *furgoneta*-ri buruzko oharrak.

Erabakizunak

Hurrengo bilerarako zerrendak ere aurkeztu dira: *gainazal-garaño* eta Exonomastika batzordearen “Mundu zabaleko uharteak (*Jamaika ...*)”

Apirila

Erabakiak

Exonomastika: “Mundu zabaleko uharteak (*Jamaika-Zipre*)” onartzea.

P. Ondarrak ekarri ditu zerrenda honi buruz eztabaidatu diren oharrak.

- *Novaia Zembla* dela eta, *Zembla Berria* deitura onetsi du batzarrak.
- *Principe uhartea* deitura onartu da, bitasunetik ihes eginez.
- *Puerto Rico* idazkera onartu da.
- *Mallorca* idazkera ere horretan gelditu da.

– *Artxipelago* hitzaren arazoa: martxoko bileran hitz honen arazoa airean gelditu zen hurrengo bilera batean erabakitzeke. Corpusean denetik ageri da. Hala ere, nazioarteko forma nagusia *artxipel* dela dirudi eta, horrenbestez, *artxipelago* hitza proposatzen da. Honek, hala ere, ez du esan nahi *uhartedi* hitza ezin erabil daitekeenik.

Eztabaidan zehar, beste proposamen bat sortu da: *uhartedi* eman lehenbizi eta aipatutako ohar horren antzekoa gero. Botoetara jo da eta *uhartedi* izango da lehen mailako hitza. Dena den, *artxipelago* hitza ere hiztegian A letraren barruan sartu beharko da.

- *Lurralde* hitza ere eztabaidarako utzi zen, 'tierra' hitzaren ordain gisa. Honen harian, *Suaren lurraldea* gordetzea proposatu eta onartu da. Horrek esan nahi du *lurralde* hitzarentzat ere adiera hori onartzen dela.

Hiztegi Batuko *gainazal-garaño* zerrenda.

Aurkeztutako zerrendari P. Ondarrak eta H. Knörrek egin dizkiote oharrak:

- *Gainka* eta *gainkatu* hitzei sarbidea ematea ongi ikusi du Euskaltzaindiak.

- *Gainerateko* hitza zerrendan falta dela adierazi da eta, "Ipar. h. *gainerako*" oharrarekin sartzea ontzat eman da.
- *Gaitzitu* hitzaren sarreran adibide bat eranstea eskatu da. Onartu da eta honako hau izango da adibidea: *Bikarioaren jokia biziki gaitzitu zitzaion Oxalderi*.
- *Gakotu* hitzarekin batera *gakatu* ere aipatzea onartu da, baina honako ohar hau eramango luke alboan: "* e. gakotu".
- *Ganderailu* hitza ere onartu da, honako ohar hauek alboan dituela: "Ipar. h. *argimutil*; 2. h. *kandelario*".
- *Ganga* hitza, dagoen bezala uztea erabaki da, arkitekturan ez ezik, anatomian ere erabiltzen dela adieraziz.
- *Gantzatu* hitza hurrengo bilerarako utzi da.
- *Garaje / garage* hitzaz izan da eztabaida. Gehienak *garaje* formaren aldekoak agertu dira eta, beraz, forma hori dagoen dagoenean agertuko da zerrendan. Nolanahi ere, arazoa behin eta berriz mahaigaineratzen denez, *g/j*-ri buruzko txosten bat ekarriko da aurki.

Ondoren, zerrendan eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertzeari ekin dio batzarrak:

- *Gaizpide/gaizbide* bikotearen artean *gaizpide* onartu da, Corpusak ematen duen informazioa kontuan hartuta.
- *Ganbara*: Iparraldean bi forma nagusi ditu: *ganbera / ganbara*. Hegoaldean, berriz, *ganbara* beste zerbait da. Proposamenaren arabera, bi formak onartu dira.
- *Gar* hitzaren kasuan, *gar/kar* bikotea proposatzen da. Baina irudizko adierarako *kar* forma hobestea onartu da. Horrenbestez, bigarren adierarako "h. kar" oharra erantsiko zaio.
- *Gara* hitzari dagokionez, zerrendan ematen denez gainera, bigarren bat ematea ontzat eman da. Honela: '2. Ipar. * e. (tren) geltoki'.
- *Garaile/garaitzaile* bikotea jasotzea onartu da. Biak emango dira maila berekotzat.
- *Galga* hitzari buruz, "Freno, h. *galga*" jarri ala biok parekotzat ematea izan da auzia. Azkenean, *galga* bere horretan utziko da. Hitz honekin batera, azpisarrera gisa, *galga eman* ere jasoko da. Eta *freno* bere lekuan sartu beharko da aipatu oharra ondoan ezarritik.

Hurrengo itzulirako utzitakoak:

- *Gaineztu, gainordoki* eta *galapan*
- *Argimutil* hitza bere garaian sartu ez zenez, hurrengo itzulian gehitzeko utzi da.

Erabakizunak

Hurrengo bileran aztergai izango den zerrenda (*garandu-gogoangarri*) banatu eta aurkeztu da, eztabaidarako utzi diren hitzak bereziki azpimarratuz.

Maiatza

Erabakiak

Hiztegi Batuko *garandu-gogoangarri* zerrenda.

Euskaltzainek aurkeztutako oharrak aztertzeari ekin aurretik, batzordeak berak, I. Sarasolaren ahotik, zerrendari bi sarrera gehiago eranstea proposatu du: batetik, *geureganatu*

hitza erantsi behar zaio eta, bestetik, *gramoren* sinboloa den *g* sarrera ere bere tokian agertuko litzateke.

Ondoren, H. Knörrek aurkeztutako oharrak aztertzeari ekin diote euskaltzainek eta honako hauek onartu:

- *Garbigailu*-ren ondoan *ikuzkailu* hitza ere sartzea eskatzen da. Eztabaidatu ondoren honek arazo bat sortzen duela ikusi da, *ikuzgailu/ikuzkailu* formen arteko hautua egin behar baita. Hori guztia ikusita sakonago aztertu behar dela eta hurrengo baterako utzi da auzia.
- *Kardu* forma hobesten da *gardu*-ren kaltetan. Honen zergatiaz hitzegiten da eta *gar* hitzarekin zërikusia duen *gardu* hitz bat ere badela adierazten da. Honen azterketa geroko utzi beharko litzatekeela ikusi da.
- *Gerraontzi/gerrauntzi* bikotea dela eta, batzordearen iritzia *ontzi/untzi* bereizketarik ez egitearen aldeko da eta *ontzi* forma nagusizat ematearen aldeko. Nolanahi ere, datorren bileran aztertuko da berariaz gai hau, garrantzizkoa baita.
- *Gestio/jestio* bikotearen arteko hautua erabakitzeko dago oraindik. Hau ere hurrengorako geratu da.
- *Giboi* sarreran 'zimino mota bat' dela adieraztea erabaki da.
- *Goait* hitzari buruz izan da ondoren eztabaida. 'Zain egotea' baino zerbait gehiago da, antza: 'zelatan egotea' edo. Adibideak ekarri ondoren, berrikusiko da.
- *Gaza/gasa* hautua dela eta, Iparraldeko erabilera bada nazioarteko formarekin bat datorrena, hori eman beharko litzateke nagusizat. Beraz, hau izan da proposamena: *gasa** e. *gaza* 'ehun mota'. Bozkatu da proposamena eta ontzat eman da. *Gaza* sarrera, jakina, bere horretan utziko da zerrendan.
- *Gimnasia/gimnastika* eztabaida argitzeko ere bozkatu egin da eta *gimnastika* hitza onartua gelditu da.
- *Giristino* hitzaz galdetu zaie euskaltzainei, forma horri zenbateraino eutsi nahi zaion jakiteko asmoz. *Kristau* hitzaren erabat parekotasun ematea onartu da.

Hurrengo itzulirako utzitakoa:

– *Gartak*

LEF Batzordeko “-*go* atzizkia eta izen multzokariak” proposamena aurkeztea.

Lehengo LEF batzordetik datorren proposamen hau eztabaidatzea erabaki da.

Testuari aldaketa batzuk ezarri ondoren, arauaren laburpena honela formulatua geratu da:

"Hau da, beraz, Euskaltzaindiaren erabakia:

1. Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetako irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak*, etab.

2. Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *-eria* atzizkia erabil bedi: *langileria, gazteria, biztanleria, ikasleria* edo *bezeria*.

3. – *go* atzizkia erabil bedi:

- ofizioa, lanbidea adierazteko: *artzaingoa, zurgingoa*, etab.
- tasuna adierazteko: *euskaldungoa, ahaidegoa*, etab.”

Erabakizunak

“*Gogobete-hautsarazi*” zerrenda aurkeztu da ondoren, hurrengo bileran aztergai izango dena.

Zerrendarekin batera, *ontzi/untzi* eztabaida argitzeko, euskaltzainei hitz hauei buruzko lekukotasun-bilduma banatu zaie. Auzi hau ere hurrengo bileran ebatziko da.

“Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaratzeko irizpideei buruzko erabaki-proposamena”. Onomastika batzordearen txosten hau banatu zaie euskaltzainei hurrengo bileran eztabaidatzeko.

Ekaina

Erabakiak

Exonomastika: "Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaratzeko irizpideei buruzko erabaki-proposamena".

Euskaltzainburuak Andolin Eguzkitza eta Gidor Bilbao jaunei eman die hitza. Aurreko bileran aurkeztutako proposamenari egindako aldaketak azaldu dituzte. Proposamena konplexua da, tradizio asko dira eta desberdinak. Horregatik, gai hauek euskararen normalkuntzan nahiko eztabaida sortu dute. Aurkezten den zerrendak ba omen ditu arazoak. Zergatik ageri dira izen batzuk, adibidez, eta beste batzuk ez. Bestalde, izenak osorik eman ala ez, arazo izan liteke: *Ciceron* ala *Marco Tulio Ciceron*, adibidez. Bestalde, *Marko*, *Luzio* eta antzekoak ere kanpoan utzi dira.

Euskara Batuko batzordearen irizpidea gogorarazi da, hots: orokorra litzatekeen legea formulatu beharko litzateke lehenbizi, zeinen arabera emango liriatekeen latin eta grekozko pertsona izenak. Honi, maiztasun handia duten eta erabileraren poderioz euskarara egokituak izan diren izenen zerrenda mugatu bat erantsi beharko litzaioke. Hain zuzen, aurkeztu den zerrenda itxia izanda ere, zabalegia irizten dio batzordeak.

Hainbat euskaltzainek parte hartu dute eztabaidan iritzi desberdinak azalduz. Azkenean azaldu diren irizpideekin Euskara Batuko batzordeak txostena berformulatuko du eta eskatutako zerrenda bakarra ere hurrengo bilerara ekarriko. Hortaz, hurrengo bileran hartuko da izen hauei buruzko erabakia.

Hiztegi batua: *gogobete-hautsarazi* zerrenda onartzea.

Gaurko zerrendako hitzak eztabaidatu baino lehen, aurreko batzarrean zintzilik utzitako zenbait hitz ekarri dira mahaira:

– *Ontzi/untzi* delako auziaz Euskara Batuko batzordearen ustez, euskaldunek historian ez dituzte bereizi sukaldeko tresna den ontzia eta uretan ibiltzen diren ontziak. Literatur testuetan (A. Lertxundirenetan edo K. Eizagirrenetan, adibidez) ez da bereizketarik egiten. Eskoletako testu liburuetan bereizketa egiten bada ere, gehiago balio bide dute literatur testuek eta hauei eman behar zaie lehenasuna. Horrenbestez, batzordea, kide bat izan ezik, bereizketarik ez egitearen aldeko azaltzen da. Botoetara eramaten da hautua eta *ontzi* forma bakarra erabaki da.

– *Inarra/ginarra* eztabaida izan da ondoren. Lekukotasunak kontuan harturik, *ginarra* onartu da.

Zerrendari dagokionez, H. Knörrek eta Tx. Peillenek aurkeztu dituzte oharrak eta honako hauek onartu:

– *Gogoetatu*-ren sarreran adibide bat ezartzea onartu da.

- *Gora* hitza izenondo ere badela gehituko zaio sarrerari.
- *Gotzain*-en ingurukoak ere onartu dira, *apezpiku* eta gainerako eratorrien baliokideztzat emanaz; *gotzaingo*, berriz, *apezpiku* hitzaren familiako ordainik gabe utzi da.
- *Greko*, *greziar*, *greziera* sartzea onartu da.
- *Haina* sarreran adibide hau sartzea onartu da: 'nor ere etorriko baita, haina ene laguna da'.
- *Gontz* hitza, honako ohar honekin: Ip. pl. 'atearen erroak' sartzea onartu da.
- *Harrarte* 'haitzen arteko igarobidea' azalpenarekin erabaki da.
- *Gorriño* hitzaren sarrera zuzendu da honela: *gorriño* 'gorrixka'.
- *Gorritzta* ezarriko da.
- *Gogoeta*-ren kasuan, *gogoeta egon* azpisarrera ere sartzea onartu da.
- *Gorrina/gorrin/gorni* hitzen inguruan izan da ondoren eztabaida. *Gorrina* forma hobetsi dute euskaltzainek, hitz honek bi adiera dituelarik: a) 'elgorria' eta b) 'landareen gaitza'.
- *Guraskide* hitza sartzea onartu da, honako adiera honekin 'ezkonlagunen gurasoak elkarrekiko'.
- *Gohaindu/gogaindu*-ren inguruan izan da eztabaida ondoren. Lekukotasunen aurrean, *gohaindu* formaren alde agertzen da batzordea. Euskaltzainek ere hala onartzen dute, Ipar. dela adieraziz eta *gogaitu*-ren baliokide.
- *Golf* hitza dela eta, bere sarrera izango du, ondoan "kali jokoa" dela aditzera emanaz.
- *Golko/kolko* hitz parearen aurrean ere eztabaida izan da. Alde batetik, ea bikote gisa gorde behar ote den ala ez. Bi formak gordetzearen aldekoak agertu dira osokoen gehienak. Beraz, *golko* hitza onartu da geografiarako eta *kolko* forma, berriz, besterako.
- *Gorabehera* hitza ere eztabaidarako utzia izan zen aurreko bileran. Batetik, marraren erabileraz Euskaltzaindiak emana duen araua hartu beharko litzateke kontuan. Baina hitz hori izena ere denez eta hala erabiltzen denez, marrarik gabe eta baturik idaztearen aldeko agertu da zenbait. Hala onartu da.
- *Gutxi gorabehera* eztabaidatu da ondoren. Hiru osagaiak parekotzat hartzeko iritzia agertu bazen ere, eta hitz bakarrean idaztea proposatzen, botoetara jota, *gutxi gorabehera* forma erabaki da. Bestalde, *gorabehera* hitzaren bi erabilerak argitzeko adibide bana ematea erabaki da.
- *Gorbata* ere hizpide izan du Euskaltzaindiak. Hegoaldeko forma dela adierazi beharko litzatekeela esan da. Kontu hau argiegi ez dagoenez, hurrengo bilerarako utzi da g-ala *k*- forman idatzi behar den erabakitzea.
- *Gustu/gusto* bikoteaz ere erabakia hartu beharra azaldu da. *-u* forma hobestearen proposamena mahigaineratu da, bizkaieran eta Iparraldeko euskalkietan aurkitzen den era kontuan hartuz. Azkenean, *gustu* forma onartu da. Bestalde, *gustuko* azpisarreraren ondoan, *gustura* ere sartuko da.
- *Guti/gutxi* forma parela dela eta, biak ontzat ematea erabaki da.
- *Hatsantu* sarreran ezarriko den ohar bakarra honako hau izango da: Ipar. "hatsanditu".
- *Harmonium* hitzaren alde agertu dira denak. Hitz honen haritik, *harmonizazio* eta

harmonizatu ere aipatu dira. Hauei buruzko erabakia hurrengo bileran hartuko da, lekukotasunen arabera.

– *Hainbatu*-ri buruzko erabakia ere datorren bileran ikusiko da.

Honako hitz hauek ere gehitu dira zerrendan:

- *Gogoramen*
- *Gol*
- *Gotortasun*
- *Granito*

Erabakizunak

Hautsezin-iguzki zerrenda.

Onomastika batzordeak egindako “Mundu zabaleko uharteak” txostena ere izango da aztergai hurrengo batzarrean.

Uztaila

Erabakiak

Exonomastika: “Latin eta greziar pertsona-izen klasikoen zerrenda” onartzea.

Euskaltzainburuak Andolin Eguzkitzari eman dio hitza batzordeak prestatutako txostena irakurtzeko. Ondoren Gidor Bilbao jaunak hartu du hitza. Lehengo txostenari egin zaizkion aldaketak azaldu dituzte txostengileek.

Sortutako eztabaidaren ondoren, eta proposamenaren onarpena nolabait bideratzeko, zatikako galderak jarri dira mahai gainean. Lehenbizi, ea izen ezagunen eta hain ezagun ez direnen artean bereizketarik egin behar den ala ez. Esate baterako, *Ammianus*-ekin edo *Ciceron*-ekin nola jokatu behar den. Bereizketa egitea onartu da.

Bigarren, hain ezagunak ez diren izenek jatorrizkotik hurbil egon behar badute, nola jokatu behar den latinezkoekin eta grekozkoekin galdera zabaldu da. Euskara Batuko eta Exonomastikako ordezkariak hurrengo bilerara ekarriko dute azken proposamen bateratua.

Hiztegi Batuko *hautsezin-iguzki* zerrenda

Gaurko zerrendari dagozkionak eztabaidatzen hasi aurretik, Euskara Batuko ordezkariak aurreko bileran zintzilik utzitakoak gogorarazi ditu.

– *Gorbata* hitza dela eta, nahiz eta tradizioa ez izan erabat argia, gaurko joera *gorbata* formaren aldekoa argi agertzen denez, forma hori proposatzen du Euskara Batuko batzordeak. Hala onartu da.

Ondoren, *hautsezin-iguzki* zerrendari egindako oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak. Oharrak A. Urrutiak, X. Kintanak eta H. Knörrek aurkeztu dituzte.

- *Helmen* sarreran *hilmenean* ere aipatzea on litzatekeela dio oharrak. "Hilmenean jarri, egon" azalpen gisa sartzea onartu da.
- *Heredatu* hitza dela eta, *jarauntsi*-ri lehentasuna ematea eskatzen da.
- *Jarauntsi* gehitzea onartu da.
- *Herentzia*-ren kasuan, "jaraunspena, ondoriotasuna" gehitzea onartu da.
- *Histu* sarrerari, oharrean eskatzen denaren arabera, honako hau gehituko zaio: "kolo-re bizienak histen dira eguzkitan".

- *Horrenbestez* lokailuari sarrera ematea onartu da.
- *Ibaiertz* eta *idazpen* hitzak sartzea onartu da.
- *Idoi*-ren sarreran bi adiera bereiztea onartu da: 1. 'zingira'; 2. Ipar. 'iraina'.
- *Ifrentzu*-rentzat adibideren bat eskatzen da. Honako ohar hau gehitzea onartu da: 'txanpon, oihal, ... baten atzeko aldea'.
- *Hautu* sarreran bi puntu ezartzea onartu da: 1. ad. hautu, haututzen; 2. iz.
- *Hauzu* hitza sartzea onartu da, honako ohar honekin: hauzu* e. *haizu*.
- *Hazi* hitza aditza eta izena izan daitekeela aipatzea onartu da.
- *Hegaldatu* aditzaren erregimena zein den adieraziko da: "da" aditza dela esango da.
- *Hegatu* sarreran ere zein erregimen duen adieraziko da.
- *Heriosuhar* hitzaren ondoan adibideak ezarriko dira eta adizlaguna ere dela esango da.
- *Hilberri* hitzak, zerrendan agertu ez arren, ekarri du ondoren eztabaida. Izen gisa jasotzea onartu da. Hala ere, *hilberri* eta *hil berri* ('Norbaiten hilberria' vs. 'norbait hil berri da').
- *Hola* eta *holatsu* hitzei buruz, oharrak *honela*, *horrela* eta holakoak hobestea eskatzen duela adierazi da. *Hola*, *honela* eta *horrela* parekotzat ematearen alde agertu dira euskaltzainak.
- *Hona hemen*-en ondoan *hona non* ere sartzea ontzat eman da.
- *Iberiera* eta *iberiko* hitzak sartzea onartu da.
- *Igeri*-ren sarreran, oharrean 'ibaia igeri igaro' barik 'ibaia igeri zeharkatu' ezartzea onartu da, kakofonia saihesteko.
- *Idazti* hitzaren sarrera aldatzea erabaki da. Honela gelditu da: *Idazti*, h. *liburu*.

Ondoren, zerrendan eztabaidarako utzitako sarreren banan-banako azterketari ekin diote euskaltzainek:

- *Hozkailu/hozgailu* auziari buruzko eztabaidan, *hozkailu* forma onetsi da.
- *Idaztaldi/idatzaldi* eztabaidan, *idatzaldi* forma hobestea erabaki du Euskaltzaindiak. Honela izango da oharra: *idaztaldi*, e. *idatzaldi*.
- *Iduri* hitzaz, *irudi* hobestea erabaki da: *iduri* iz., Ipar. h., *irudi*. Eta "*iduri du eri dela*" adibidearen baliokidea honela ematea: "*badirudi eri dela*".
- *Igan/igo* eztabaidan, biak parekotzat ematea erabaki da.
- *Igon* sarrera sartzea erabaki da: *igon** e. *igo*.
- *Igaz/iaz* eztabaidarako arrazoiak azaldu dira. Batzordearen ustez, hala ere, gauzak ez bide daude erabat argi eta, badaezpada, erabakizun utzi da hurrengo bilerarako.

Bigarren itzulirako utzitakoak:

- *hainbanatu*, *harmonizazio* eta *harmonizatu*, *hiliki*.

Iraila

Erabakiak

Exonomastika: Latin eta greziar pertsona-izen klasikoen zerrenda onartzea.

Oraingo zerrendan izen klasikoen egokitzapena egiteko irizpideak ematen dira alde batetik, eta izenen zerrenda bat bestetik. Bidea zabalik uzten da nolana ere, goi-mailako erabilera, latinezko eta grekozko nominatiboa bere horretan hartzeko. Txostenaren aurkezleek esan dute izen mitologikoak ere sartu dituztela beren zerrendan. Hauek aparteko zerrenda batean jasoak datoz, baina Onomastika batzordeak aztertu ez dituenek, beste bilera batean onartzeko bezala eskaintzen dira.

Aurkezpenaren ondoren, eztabaidara jo dute bildutakoek.

- *Eszipion* izena falta dela ohartarzi da eta zerrendari gehituko zaio.

Ondoren, batzordeak aurkeztutako txostena hartu eta han jasotzen diren irizpideak bozkatu dira. 2.1. eta 2.6. zenbakietan jasotzen diren irizpideak batera doaz egiazki eta hala bozkatzea eskatzen da. Gehienek onartu dute proposatutakoa.

Ondoren, 2.2.-ko irizpidea (*v* grafema eta hasierako *R*- errespetatzeari dagokiona) bozkatu da. Proposamenaren alde agertu dira euskaltzainak.

2.3.-ko irizpide-proposamena (*n*, *l* eta *r* kontsonanteak *ts* eta *tz* bilakatzeaz) bitan zatitu da bozketari begira. Batetik, *-tius/-tia* > *-(t)zio/-(t)zia*, eta bestetik, ea *n*, *l*, *r* kontsonanteen ondoren frikaria (*zio/zia*) behar den ala afrikatua (*-tzio/-tzia*). Frikari/afrikatu arazo hau dela eta, gainera, 2.3. puntuan jasotzea eskatu da *s* > *ts* bilakaerari dagokiona. Batzordearen proposamena ontzat eman da.

2.4.-ko proposamenak (*litterae ramenses* direlako balioari dagozkionak) ere onartu dira.

2.6. atalean proposatzen diren grafia egokitzapenak ere bozkatu dira. Hemen ere zatika joatea erabaki da. Honako aldaketak izan dira onartuak:

- *y* > *i*

- *ae, oe* > *e*

- *ca, co, cu* > *ka, ko, ku*

- *ce, ci* > *ze, zi* eta *cae, coe, cy* > *ze, zi*

- *qua* > *kua*

- *Qui* > *ki* eta *que* > *ke*

- *ch, ph, th, rh* > *k, f, t, r(r)*

- *mm, nn, ll, pp, tt, ss, cc, cch* > *m, n, l, p, t, s, k, k*

- *mp, mb* > *np, nb*.

- Hitz hasierako *S*- > *es*- bihurtzearen aldeko botoa eman dute gehienek.

- Azkenik, goi-mailako ikerketarako eta maiztasun urriko izenekin latinezko eta grekozko nominatiboa hartzea ere onartu da.

Mitologiazko izenak albora utzita, gainerako zerrenda eta irizpideak orokorrean bozkatu eta ontzat hartu dira. Beraz, "Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabaki-proposamena" onartua gelditu da.

Hiztegi Batuko *ihabali-irudi* zerrenda

Zerrendaren eztabaidan sartu baino lehen, aurreko bilera zintzilik utzitako zenbait hitz jarri dira mahai gainean:

- *Herskailu/heskailu* formen artean *heskailu* onetsi da.

- *Iaz/igaz* hautuari dagokionez, *iaz* forma onartu da.

- *Iduri* sarreraren azpian *ene iduriko* ere sartzeari proposatzen du batzordeak, honako ohar hau duela: *Ipar*. 'nire ustez'.

Bilera honi egotzitako zerrendari H. Knörrek, X. Kintanak eta A. Urrutiak egin dizkiote oharrak.

- *Ihaurri* hitza falta dela eta, sartzea onartu dute euskaltzainek.
- *Ikuska* hitza ere sartuko da eta adizlagun dela esango da.
- *Ikuzi* hitza dela eta, "urez garbitu" esan nahi duela adieraziko da.
- *Inbertsio* hitzari "Mat." oharra erantsiko zaio.
- *Inbidia* sarreran 'Herr.' oharra ezartzea onartu da.
- *Indaba*-ren ondoan *indibaba* "Bizk." dela erantsiko zaio sarrera horri.
- *Ingurugiro* hitzaz sortu da eztabaida eta hurrengo bilerarako utzi da.

Urria

Erabakiak

Hiztegi Batuko *ihabali-irudi* zerrenda

Zerrenda honen eztabaida aurreko bileran hasi zen baina, denbora faltagatik, ezin izan zen amaitu. Hiru euskaltzainek aurkeztu zituzten bere garaian zerrenda honi buruzko oharrak eta ohar hauen azterketari ekin diote, berriz ere, euskaltzainek.

- *Ingurugiro/ingurumen* bikotearen auzian, bigarren formaren alde agertzen dira bildutako gehienak eta hitz honi sarrera eskainiko zaio, adibide bat erantsiz.
- *Inporta izan* "herr." markarekin onartu da.
- *Integrista, integrismo* hitzak sartuko dira.
- *Inurritu* aditzari *da* eredukoa dela erantsiko zaio.
- *Irakitu**, e. irakin" agertuko da.
- *Irakurlego*, 1. irakurletza; 2. * e. *irakurleria, irakurleak*, agertuko da.
- *Irarri* hitzari adibide egoki bat erantsiko zaio.
- *Irian* hitza sartuko da, Ipar. dela esanez eta 'inguruan' esan nahi duela adieraziz.
- *Ilbeltz*-en sarreran, "h. *urtarril*" eranstea onartu da.
- *Iloba*-renean, testua aldatuko da, honela ezarriz: "senidearen semea nahiz alaba".
- *Infernuratu*-ren kasuan falta diren *-n*-ak sartzea onartu da.
- *Irozo*-ren sarreran *eutsi* jarriko da.
- *Inaurkin*-en ondoan, aditza ere sartzea ongi ikusi da: *ihaurri** e. *inaurri* gehigarriarekin.
- *Ihes-hodi* hitza sartzea onartu da.
- *Ikasmahai* onartu da.
- *Ikastun* sartzea erabaki da.
- *Ikasnahi*-ren inguruan eztabaida sortu da eta erabakia hartu baino lehen, hobeto aztertuko duela esan dute Euskara Batuko batzordekideek.
- *Ilaun/ilaundu*-ri eskatzen den adibidea eranstea onartu da. Honako ohar hau erantsiko zaio: "1. izond.: *aztarna hutsal* eta *ilaunak*; 2. iz. 'errautsa': *berehala ikatzak ilaunez estaltzen dira*".
- *Ile-motots* sartzea onartu da.
- *Ilki* hitzak adibide bat eskatzen du: 'atera, irten' esanahia duela esango da.

- *Industralizatu* aditza sartzea onartu da.
- *Induska* forma onartu da.
- *Irizpen* hitza sartzea onartu da.

Bigarren itzulirako utziko dira:

ihinztagailu/ihinztailu, ikaragaitz/ikaragaiztasun, ikareria, ikus-onetsi/ikus-onespen, inbertitzaile/inbertitu, induskatu, industu, indusmakina, inguruabar, intseminazio eta iraungitasun.

Azaroa

Erabakiak

Gramatika: Euskal Aditz Laguntzailearen berrargitalpen berria.

Aditz Laguntzailearen berrargitalpena dela eta, 1973ko argitalpenari erantsi zaizkion oharrak onartzeko proposamena egiten da. Argitalpen honetan ageri den terminologia jarri da zalantzan. Euskaltzaindiaren onarpena adizkien formari zegokion. Terminologia ez zuen Euskaltzaindiak ezer erabaki eta oraingoan ere gauzak horretan uztea eskatzen da lagungarri izan daitekeelako. Dena den, terminologia hori behin-behinekoa dela adieraziko da oharretan. Horrenbestez, argi emango da aditzera Euskaltzaindiaren erabakia ez dela terminologiara hedatzen, adizkien formaz dela, soil-soilik.

Bestalde, aditz laguntzaileen erroak direla eta, laguntzaile gisa bakarrik ager daitezkeen aditzei izarñoa ezarriko zaie. Beraz, *EDUN, *EZAN eta *EDIN bezala aipatuko dira erro horiek.

Beste ohar bat ere egiten da, hain zuzen, lehenbiziko argitalpenean jasotzen ziren agintarazko adizki trinko zenbait (*biz, bira, bu* eta antzekoak) jasotzekoa. Forma horiek 1973ko argitalpenean jasoak ageri diren bezalaxe emango dira oraingoan ere.

Onartu diren aldaketekin ontzat eman da txostena eta horrela berrargitaratuko da.

Hiztegi Batuko *ihabali-irudi* zerrenda

Zerrenda honi egindako oharrak aztertu dira:

- *Inguru* sarreran "irian" sartzea onartu zen aurreko bileran. Oraingoan *irian* ezezik, *iri* hitza ere sartu beharra dagoela ikusita, ontzat eman da.
- *Ihaute/inaute* bikoteaz, *N*-dun forma hobetsi da: *inaute* eta *inauteri*. Gainera, *inaute* sarreran adibide bat jarriko da: 'hori astelehen inautez egingo da', adibidez. Eta, jakina, *ihaute** e. *inaute*; *ihauteri** e. *inauteri*.
- *Immunizatu/immunizatu* hautuaz ere luze joan da eztabaida. Azkenean *immunizatu* forma onartu da.
- *Immunitate* hitzari ere zerrendan leku egitea onartu da.
- *Ingeniari/injineru* eta *ingeniaritza / injinerutza* bikoteen arteko aukera jarri da hurrena mahai gainean. *Ingeniari* eta *ingeniaritza* formak hobetsi dituzte euskaltzainek.
- *Inprenta* eta *inprimeria* hitzei buruzko eztabaida izan da hurrengoa. Azkenean, 'inprimatzeko teknika' adierarako aditz-izena hobetsi da: *inprimatze*. Horrenbestez, bi hitz horien sarreretan "h. *inprimatze*" oharra ezarriko da. Eta bigarren adierarako, hots: 'lanak inprimatzen diren lantegia' adierazteko, "e. *inprimategi*" ezarriko da, adibide batekin, gauzak hobeki ulertzeko.
- *Iragazi/irazi* eta hauen eratorriez, *irazi* nahiz *iragazi* etab., denak ontzat eman dira.

Erabakizunak

“Mitologia izenak” batetik eta “Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak” izenburua duen txostena bestetik, aurkeztu ditu Onomastika batzordeak, datorren hileko bileran eztabaidatu eta onartzeko.

Abendua

Erabakiak

Exonomastikako “Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak”

Aurkeztu da aurreko bileran emandako zerrenda. Euskara Batuko batzordeak aztertu-ko du lehenbizi eta hurrengoan ekarriko da atzera batzarrera.

Hiztegi Batuko *irudialdatu-jorratzaile* zerrenda onartzea.

Euskaltzainen oharrak aztertzeari ekin aurretik, M. Azkaratek, batzordearen izenean, zerrendari gehiketa bat egitea proposatu du. *Iruzkina* sarreran *iruzkina egin* azpisarrera gehitzea, alegia. Adibide bat ere eramango luke: *Testu honi iruzkina egin dio* bezalako bat.

Ondoren euskaltzainen oharrak aztertu dira. Ohargileak X. Kintana, Knörr eta Andres Urrutia izan dira.

- *Itsas gaztaina* = *Indi-gaztaina* dela eta, batzordeak onartu du oharra: *Indi gaztaina* bere lekuan erantsiko zaio zerrendari, marrarik gabe.
- *Itsulapiko* hitzari alboan ezarriko zaio *eltzeitsu*.
- *Itxuroso* sarreran zer adiera duen esango da.
- *Janaritegi* dela eta, “janariak gordetzeko tokia” esan nahi duela adieraziko da.
- *Jaundone* hurrengo bilerarako uztea proposatu du H. Knörrek eta hala onartu da.
- *Jeinu* hitzak, *Ipar*: 'antzea, trebetasuna' oharra eramango du.
- *Jenio* hitzari buruz, berriz, Heg. dela esatea onartu da.
- *Itzarrik* forma Bizk. dela esango da.
- *Ixi Bizk.* = *ixo* ere onartu da.
- *Jaugin Ipar*: 'joera'; *jendekin* 'jendartea atsegin zaiona' oharrarekin onartu da.
- *Jardun*-en sarreran izena ere izan daitekeela adieraziko da, 'solasa' adierarekin.
- *Jargoi* sarrerari aldamenean *tronu* ezarriko zaio.
- *Izen*-en sarreran, bi adierazpide emango dira: 1. *Xabier du izena*; 2. *haren izen ona zikindu*.
- *Jentilizio/gentilizio* eztabaida *g/j* auzia argitzen denerako uztea erabaki da.
- *Jaundoni/fondoni* auzia hurrengo bileran argitzeko utzi da.
- *Isilgorde/isilgordeka* bikotea onartu da.
- *Isiotu*, 'argia, sua piztu', eramango du alboan.
- *Itsasikara* hitz bakar batean idaztea onartu da. Baina, lexikaltze maila desberdina dela medio, *itsas labar* horrela idaztea onartu da.
- *Izan*-en sarreran hitz hori izena ere izan daitekeela adieraztea onartu da.
- *Janiza*-ren sarreran esanahiaren berri emango da: *janiza Ipar*: “gose handia”.

Beste sarrera hauek gehitzea ere onartu da:

- *Izu-laborri*
- *Isil-poltsa*
- *Jantxakur*
- *Jarduera*
- *Iruzingile*
- *Isurketa*
- *Izarniarazi*
- *Izendun*
- *Jakinarazpen*
- *Jaraunsle*
- *Jesapen.*


Azkenik, zerrendan eztabaidagai gisa emandako sarrerak tratatu dira.

- *Ene irudiko*-ri buruz, honako hau proposatu da eta onartu: *ene iduriko Ipar* = “nire ustez”.
- *Irudiko*-ri beste bigarren azpi-sarrera bat emango zaio: 2. genitiboarekin 'ustez', “ene irudiko”.
- *Isil/ixil* eztabaida etorri da ondoren. Azkenean, -s- grafiarekin segitzea onartu da.
- *Itxi* sarrera honela agertuko da: *itxi, ixten.*

Hiztegi Batuko *josi-koala* zerrenda

Hurrengo zerrendari ekin dio ondoren Euskaltzaindiak. X. Kintanak ekarri ditu oharrak.

- *Kastigatu*-ren sarreran Heg. oharra ezarriko da.



- *Karteldeg** sarrerak ere eztabaida luzea ekarri du. Ohar hau izango du: espainolezko 'cartelera' esateko, e. *ikuskitunak*.
 - *Kateto* hitza sartzea onartu da.
 - *Kanario/kanari* auzia bozkatu egin da. Azkenean, *kanari(o)* gisa ematea onartu da.
 - *Justu* sarreran, aditzondo denean, *Herr*. dela adieraztea onartu da.
 - *Kaixo* lagunartekoa dela adieraziko da.
 - *Kaltzara* sarrerari leku egingo zaio: *kaltzara**, "e. *galtzada*" ezarriko da.
 - *Kanpatu, da* aditza dela esango da.
 - *Kanpora* ere sartuko da.
 - *Kanpoeder* sartzea onartu da.
 - *Kanpolarrosa* ere onartu da, baina hau Bizk. oharra alboan duela.
 - *Karesa/karesatu* hitzak sartuko dira, *Ipar. Herr*. 'fereka/ferekatu' oharrarekin.
- Bigarren itzulirako utzi dira: *junta, kandelario, kantinier(t)sa* eta *karaktere*.

I.3. ZENBAIT ERABAKI AIPAGARRI

Urtarrila

Euskera CD-ROMean

Iazko urrian Aurten Bai Fundazioak eta Euskaltzaindiak hitzartu bezala, Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala den *Euskera* CD-ROMera pasatuko da. Fundazioaren eta Akademiaren zuzendaritza bien arteko erabakiaren arabera ez dira *Euskera*-ren zenbaki guztiak hartuko; 1919. urtetik 1978. urtera arteko zenbakiak -hots, Bergarako Biltzarrera artekoak- bihurtuko dira CD-ROMera.

Nafarroako ordezkaria

Orain arte Nafarroako ordezkari izan den Jose Mari Satrustegi euskaltzainak utzi egin du kargu hori, eta Euskaltzaindiak, urtarileko osoen batzarrean, Andres Iñigo euskaltzain urgazle, Onomastika batzordekide eta Jagon sailkidea hautatu du Nafarroako ordezkari.

Otsaila

Frantziako Estatu Kontseiluaren erabakia hizkuntza minoritarioez

Errepublikako Estatu Kontseiluak Frantziako hizkuntzei buruz eman duen iritzia dela eta, adierazpen-agiri bat onartu da. Adierazpen honek, besteak beste, birretsi du Biarritzeko Udaletxean 1994an aldarrikatua: “Ikusirik Europako Parlamentuak eginiko gomendioa, euskara ofiziala dela Hegoaldean eta tresna egokia bihurtu dela gaurko gizartean, galdegiten dio frantses gobernuari euskarak ukan dezan Euskal Autonomia Erkidegoan duen koofizialtasun bera Iparraldeko hiru probintzietan”.

Martxoa

Andres Urrutia, euskaltzain berria

Euskaltzaindiak Iraizotzen, martxoaren 21ean egin duen hileroko osoko batzarrean, Andres Urrutia Badiola hautatu du euskaltzain oso, Alfonso Irigoienek hutsunea betetzeko. Urrutia jauna, notarioa, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Jagon sailkidea da.

Azkue Bibliotekako zuzendari berria

Hutsik zegoen lanpostua betetzeko egindako deialdiari jarraituz, eta horretarako iazko irailaren 27ko osoko bilkuran izendaturiko epaimahaikideek egindako hautaketa kontuan izanik, Zuzendaritzak, martxoaren 18ko bileran, Pruden Garzia Isasti izendatu du Azkue Bibliotekako zuzendari. Oñatiko Udal Bibliotekako arduradun izan da orain arte.

Batzorde berriztatuetan aldaketak

Urte hasieran urte birako berriztatu diren batzordeetan aldaketa hauek gertatu dira:

– Hiztegi Batuko lantaldean bi kide hauek gehitu dira: Miriam Urkia eta Koro Navarro.

- Herri Literatura azpibatzerdeko buru Juan Mari Lekuona izango da.
- Ahoskera batzerdeko idazkaria aldatu egin da: orain Pilartxo Etxeberria da.

Apirila

Adierazpena

Euskaltzaindiak, apirileko osokoen bilkuran, adierazpen hau onartu du: "Barañaingo Udalaren 1994ko deialdi batez Nafarroako Epaitegi Gorenaren 1997ko otsailaren 20ko epaia dela eta Euskaltzaindiaren adierazpena."

Auzia honetan datza: Barañaingo Udalak 1994. urtean zenbait lanpostu betetzeko deialdian euskararen eskakizuna jarri zuen. Sindikatu batek auzia jarri zuen eta Nafarroako Epaitegi Gorenak arrazoia eman zion. Madrilgo Tribunal Supremo delakoan erabakizun dagoelarik, Euskaltzaindiak Barañaingo Udalaren aldeko adierazpena egin du.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa

Atlaserako inkestak egin diren 145 herrietako euskararen minutu eta erdiko lagina hiruzpalau CDtan jasotzeko, Pello Agirre Sarasolari -oraintsu Belapeyre-ri buruz tesi doktora egin duenari- beka ematea erabaki du Euskaltzaindiak.

Maiatza

Euskaltzaindia Internet-en sartzeaz

Euskaltzaindiaren informatizazio-plan orokorraren barnean, *Internet-en sartzea* azterzen ari da Zuzendaritza, horretarako zenbait jentio egiten hasi delarik.

Bilboko Irakasle Eskola

Aurreko urteetan bezala, aurtien ere Irakasle Eskola horretako 3. kurtsoko ikasleei bizkaieraren gaitasuna frogatzeko egingo zaien azterketarako epaimahaikide bat izendatzea eskatu zaio Euskaltzaindiari. Beste urte gehienetan bezala, Juan Luis Goikoetxea Arrieta euskaltzain urgazlea izendatu da zeregin horretarako.

Jose Mari Lertxundi eta Maria Iburgureni esker onez

Aiako Laurgain jaurguan, orain Gipuzkoako Diputazioak duen goarda-etxean, azken urteotan hilero bildu da Herri Literatura azpibatzerdea. Baita Zuzendaritzaren eta Euskaltzaindiaren zenbait jardunaldi eta batzerde-bilera ere bertan egin dira. Lertxundi-Iburguren senar-emazteei esker onezko agurra egiteko brontzezko domina ematea onartu da.

Ekaina

Hezkuntza Ministeritzaren diru-laguntza bereziak

Hezkuntza Ministeritzak "Ekintza Berezien" barnean ikerketentzako eskaintzen duen diru-laguntzetara aurkeztu du Euskaltzaindiak, ekainean, *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren 10. liburukiaren prestaketa. Era berean, Azkue Bibliotekako katalogazio-plana ere "Biblioteca Nacional"-era aurkeztuko da.

Uztaila


1998ko aurrekontuak

Akademiaren 1998rako aurrekontua onartu da, hilabete aurretik Diruzaintzak aurkeztutako proposamenaren arabera.

Iraila

BBV Fundazioa eta Euskaltzaindia

Euskaltzaindia egiten ari den Hiztegi Batuaren egitasmoa finantziatzeko asmoa adierazi dio Banco Bilbao Vizcaya Fundazioak Akademiari. Asmo hori irailaren hamazazpian sinatu den hitzarmenean gauzatu da. Hitzarmen honen laguntzarekin hiru urtez Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldearen kostuari aurre egingo zaio. Hitzarmena BBV Fundazioaren burua den Jose Angel Sanchez Asiainek eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu dute.



Banco de Bilbao Vizcaya Fundazioaren egoitzan, 1997-IX-17an, Euskaltzaindiarekin egindako hitzarmenaren sinadura-ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, José Angel Sánchez Asiain.

Urria

BBK - Euskaltzaindia sarietarako epaimahaia

Literatura Ikerketa azpibatzaordearen proposamenez, BBK eta Euskaltzaindiaren 1997ko sariketarako epaimahaikide hauek izendatzea erabaki du Akademiak:

- Txomin Agirre eleberria: Gorka Aulestia, Txomin Peillen, Ana Toledo.
- Toribio Altzaga antzerkia: Eugenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia olerkia: Jon Kortazar, Mikel Lasa, Juan Mari Lekuona.
- Mikel Zarate saioa: Andolin Eguzkitza, Adolfo Arejita, Luis Mari Mujika.

BBK - Euskaltzaindiaren 1997ko Azkue saria

1997ko Resurrección Maria Azkue sariaren deialdia egin da: lanak aurkezteko epea 1997ko abenduaren 16a izango da. Sari hau gazteei zuzendua dago eta bi sail ditu: narrazioa eta olerkia.

Euskaltzaindiaren ordezkapenak

– Iruñeko Udaleko literatura lehiaketa

Kultura alorreko zinegotziaren eskabideari erantzunez, Iruñeko Udalak antolatzen duen literatura lehiaketarako Euskaltzaindiaren izenean joango den epaimahaikidea izendatu da: Patxi Zabaleta izango da eta Patziku Perurena ordezkoa.

– Nafarroako FM irrati-lizentzia berriak

Nafarroan FM irrati-lizentzia berriak banatu behar direla eta, Euskaltzaindiak 1997ko urriaren 31n egoitzan egindako osoen bilkuran, Jagon Sailak hala eskaturik, Nafarroako ordezkariak prestatutako proposamena onartu du, eta Nafarroako Gobernuaren Lehendakaria den Miguel Sanz jaunari igortzea erabaki. Andres Iñigo Nafarroako ordezkariak bidali du erabaki hori jasotzen duen gutuna.

1997ko Abadia sarirako hautagaia

Gipuzkoako Diputazioak antolatzen eta babesten duen Abadia sariaren 1997ko deialdira Antonio Zavala aurkeztea onartu du Zuzendaritzak, Herri Literatura azpibatzordearen proposamenez.

Azaroa

ETB Iparralde osora hedatzeaz

Charritonen proposamenez ETB Iparraldeko txoko guztietara iristeko bidea ziurtatua delako, dagokien erakundeei zorionak ematea erabaki da.

Abendua

Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa

Abenduaren 19ko osoen batzarrean ontzat eman du Euskaltzaindiak *Euskaltzaindiaren Alde* Fundazioa sortzea. Gaur egun erakunde desberdin askoren -bereziki hizkuntz akademia zenbaiten- ildotik Euskaltzaindiak ere horrelako fundazioa sortu nahi izan du, besteak beste, diru-iturri lagungarri garrantzitsua izan daitekeelako.

Euskaltzaindiaren zerbitzuen ordaina

Erakundearen Aurrekontua estaltzeko Herri Aginteen laguntzez gain bestelako diru-iturrietako bat, orain arte dohainik eman dituen zenbait zerbitzu kobratzea izan daitekeela erabaki du Zuzendaritzak abenduko azken bileran. Kobratuko diren zerbitzuak hauek dira: ziurtagiriak, irizpenak, ikerketak, kudeaketa, Azkue Bibliotekako zenbait zerbitzu eta Euskaltzaindiaren lokalak uztea. Zerbitzu hauek ez zaizkie kobratuko Euskaltzaindia diruz babesten duten erakundeei.

II. Sailak eta batzordeak

II.1. Iker saileko batzordeak

II.1.1. Hiztegitza

II.1.2. Gramatika batzordea

II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea (Euskal Herriko Hizkuntz Atlas)

II.1.4. Onomastika batzordea

II.1.5. Literatura batzordea

II.1.5.1. Herri Literatura azpibatzerdea

II.1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea

II.1.6. Batzerde suntsikorrak

II.1.6.1. Euskara Batuko batzerdea

II.1.6.2. Ahoskera azpibatzerdeko lantaldea

II.2. Jagon saila

BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren lanaren emaitza batzorde-lanari zor zaio hein handi batean. Euskaltzaindiak gaur egun burutzen duen lan akademikoa ezin ulertuzkoa izango litzateke hilerok hilerok biltzen diren batzordekideen lanik ez balego. Elkar-lan horrek biltzen du adituen ekarria eta hor prestatzen eta oinarritzen dira ondoren Euskaltzaindiak hartzen dituen hizkuntz erabakiak.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak izendatzen dira edota lantaldeak sortzen, kasuan kasuko batzordearen premien eta Erakundearen baliabideen arabera.

Batzorde horietan, euskaltzain oso eta urgazleez gain, esparru desberdinetako adituak biltzen dira: unibertsitateetako irakasleak, batxillergo institutueta irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikoak, itzultzaileak, hiztegiak eta administrazioko teknikoak. Hori horrela izateak Euskaltzaindiaren lana aberasteaz aparte, oso oinarri sendoak eskaintzen dizkio erabakiak hartzeko orduan. Baina, horrek, bestalde, berez dakar prozedura zailtea, batzordekideek beren ogibidea baitute, eta tarteka egiten dute lan Euskaltzaindiarentzat.


Batzordeen lan-metodologia

Batzordeen lana talde-lana da, eta nahiz eta hasieran batzordekide jakin baten oinarriko ikerketatik abiatu, batzordeak bideratzen du gaia. Esan liteke, oro har, batzordeen lan-moduan ondoren adierazten diren urratsak ematen direla:


- a) Batzordeak lehenik txostenak egiteko agindua ematen die batzordekideei.
- b) Batzordekideek beren txostenak prestatzen dituzte.
- c) Batzordekideek beren txostenak irakurtzen dituzte batzordean.
- d) Batzordeak eztabaidatu egiten ditu, eta txostengileek egokitu egiten dituzte txostenak, behar izanez gero, batzordeak erabakitakoaren arabera. Prozesu honek txostenak bi edo hiru aldiz berridaztea ekar dezake berekin, batzordeak testua osorik ontzat eman arte.
- e) Zenbait kasutan, batzordeak bekadun edo lan-hitzartu baten laguntza izan dezake, esku arteko lanak edo txostenak egin ahal izateko informazioa eskuratzen duena, Hiztegi Batua, Onomastika edo Gramatikaren kasuan bezala.

Batzordeen bilerak

Hona hemen, grafikoan bidez azalduta, batzorde desberdinek 1997an egindako bileren berri:



Batzordeen bilerak hilez hil



II.1. IKER SAILEKO BATZORDEAK

II.1.1. HIZTEGIGINTZA

II.1.1.1. Orotariko Euskal Hiztegia

Sarrera

Akademiak bere xede eta helburu nagusien artean du euskal hiztegia biltzearena Arautegiaren 1. artikularen arabera. Azkueren hiztegia agortu zenean, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenari eman zion bigarren edizio eguneratua eta osatua prestatzeko agindua. Lan hori oso astiro zihoan, alde batetik, eta, bestetik, ibilian-ibilian uste ez bezalako neurria hartu zuen. Informazioa lehen baino ugariagoa zen eta baliabideak ere lehen baino hobeak, eta proiektu berri eta zabalagoari ekitea erabaki zen. Proiektua pertsona bakar batena izatetik lantalde bate-na izatera pasatu zen. Horrela, 1984ko maiatzaren 16an, hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioek eta Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegia* gauzatzeko. Geroago, Nafarroako Gobernua ere atxiki zitzaion proiektu honi.

Hasierako informatizazio-plana EJIEk (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak) burutu zuen, eta berak darama gai horrekiko jarraipena.

Lantaldeak prestatzen du hiztegia, EJIEk prozesatzen du informazio hori liburuak duen formatoaren arabera, eta argitaletxeen esku geratzen da liburu argitaratzea eta banatzea.

Hiztegi honek garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da, eta ez arauemailea. Euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar zein hitz eta esapidez baliatu diren eta nola baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzea da hiztegi honen xedea.

Ia hirurehun liburutik jasotako corpusa aztertuz lau milioitik gorako hitz-altxorrarekin lan egiten da. Hots, tradizioaren bilketa-lanean oinarritzen da proiektua.

Hiztegiaren 1. liburukia 1987an argitaratu zen, eta 10.a 1997an. Guztira 16 liburuki izango ditu.

Lan-metodologia edo prozedura

*Orotariko Euskal Hiztegi*ko (OEHko) lantaldeak kasuan kasuko liburukiaren materiala prestatua duenetik liburukia kalean izan arte urrats hauek ematen dira:

1. OEHk liburukiaren edukia prestatzen duenean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzara bidaltzen du.
2. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak EJIEra bidaltzen du testu hori.
3. EJIEk (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak) hau egiten du:
 - a) zintako datuak prozesatzen ditu, informazioa, kodeak eta zeinuak, liburuak izango duen erara egokituz.
 - b) Zinta egokitua Madrilera bidaltzen du, fotokonposizio-etxera.
4. Madriletik, fotokonposizio-etxetik, OEHra (Donostiara) 1. frogak igortzen dituzte.

5. OEHk hau egiten du:
 - a) 1. froga horiek zuzendu, eta
 - b) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzara bidali.
6. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak zinta EJIera igortzen du.
7. EJIek hau egiten du:
 - a) zuzenketak gauzatu testuan, eta
 - b) zinta berriz bidali Madrilera.
8. Fotokonposizio-etxeak 2. -eta azken- frogak bidaltzen ditu OEHra.
9. OEHko lantaldeak:
 - a) zuzenketak egiten ditu, eta
 - b) zuzendu diren orriak soilik bidaltzen dira Madrilera zuzenean.
10. Fotokonposizio-etxeak zuzenketak egiten ditu, eta argialetxeen esku geratzen da liburukia argitaratzea.

1997ko lanen berri

X. liburukia

X. liburukiaren idazketa

Martxorako amaitua zen X. liburukiaren idazketa.

X. liburukiaren zuzenketak

A) Urtarriletik irailera bitartean, liburuki honetan jaso diren JAD-KOP arteko hitzen testua zuzendu da. Zuzenketa-mota honek dagokion liburukiaren testua lantaldeak bukatu bitarteko lana hartzen du, ez geroago aipatuko diren frogen zuzenketa.

Ondoko eranskinetan erakusten dira epe honetako zuzenketa-lan desberdinei buruzko xehetasunak:

- a) Adibideen zuzenketari dagokionez (hiztegiaren corpus nagusia osatzen duten testu eta adibideak), JAD-KOP zatia burutu da.
- b) Sarrera-buruei dagokienez (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.), JAD-KOP zatia landu da.
- c) Koordinazio eta zuzenketaren atalean, JAD-KOP zatia landu dute bi zuzentzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren bestearenak aztertuz.
- d) Zuzenketa filologikoan eta lexikografikoan, JAD-KOP zatia landu dute bi zuzentzaileek.

B) Frogen zuzenketa: irailaren hasieratik urriaren amaierara bitartean, liburukiaren inprimategiko bi froga zuzendu dira, JAD-KOP arteko testua. Beraz, liburukia prest utzi da argitaratzeko.

X. liburukia argitaratu

1997ko abenduan inprimatu da *Orotariko Euskal Hiztegiaren X. liburukia*:

- JAD-KOP letren arteko hitzak jasotzen ditu,
- 782 orrialdeko liburukia da, eta
- 9.777 hitz-sarrera desberdin ditu.

XI. liburukia

XI. liburukiaren idazketa

Martxotik abendura, KOR-MA letren arteko testua idatzi da, ondoko eranskinean ikus daitekeenez.

XI. liburukiari dagozkion zuzenketak

Atal hau, normala den bezala, gainerakoak baino gutxiago landu bada ere, zuzenketa-lan hauek burutu dira, azaroaren amaieratik abendura bitartean:

- a) Adibideen zuzenketari dagokionez (hiztegiaren gorputz nagusia osatzen duten testu eta adibideak), KOR-LAM zatia burutu da.

- b) Sarrera-buruei dagokienez (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.), KOR-LA zatia landu da.
- c) Koordinazio eta zuzenketaren atalean, KOR-LAB zatia landu dute bi zuzentzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren bestearenak aztertuz.
- d) Liburuki honen zuzenketa filologiko eta lexikografikoan KOR-KUP atala zuzendu da.

1. ERANSKINA

1997ko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
ke- koa/kom	koa/kom	kom- kr-	kr- kon-	kum-/kuz-	kum-/kuz- lar-	lar-	lar- leg-	leg- lei-	lei-/liz-	lei-/liz- lu-/lur-	lu-/lur-
kik/kil kir-	koo/kop kord/kork	corp/korr kos/kosk -x -z	kos-/kosk- kontra lag-	lag-	lai- las-	las-	lat- len-/leo-	len-/leo- lep-/ler-	ler-	los-/loz-	lor-/loz-
kan-	kon-	kon-	kon-	lan-/lap-	lan-/lap-	lap- lea-	lea-/lee-	lea-/lee-	let-/lez- lia-/lil-	lia-/lil-	lia-/lil- lus-/luz-
kati/katt kis/-x/-z	kis/-x/-z koro/-ru	koro/-ru kot-	kot- kon- la-/lab	la-/lab-	la-/lab- lak-	lak-	lak- lek-	lek-	lek-	lek-/lem-	lek-/lem- ma-/mai-
kim/kip kit- kl-	kl- kora/korb	kora/korb kors/kort kosl/kosu	kosl-/kosu- kors- kontx-/tz	ku-/kul- lab-/laf-	lab-/laf- lal-/lam-	lau-	lau-	lau-	lau-/laz-	laz- ll-/lop-	ll-/lop-

2. ERANSKINA

1997ko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazioa eta zuzenketa		Testu zuzenketa	Sarrera-buruen zuzenketa	Zuzenketa fil. eta lexik. ma.
Urtarrila	jo-/kal-	—	jad-/jar-	ji-/juz-	—
Otsaila	jal-/kar	—	jar-/juz-	ka-/ke-	jad-/juz-
Martxoa	kar-/kez-	—	ka-/kal-	ka-/ke-	ka-/kez-
Apirila	ki-	jad-	kam-/kar-	ki-/kon-	ki-
Maiatza			kar-/ke-	kon-/kor-	ko-/kor-
Ekaina	kos-	kos-	ke-/ki-	kor-/kos-	kos- jad-/kos-
Uztaila			ki-/kis- kit-/kok-	kor-/kos-	
Abuztua	jad-/kop-	jad-/kop-	kol-/kon- kon-/kor-	kor-/kos-	jad-/kop-
Iraila	jad-/kop-	jad-/kop-	kon-/kor-		jad-/kop-
Urria	kor-		kos-/kut-	kos-/ku- la-	
Azaroa			kux-/lam-	la-	
Abendua	lab-		kux-/lam-	la-	kor-/kup-

II.1.1.2. HIZTEGI BATUKO LANTALDEA

Sarrera

Hiztegi Batua eta *Orotariko Euskal Hiztegia* dira Euskaltzaindiak lexikografiaz dituen bi egitasmo nagusiak. *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren helburua euskararen hitz-ondarea jasotzea bada, *Hiztegi Batua*-rena hiztegi arauemailea gauzatzea da.

Euskaltzaindiak zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatal Izendegia*, etab. Ondoren, euskararen beharrei erantzuteko nahitaezkoa zela euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea ikusi zuen Akademiak, eta horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Oinarritzko hiztegi honek eguneroko bizitzako hitz erabilienak euskara batuan finkatuko ditu.

Lanaren metodologia eta irizpideak zehazten eman zuen batzordeak 1992a, eta 1993an hasi zen lehen hitz-zerrenda aztertzen eta ontzat ematen.

Batzorde honen lan-metodologian aipatzekoak dira iritzi-emaileak. Batzordeak, hitz-zerrendak onartu ahala -letraka- 105 iritzi-emaileari igortzen dizkie, azter ditzaten eta oharrak egin, hala irudituz gero.

Hiztegi Batua bi zatitan lantzen ari da. Horietan lehenak forma erabilienak edota hedatuak jasotzen ditu, eta bigarrenak erabilera urriagokoak. Lehenengo pasaldian 1997. urtearen hasieran amaituan, 20.000 hitz edo forma aztertu ditu Hiztegi Batuko lantaldeak. 1997an lantzen hasi den bigarren zatia beste horrenbeste forma izango ditu aztergai. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 30.000 hitz inguru izan ditzake Hiztegi Batuak. Euskaltzaindia hasia da lehen zatiko formak argitaratzen, hitz-zerrendak osoen batzarretan aztertu, onartu eta arautuz.

1997an burututako lanak

Batzordeak hitzak aztertzea

Lantaldeak 1997an zehar 22 bilera egin ditu, eta bilera horietan 5.424 forma aztertu ditu:

- *zanpateko-zuzter* arteko 1.224 forma landu ditu urteko lehen hiru bileretan, urtarril-otsailekoetan, eta
- laugarren aztergaiko (*) 4.200 forma, *a - aurrerarazi* hitzen artekoak, ondoko hilabeteetan, beste 19 bileretan.

Hitz edo forma horiek txostenen argitan eta lantaldearen irizpideen haritik landutako proposamenak izaten dira. Bekadunek txosten hauek prestatu dituzte: Hiztegi Batuko lantaldearentzat 441 txosten eta Euskara Batuko batzordearentzat 31. UZEIko lantaldeak ere egin

(*) Laugarren aztergaiarekin Hiztegi Batuaren bigarren zatia edo pasaldia adierazi nahi da, hots, A-Z arteko bigarren hitz-zerrenda.

ditu zenbait txosten. Laugarren aztergaiko formei dagokienez, bataz beste, hirutik bi dira lantaldeak ontzat ematen dituenak, eta herena baztertzeko duena edo gerorako uzten duena.

Aztertutako hitz edo forma horien iturri nagusiak *Orotariko Euskal Hiztegia* (OEH) eta *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematika* (EEBS)ren corpusak dira. Beste hauek ere kontuan hartzen dira: euskaltzainek edota iritzi-emaileek aurreko A-Z arteko zerrendari gehitzeko eskatuak, prestasunaren lekuko izan litezkeen zerrenda eta hiztegitxoetakoak, eta azken aldiotako glosario kontsentsuatu edo talde-lanean proposatutakoak. (Ikus, argibide gehiagotarako, azken puntuaren esaten dena).

Irizpideen txostena eguneratu

Lantaldearen irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz doa, auzigai berriak agertu ahala, dagokien konponbidea zehaztu ahal izateko.

Irizpide horien eta kasuan kasuko informazioaren argitan (cf. gorago aipaturiko txostenak) aztertu dira forma edo hitzak, eta hauetako bakoitzaz lantaldeak bere iritzia eskaini du:

- onartzeko forma den
- beste baten aldean hobestekoa den
- bigarren mailan onartzekoa den
- okerra den
- zein eremutan erabiltzekoa den
- nola ageri den syntaxian
- zein adiera duen
- etab.

Datu horiek guztiak jaso eta egituratzen dituen dokumentua da batzordearen lanaren lekuko, eta horixe da euskaltzainei eta gainerako iritzi-emaileei banatu zaiena.

Euskaltzainei eta iritzi-emaileei hitz zerrendak bidali

1997an bi bidalketa egin dira, bata otsailean eta bestea ekainean:

- U-V-W-X eta Y letrei dagozkien hitz-zerrendak. Guztira 975 hitz.
- Z letrari dagozkion 1.655 hitzeko zerrenda.

Guztira, 2.630eko hitz-kopurua bidali da, hirugarren aztergaiari dagokiona. Laugarren aztergaiko formak banatzea atzeratu egin da, Euskara Batuko batzordearekin argitu nahi baitira auzi batzuk, iritzi-emaileei helarazi aurretik.

Hiztegi Batuaren bigarren pasaldiaren prestaketaren aurrean

Hiztegi Batuko lantaldeak, Euskaltzaindia arautzen ari den Hiztegi Batuaren bigarren pasaldia prestatzeari ekin dio 1997an, A letrarekin hasiz. Datozen lau urteetarako lana eman go dio honek lantaldeari, aurreko pasaldian bezala 20.000 inguru hitz proposatu ahal izateko. Aurreko saila erabakitzeko bezala, erabilera-maiztasuna izan da irizpidea honetan ere: EEBS corpuseko hurrengo 10.000 hitz erabilienak eta OEHn bost lekukotasunetik gorako beste 12.000 inguru hitz hartuko dira. Oinarritzeko aztergai hori osatu egingo da, gerta litezkeen hutsune nabarmenenak estali ahal izateko, honako hauek baliatuz: euskaltzainek edota iritzi-emaileek aurreko A-Z arteko zerrendari gehitzeko eskatuak, prestasunaren lekuko izan litezkeen zerrenda eta hiztegitxoetakoak (testu idatzietan agertu ez arren, hiztunak eguneroko jardunean erabili ohi dituenak edo erabiltzeko prest dituenak), eta azken aldiotako glosario kontsentsuatu edo talde-lanean proposatuak (arlo mugatuetako hitz-zerrendak, hainbat erakunde eta sentieratako kideek adostu dituztenak).

Aurreko eta oraingo pasaldiak konparatzeko, esan dezagun oraingo pasaldiko formak aurrekoak baino erabilera urriagoak direla oro har. Ezaugarri jakinak ditu hitz-sail berriak: hainbat forma gutxitan erabili da, baina arazo handirik gabe aurki dezake bere lekua hiztegian; beste hainbat, berriz, tradizioak berak baztertutxa egon liteke, edo teknizismo espezializatuen mugakoa da, edo aski sustraitu gabeko forma berria, etab.

Ezaugarri horiek, jakina, lantaldearen irizpideak argitu, zehaztu eta egokitzea eragin dute, baina ez funtsezko aldaketarik, lantaldearen ustez, bederen. Lan-metodologiak ere, beste horrenbeste esan liteke, eta aurreko pasaldikoari eutsi zaio. Hala ere, eta aurreikusia zegoenez, asko apaldu da forma proposatuen kopurua bilerako, aztergai berriari ekin zaion bakoitzean gertatu den bezala, lehen bospasei bileretan batez ere.

Proposatzen duena proposatzeko, bi eratako oinarria du beti lantaldeak: erabilerei dagoen informazioa eta hori haztatzeko irizpide ahalik eta sistematikoenak. UZEIko prestalaneo taldeak biltzen eta egituratzen ditu OEH eta EEBS corpus bietako lekukotasunak; kontrola ditzakeen bestelako erabilerak ere jasotzen ditu eta hiztegi-entziklopedietako proposamenen berri ematen du. Gainera, gero eta arreta handiagoa eskaini beharra dago forma/adiera loturei, bai euskal formen artekoei eta bai mailegu berriak onartzeko zaindu beharrekoei (besteak beste, "nazioartekotasuna" benetan oinarritua izan dadin; horretarako, inguruko erdara nagusietako forma/adiera banaketak ere lantzen ditu txostenak, egoki denean).

Halako hedadura bat duten formen kasuan erabakigarria da erabileraren pisua; beste batzuetan, berriz, arinagoa da ezinbestean, urria delako edo, batera zein bestera egiteko aukerak zabalik uzten dituzenez, erabakia bideratzen ez duelako. Horrelakoetan, lantaldearen irizpideen gain doa erabakiaren pisua, eragin handiagoa baitu, adibidez, osaera egokiak, edo formaren argitasunak, edo egindakoarekiko koherentziak. Irizpide horiek formulatu eta sistematizatzen segitzen du lantaldeak; eta nahi baino gehiago luzatu den arren, Euskara Batuko batzordearekin eztabaidatu eta finkatu nahi dira irizpideok, adostu beharrekoak adosteko eta alfer-lanei ihes egiteko.

Ondoren, eta azken orduko ukituak eginik, prest egongo dira hitz-zerrendak euskaltzainei eta beste iritzi-emaleei helarazteko.

II.1.2. GRAMATIKA BATZORDEA

Sarrera

Batzorde hau aspaldidanik ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen, eta 1984tik 1994ra bitartean zazpi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da, ondoren, gai horretaz liburu bi argitaratzeko. Liburu horiek ere lehenago aipaturiko liburu-sortan kokatuko dira. *Menderakuntza*ren barnean, *-en* eta *-ela* menderagailuen azterketa egiten dihardu batzordeak, txostenak prestatuz eta eztabaidatuz, behar diren idatzaldiak eginez.

1997an egindako lana

Gramatika batzordeak 1997an hamar bilera egin ditu, gehienak goiz eta arratsalde, gutxira sei bat ordukoak. Batzordeak, alde batetik menderakuntzari buruzko txostenak aztertu eta zuzendu ditu, eta bestetik hizkuntz kontsultei buruzko irizpenak eman ditu.

1. Menderakuntzari buruzko lehen liburukirako txostenen azken idatzaldia

Menderakuntzazko lehen liburukia osatuko duten txosten gehienen behin betiko idatzaldia egin du batzordeak. Hona hemen aztertu eta zuzendu diren txostenen zerrenda:

- "Izenorde erlatiboa duten erlatibo posposatuak: ZEIN erlatiboak"
- "Izenorde erresunptiboa duten erlatibo posposatuak: BAIT- erlatiboak"
- "Korrelazioz moldaturiko perpaus erlatiboak"
- "Perpaus erlatiboak"
- "Zehar galderak"
- "(Noiz) *etorriko den galderari erantzun dio*: zehargaldera + IS"
- "Kantitatezko konparazioa"
- "Maila konparazioa"
- "Eredu erromanikoaz eratutako perpaus konparatiboak"
- "Konparazio perpausak"
- "Perpaus konpletiboak"
- "Konplementazioa (perpaus osagarriak)"
- "-*enik* menderagailua"
- "-*ena* menderagailua"
- "Perpaus kontsekutiboak"
- "*Zeren ... -(e)n*"

Txostenok bata bestearekin jostea eta liburuan izango duten egitura ematea falta da, 1998. urtearen erdi alderako egingo dena.

Lehen *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren corpuseko kontsultak BILEGI izeneko programa baten bidez egiten ziren. 1997an zehar ezin izan da bide hori erabili, eta falta ziren adibideak aurkitzeko txostengile bakoitzak moldatu behar izan du, edota batzordekideen laguntzaz baliatu.

2. Menderakuntzari buruzko bigarren liburukiko txostenak prestatu

2.1. *-(e)n*-kilako perpaus adberbialak:

- "*-(e)n* + adberbio hondarkiak"
- "*-(e)n* + posposizioak edo elementu klitikoak"
- "Ezkerreko osagarria + *-(e)n*"
- "Helburuzkoak"

2.2. *zeren ... -(e)n*:

- "*zeren ... -(e)n* Lizarraga Elkanokoaren testuetan"

Hizkuntz kontsultak

Erakunde zein hiritarrendandik jasotako beste hizkuntz kontsulta batzuei ere erantzun die batzordeak:

- *Ardatz* Itzulpen Zerbitzutik eskatutako irizpena baldintzazko perpaus batzuez.
- Berastegiko Udaletik iritsitako kontsulta, herriaren armariaren testuaz.
- Bizkaiko AEKko hizkuntz arduradunak egindako zenbait galdera.
- Hondarribiko Udal Euskaltegitik egindakoak.
- Loiolako Herri Irratitik eskatutako irizpena.
- Eusko Legebiltzarreko Erredakziotik jasotako zalantzei erantzun zaie.
- R. M^a Azkue Euskaltegitik iritsitako galderei erantzuna eman zaie.

II.1.3. EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA

Ikusirik euskarak oraindik ez zuela bere atlasa, eta ezin atzeratuzko premia zela, Euskaltzaindiak proiektu zabal hau abian jartzea erabaki zuen 1984an: Euskal Herriko Hizkuntz Atlasarena, hain zuen. Euskaltzaindiak bere gain hartu zuen, eta horretarako batzordea sortu. Hain zuzen, Julio de Urquijo jaunak, 1918ko Oñatiko Biltzarrean, sortu berri zen Euskaltzaindiaren bi xede nagusiak aipatu zituen: hiztegia aberastea eta atlasa egitea. Hala zioen Julio de Urquijo jaunak, 1918an lau Diputazioen babesean antolatu zen Oñatiko Biltzar horretan:

"... pero si las Diputaciones vascas y el país en general desean que esta ciencia se ponga de una vez a la altura de otras ramas, hoy más adelantadas, de la lingüística, debería decidir, lo antes posible, la formación del *Atlas Lingüístico del País Vasco*".

Batzorde horrek inkesta-sarea, galdesorta eta inkesta-metodologia landu eta finkatu zituen, eta 1986an probak egin ondoren 1987an hasi ziren inkestak egiten horretarako inkestagileak hitzartuz.

Euskal Herriko 145 herritan egin dira inkestak: Bizkaiko 36tan, Gipuzkoako 36tan, Arabako 1-ean, Nafarroako 27tan, Lapurdiko 15etan, Nafarroa Behereko 18tan eta Zuberoako 12tan.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun bildu dira. Horietatik 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. Goian esandako 145 herrietan egin diren inkestez 2.400 zinta grabatu dira, guztira, burutu ondoren 4.000 ordu baino gehiagoko grabazioa osatuz.

Inkesta jasoketa burutu eta haien ondorioak eskuz koaderno batzuetan (herri bakoitzeko bost koadernotan) jaso ondoren, 1990ean datu-base automatizatu bat eratzea erabaki zen. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIEk) berriazko programa egin zuen, eta harrezkeroztik lantaldea datuak base horretan sartzen aritu izan da.

Halaber, 1995 eta 1996an iraupen luzeko disko konpaktoetan jarri ziren inkesten erantzunak jasotzen dituzten zinta magnetikoak, Atlasaren corpus fonikoa gisa horretan segurtatua dagoelarik.

Egitasmoaren helburua inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea, eta oro har ondorio horiek publikoaren eskuetan jartzea da. Mapa-liburuak era automatizatuan argitaratu ahal izateko programa informatiko eguneratua prestatu du Aurten Bai Fundazioak 1996 eta 1997an zehar, elkarte horrek Euskaltzaindiarekin egindako hitzarmenaren ondoren.

1997an egindako lanak


EHHA lantaldeak 1997an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- datuak base oinarri automatizatuan sartzen segitzea (oinarri berria egokitu ondoan);
- datu base zaharretik berrira pasatu datuak egiaztatu eta elaboratzeko eta argitaratzeko programa prestatzea;
- mintzamoldeen soinu antologia baten apailatzea.

Hirugarren koadernoko inkesten datuak sartzen jarraitu

1996ko bukaeran hasi ziren Donostiako bi lankideak eskuzko lanetako hirugarren ataleko datuak oinarri automatizatuan sartzen (orotara horrelako 5 atal direlarik). 1997ko lehen hilabeteak datu oinarri berriaren frogak egiten, zuzentzen eta egokitzen eman ziren (informatikariekin lankidetzan). Apirileko tresna prestik zegoen eta laneko urratsa ere finkatua. Datu sarrera ez da beraz lehengo Dbase III+ delakoan egiten, Windowsen gainean garatu programa berezi batean baizik. Esan gabe doa oso aldaketa garrantzizkoa izan dela informatikako eguneratzen horren egitea hari esker sistema estandar batean finkatu baita atlaseko datu oinarria.

1. irud.: datuen informatizazioa 1997an



S1: aldi bakoitzeko datuak; S2: datu metatuak

1997an 33 inkesta informatizatu dira (ikus 1. irudia). Guztira, dagoeneko, hirugarren koadernoko 113 inkesta daude informatizatuta.

Hona hemen informatizatu diren 33 herri horiek zein diren, lurraldeka:

- Bizkaia (13): Lemoiz, (Uribe-) Etxebarri, Mungia, Busturia, Otxandio, Ibarri, Kortezubi, Elantxobe, Arrazola, Elorrio, Bolibar, Gizaburuaga eta Lekeitio.
- Araba (1): Aramaio.
- Gipuzkoa (10): Araotz (Oñati), Oñati, Elgoibar, Azkoitia, Urretxu, Beasain, Asteasu, Amezketeta, Tolosa eta Elduain.
- Nafarroa (3): Dorrao, Oderitz eta Suarbe.
- Lapurdi (1): Sara.
- Nafarroa Beherea (5): Bidarra, Irisarri, Arruta, Armendaritze eta Gamarte.


1997. urtearen amaieran hirugarren ataleko 113 inkesta daude informatizatuta (%77,93) eta 32 falta dira amaitzeko.

Horrekin batera, lehen sartutako inkesta hauen zuzenketak egin dira ordenagailuan: Hondarribia, Ikaztegieta, Bolibar, Mungia, Arruta, Gizaburuaga, Lemoiz, (Uribe-) Etxebarri, Irisarri eta Oñati.

2. irud. : hirugarren koadernoko datu-sarreraren egoera urte amaieran

	informatizatuta	informatizatzeko	guztira
BIZKAIA	26	10	36
ARABA	1	0	1
GIPUZKOA	36	0	36
NAFARROA	21	6	27
LAPURDI	4	11	15
NAF. BEHEREA	14	4	18
ZUBEROA	12	0	12


3. irud.: hirugarren koadernoko datu-sarrera lurraldeka 1997. urtearen amaieran



S1: 3. koadernoko inkestetatik oraindik informatizatu gabe daudenak
 S2: jadanik informatizatuta dauden inkestak
 S3: lurralde bakoitzeko inkesta-puntuak osotara

Datu-sarreraren egoera orokorra

Ondoko taulan adierazten da 145 herrietako bost koadernoetan dauden datuak zenbateraino sartuak diren ordenagailuan:



Datuen elaboraketa eta argitaratzea

Datu-basea txukundu eta hornitu

EHHA batzordeak harreman estua eduki du aplikazio informatiko berria eraikitzen aritu den Aurtan Bai Fundazioarekin. Hori dela eta, batzordeak informazio ugaria eskainiz zenbait txosten aurkeztu dizkio elkarte horri, atlasaren edizioa egiteko beharrezko gune informatikoa behar diren ezaugarrien gainean eraiki dezan.

"Dbase III+"etik Acces-era egin zen datuen lehen bolkatuak arazo txiki batzuk zituela eta, bolkatu berria egitea erabaki eta burutu da. Datu originalak dbf-etako CD-ROM batean gordeko dira, kopia desberdinetan.

Datuen trasliterazioan ere aldaketa batzuk egin dira. Buruhauste handiena ekarri duena [Z] zeinuaren ordezkia bilatzea izan da. Galdesortaren zuzenketa eta txukuntze-lanak ere amaitu dira.

Aldi berean, lantaldea datu-basea txukundu eta hornitzen aritu da, ondoren adierazten diren egitekoak burutuz:

- EHHA eta inguruko beste hizkuntz atlasetako galderen arteko kideak bildu dira (ALEANR -Aragoikoa, Nafarroakoa, Errioxakoa-, ALG -Gaskoina-, eta ALE -Europakoa-).
- Sistema zaharrean informatizatutako azken inkestak (3. koadernokoak) zip batean bildu dira.
- Euskal eta ingeles sarrerek landu dira.
- Argazki-liburuen miaketa burutu da, EHHako emaitzak -hala behar izanez gero- argazkiz lagundurik ager daitezten.
- Informatizatutako emaitzak zehaztasunez aztertu dira eta proposamen desberdinak aurkeztu dira batzordean.
- Datuen lematizazioarako irizpideak landu dira.

Datuen edizioa

Batetik, atlasaren argitalpenean parte hartuko duten lankideek prozedurak finkatu eta irizpideak bateratzeko saio desberdinak burutu dituzte. Bestetik, Aurten Bai Fundazioak bertsio desberdinak aurkeztu dizkio batzordeari datuen egiaztatze eta elaboraketarako, lematizazioarako eta mapagintzarako. Batzordeak, ondoren, eztabaidatu eta bere aldaketa-proposamenak helarazi dizkio.

Atlasa argitaratuko denerako, galderaka emango diren urrats hauen prestaketa-lana egin da:

- Datuak elaboratzeko gunea. Gai honetaz Aurten Bai-k aurkeztutako bertsio desberdinei oharrak eta zuzenketak egin dizkie batzordeak, eta ondoren behin betikotzat eman da azken bertsioa.
- Erantzunen lematizazioa. Prest geratu da erantzunen lematizazioarako gune informatikoa. Lehendik forma fonetikoan eta ortografikoan dauden erantzun guztiak, lematizazio-programa honen eraginez lema eta superlema gisa eskaini ahal izango dira. Lema edo superlema bakoitza kolore batekin ordezkatzeko da mapan.
- Maparako sekuentzia. Gai honetan Aurten Bai-ren eta batzordearen arteko lanaren ondotik, finkatuta geratu da atal hau ere. Hots, paperezko mapan kabitzen ez diren erantzunetatik aukera egiteko plan informatikoa. Aukeraketa hori burutzeko plan informatikoa da sekuentzien gunearen xedea.
- Mapagintza. Sistemak era automatizatuan burutuko ditu mapak, nahiz eta editoreak mapak aldatzeko aukera edukiko duen.
- Autoedizioa. Ezkerreko aldeko orrialdean atal hauek joango dira: erantzunen zerrenda -datu fonetikoena- agertuko da, lurraldeka eta alfabetoaren arabera ordenaturik; ondoan mapa txiki bat, beharrezkoa denean, erantzunen artean ager litezkeen fenomeno nagusi batzuk aztertzeko; eta, mapa handian sartzen ez diren erantzun eta proposamenen txokoa. Eskuineko aldean -orrialde parean- mapa handia agertuko da lau leienda desberdinez horniturik: maparen izenburua, mapan tratatzen diren erantzunen zerrenda, galdera-oharrak biltzen dituen leienda eta erantzun-oharrak biltzen dituenena. (Ikus bigarren eranskinean nola geratzeko litzatekeen Atlasean -mapan- hitz jakin baten azalpena.)

Argitalpena inprimategira eramateko prest utziko du, horrela, lantaldeak.

- Argitaratzaile batzordekideak datuak elaboratzeko unean informazioa leku batetik bestera garraiatzeko aukera izango du, datuak homogeneousatzeko eta txukuntzeko. Lan hauek ezinbestekoak dira datu-basea CD-ROM euskarrian argitaratu nahi bada.

EHHaren argitalpena bi euskarritan eskainiko da: paperean eta CD-ROMean. Paperean, egitasmoan bildu diren erantzunak eta mapak agertuko dira. CD-ROMean datu-basea eta mapak.

EHHaren audio materialaren

Egitasmo honetan jaso den audio materialaren antologia CD-ROMean argitaratzea erabaki du Euskaltzaindiak. Inkesta guztietako laginak aukeratzea erabaki da, programak biltzen dituen herri guztietako testu bat izateko asmoz. Aukeratze eta transkribatze lana X. Videgain eta Pello Agirrek burutu dute, batzordeko lankideen laguntzarekin. Ondoren, aukeratutako testuok CD masterretatik jaso dira, laginok bilduz elkarren ondoan jartzeko. Argitalpenaren prestaketaren lehen zatia burutua da, beraz.

EHHako zinten eta CD-ROMen inbentarioa

Erakundearen Azkue Biblioteka arduratu da eskuartearen dituen EHHako zinta eta CD-ROMen behin betiko inbentarioa egiten. Batzordeak parte hartu du gai horren inguruan sortu diren zenbait arazo bideratzen.

EHHaren inguruko zenbait txosten

A) Batzordez kanporako egindako txostenak:

Beñat Oihartzabal:

- "Lantaldearen ibilmoldeaz (1997/02/20)". Zuzendaritzarentzat egindako txostena.
- "Compte Rendu Final (1997/09/30)". Bruselako Europar Kontseiluareantzat egindako errendapen-txostena.
- "Rapport d'execution (1997/10/30)". Euskadi-Akitania-Nafarroa Lankidetzarako Erakundearentzat egindako errendapen-txostena.
- "Rapport d'execution (1997/12/31)". Frantziako Hezkuntza Nazionalako Ministerioarentzat egindako errendapen-txostena.

B) Hizkuntzarekikoak:

Gotzon Aurrekoetxea:

- "EHHA: datuen argitalpena"
- "EHHA: mapa-liburuaren ezaugarriak"
- "EHHA: datuen elaboraketa"
- "ALEANR-EHHA"
- "Lematizaziorako irizpideak"
- "Eztabaidatzeko, erabakitzeko edota onartzeko dauden arazoen zerrenda"
- "EHHA: oraindik egingai dena"
- "Galdesortaz oraindik ere ohar batzuk"
- "Datuen argitalpena edo edizio lana programan aritzeko esku-liburua"
- "EHHAko datu-basea: datuen zuzenketak eta taulen aldaketak"
- "EHHA datu-basearen egokitzapena"
- "Datu informatikoen kontrola"
- "Programeriaz"
- "Centrisa-koen txostenari oharrak"
- "EHHAko zintak arazo?"
- "Basearen ontzea"
- "EHHA: ikus delakoak"
- "Andoain (330) inkestako osagarri-dun oharrak"
- "EHHA: arazotxoak"
- "EHHA: proposamenen azterketa"

Xarles Videgain:

- "CD-en zerrenda"
- "EHHA: erdal sarrerak: irakurlea aldatzen dela eta, sarrerak aldatu behar"
- "Frantsesezko sarrerak: aldaketak"
- "Paloma torcaz/pigeon ramier: mapari buruz"

Izaskun Etxebeste:

- "Andoain: sartu ezin direnak"

Izaskun Etxebeste / Koro Segurola:

- "Elaboraketarako prozedura: gure kezak eta galderak"
- "Kontsulta"ri buruz: zuzenketak"
- "Datu-sarrera berriko egiaztapenak"

1. ERANSKINA
EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA
DATU SARRERA: 3. ATALA (97-12-31)

INKESTERRIA	A T A L A K				
	1	2	3	4	5
101 Getxo					
102 Leioa					
103 Zollo					
104 Sondika					
105 Laukiz					
106 Lemoiz					
107 (Uribe-) Etxebarri					
108 Zaratamo					
109 Orozko					
110 Mungia					
111 Zeberio					
112 Bakio					
113 Fika					
114 Larrabetzu					
115 Arrieta					
116 Lemoa					
117 Dima					
118 Zeanuri					
119 Errigoiti					
120 Bermeo					
121 Busturia					
122 Euba					
123 Mañaria					
124 Otxandio					
125 Ibarri					
126 Mendata					
127 Kortezubi					
128 Elantxobe					
129 Berriz					
130 Arrazola					
131 Elorrio					
132 Bolibar					
133 Gizaburuaga					
134 Lekeitio					
135 (Markin.-) Etxebarri					
136 Ondarroa					
201 Aramaio					
301 (Leintz-) Gatzaga					

INKESTERRIA	A T A L A K				
	1	2	3	4	5
302 Arrasate					
303 Eibar					
304 Araotz (Oñati)					
305 Oñati					
306 Bergara					
307 Elgoibar					
308 Mendaro					
309 Deba					
310 Azkoitia					
311 Urretxu					
312 Legazpi					
313 Zegama					
314 Ezkio-Itsaso					
315 Zestoa (Arroa)					
316 Azpeitia					
317 Getaria					
318 Beizama					
319 Beasain					
320 Ataun					
321 Errezil					
322 Aia					
323 Orio					
324 Asteasu					
325 Ikaztegieta					
326 Amezketa					
327 Tolosa					
328 Donostia					
329 Lasarte					
330 Andoain					
331 Elduain					
332 Oresa					
333 Hernani					
334 Pasaia					
335 Oiartzun					
336 Hondarribia					
401 Urdiain					
402 Arbizu					
403 Dorrao					
404 Gaintza					
405 Leitza					
406 Etxarri					
407 Oderitz					
408 Goizueta					
409 Ezkurra					

	A T A L A K				
INKESTERRIA	1	2	3	4	5
410 Beruete					
411 Igoa					
412 Etxaleku					
413 Suarbe					
414 Sunbilla					
415 Donamaria					
416 Etxalar					
417 Alkotz					
418 Aniz					
419 Lekaroz					
420 Zugarramurdi					
421 Eugi					
422 Erratzu					
423 Zilbeti					
424 Mezkiritz					
425 Luzaide					
426 Abaurregaina					
427 Eiaurrieta					
501 Hendaia					
502 Donibane-Lohizune					
503 Azkaine					
504 Sara					
505 Senpere					
506 Ahetze					
507 Arrangoitze					
508 Uztaritze					
509 Mugerre					
510 Itxasu					
511 Urketa					
512 Beskoitze					
513 Hazparne					
514 Makea					
515 Bardoze					
601 Aldude					
602 Bidarra					
603 Baigorri					
604 Arnegi					
605 Uharte-Garazi					
606 Irisarri					
607 Isturitze					
608 Arruta-Sa.					
609 Armendaritze					
610 Esterenzubi					
611 Gamarte					

	A T A L A K				
INKESTERRIA	1	2	3	4	5
612 Landibarre					
613 Behorlegi					
614 Arboti					
615 Garruze					
616 Jutsi					
617 Larzabale					
618 Bastida					
701 Phagola					
702 Domintxine					
703 Urdiñarbe					
704 Altzürükü					
705 Larrañe					
706 Altzai					
707 Sohüta					
708 Muntori					
709 Santa-Grazi					
710 Ürrüxtoi					
711 Barkoxe					
712 Eskiula					

Bizkaia

Arrazola (Atxondo): supelindara.
Arrieta: tñrintñl.
Bakio: surangil.
Bermeo: layáñto.
Berriz: supelándára.
Bolibar (Markina-Xemein): supelinddá'a.
Busturia: surangile.
Dima: supelandara.
Elantobe: suyangíla.
Elorrio: supelindara.
Errigoliti: surangi.
Gamiz-Fika: sujñññl.
Getxo: surangíla.
Gizaburuaga: surangíla.
Ibarruri (Muxika): supelándára.
Kortezubi: surangíla.
Larrabetzu: supilándara.
Laukiz: suyelíñda.
Leloa: suyelinde.
Lekeltio: supelándára.
Lemoa: supelándára.
Lemoiz: širingil.
Mañaria: supilándara.
Markin-Etxebarri: supelindára.
Mendata: supelíñddara.
Mungia: šayñññl.
Ondarroa: supilándara.
Orozko: suyelándara, **suyelinda*.
Otxandio: suyalíñdera.
Sondika: suyelinde, **suyelándara*.
Uribe-Etxebarri: supálinde, supálinde.
Zaratamo: supálinde.
Zeanuri: supelándára.
Zeberio: supelándára.
Zollo (Arrankudiaga): supelendara.
Zornotza: supilándára.

Araba
Aramalo: supelíñddara.
Gipuzkoa
Aia: supelangil.
Amezketza: suandilé.
Andoain: su'angil.
Arrasate: suyelíñddara.
Asteasu: suangil.
Ataun: suyalíñda.
Azkollia: supelíñderá.
Azpeltia: suyelíñderé.
Basain: suággilá.
Belzama: šwélíñdára, šwélíñdára.

Bergara: suyalíñddara.
Deba: supálindá'a.
Donostia (Ibaeta): suággil.
Eibar: supelíñddara.
Elduain: šqangilé.
Elgoibar: suyelíñd'ra.
Errezil: suélingára.
Ezkio-Itsaso: suyalíñdar*, suyalíñdará, suyalíñdára.
Getaria: širíngilú.
Hernani: suajngil.
Hondarribia: širungilú.
Ikaztegieta: suággil.
Lasarte: suangil.
Legazpi: suyándil.
Leintz-Gatzaga: supálinddara.
Mendaro: supelíñdára.
Oñartzun: surangil.
Oñati: suyándil.
Oñati (Araotz): supándil.
Orexa: suággil.
Orrio: suangil.
Pasaia: **šuraggil*.
Tolosa: muškár.
Urretxu: supálindaré.
Zegama: suyalíñda.
Zestoa (Arroa): supelíñdára.

Nafarroa
Abaurregaina: suyándil.
Alkots: supelíñde(mug.).
Aniz: supém'ndil.
Arbizu: šungendil.
Beruete: supándil.
Donamaria: šorággil.
Dorrao: šuméndil.
Elaurrieta: suyándéla, suyándil.
Erratzu: šup'emággil.
Etxalar: suággil.
Etxaleku: suyalíñ, sualdipé(mug.).
Etxarri (Larraun): supéandil.
Eugi: supendil.
Ezkurra: suangil, šwangil.
Gaintza: suandil.
Goizueta: suangil.
Igoa: šqangilé.
Leitza: š'angil.
Lekaroz: supémándil.
Luzaide: **suvelpándil*.
Mezkiritz (Ureta): suyándil.
Oderitz: suyaldin.

Suarbe: šup'éndil.
Sumbilla: suajngil.
Urdialin: supándil.
Zilbetti: šingilitára(mug.).
Zugarramurdi: šumajngil.

Lapurdi
Ahetze: mušker.
Arrangoitze: **suýándil*.
Azkaine: šumandil.
Bardoze: šijangleta, šýškandila.
Beskotze: supéandil.
Donibane-Lohizune: mušker.
Hazparne: šuangila, šup'angila.
Hendaia: šumaróil.
Itsasu: šupeyáñdel.
Makea: suyáñgel.
Mugerre: šuháñdola.
Sara: supémúšker.
Senpere: **supémándil*.
Urketa: lezáka(mug.).
Uztaritze: supémúšker.

Nafarroa Beherea
Aldude: supayndil.
Arboti-Zohota: kyjškandela(mug.).
Armendaritze: suyáñdojla(mug.), šúyeandójl, suyáñdela(mug.), suyéandójl.
Arnegi: supébandil.
Arruta-Sarrikota-Amikuze: kyfýándela.
Baigorri: supéajngil.
Behorlegi: suyé'ngil.
Bidarrai: supémággil.
Ezterenzubi: suyággil, su'ájngila(mug.).
Gamarte: suángila.
Garruze: kýjškandil.
Irisarri: šúycangila.
Isturitze: supéangil.
Jutsi: šuškandil.
Landbarre: šuškandil.
Larzabale-Arroze-Zibitze: šuškandila.
Uharte-Garazi: **šuyaggil*.

Zuberoa
Altzal-Altzabeheti-Zunharreta: šýškandéa.
Altzürükil: šýškandé.
Barkoxe: šýškandéa.
Domintxine-Berrueta: kufškandil.
Eskula: šýškandera(mug.), šýškandéa(mug.).
Larrañe: šýškandéa.
Muntori: šýškandéa.
Phagola: šýškandéa.
Santa-Crazi: šýškandéla.

Sohüta: suškandéa.
Urdiharbe: šýškandéa.
Ürrüxtol-Larrabile: šýškandéa.


Mapan sartzen ez diren erantzunak:



6. Mapa: lagartija de turbera / lézard gris / lizard / (*Lacerta vivipara*)

GALDERA: 04060; ALG: 41; ALEANR: IV, 44; ALE: 132

L I H A



II.1.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

Onomastika batzordeak hamabi bilera egin ditu urtean zehar.

Udal eta herrien izenak

Ondoren adierazten diren udalen eta administrazio-batzar/kontzejuen herri-izenak euskaraz ofizialtzeko egindako eskaerak jaso dira, eta Onomastika batzordean behar den dokumentazioa bildu, gaiak aztertu eta eztabaidatu ondoren, kasuan kasuko erabakiak hartu dira. Ezkerreko aldean ematen den izena da une honetan udalek edota kontzejuek dutena, eta eskuintekoan adierazten da zein den batzordeak hobetsitako ordaina:

Udal-izenei buruzko irizpenak

- *Bidegoyan*-go Udal Batzarrak udalaren izena *Bidegoian* erara ofizialtzeko egindako eskaera aztertu da. Batzordeak aurreko irizpenari, -hots, herriaren euskal izena *Bidania-Goiatz dela*- erabaki du.
- *Burlada* herri-izena euskaratzeko egindako eskaerari erantzunez, aurreko erabakiak eta testigantzak aztertuta, batzordeak *Burlata* izena berresten du.
- *El Burgo*: *Burgelu*
- *Maruri*: *Maruri-Jatabe*
- *Renteria*: *Errenteria* izena berretsi da.
- *Kuartango* udal-izena dela eta egindako errekurtsuari erantzun zaio.
- *Villabona* izenari buruzko irizpena eman da.
- *Zornotza / Amorebieta-Etxano* izena erabaki da.

Arabako kontzeju-izenak

Euskal izenak ofizialtzeko, jaso diren irizpen-eskabide hauei erantzun zaie:

- *Abornicano*: *Abornikano*
- *Abecia*: *Abezia*
- *Acosta*: *Akosta* berretsi da.
- *Amezaga*: *Ametzaga*
- *Aperregui*: *Aperregi*
- *Apreguindana*: *Apregindana*
- *Arlucea*: *Arluzea*
- *Arroyabe*: *Arroiabe*
- *Ascarza*: *Askartza*
- *Aspuru*: *Axpuru*
- *Audicana*: *Audikana*
- *Barambio*: *Baranbio*
- *Belaunza*: *Belauntza*
- *Berroci*: *Berrozi*
- *Castillo*: *Gaztelu / Castillo*

- *Cestafe: Zestafe*
 - *Chinchetru: Txintxetru*
 - *Crispiana: Krispiñana / Crispiñana*
 - *Délica: Delika*
 - *Echábarri-Urtupiña: Etxabarri-Urtupiña*
 - *Echagüen de Cigoitia: Etxaguen (Zigoitia)*
 - *Elgea: Elgea*
 - *Esquibel: Eskibel*
 - *Eguilaz: Egiraz*
 - *Gardélegui: Gardelegi*
 - *Gujuli-Ondona: Goiuri-Ondona*
 - *Izarza: Izartza*
 - *Hueto de Abajo: Oto Barren*
 - *Hueto de Arriba: Oto Goien*
 - *Larrazcueta: Larrazkueta*
 - *Larrimbe: Larrinbe*
 - *Lecamaña: Lekamaña*
 - *Mezquía: Mezquia*
 - *Miñano Menor: Miñao Barren / Miñano Menor*
 - *Narvaja: Narbaxa*
 - *Ordoñana: Erdoñana / Ordoñana*
 - *Ocáriz: Okariz*
 - *Oyardo: Oiardo*
 - *Saracho: Saratxo*
 - *Subijana de Alava: Subillana edo Subilla*
 - *Ullibarri-Jauregui: Uribarri-Jauregi*
 - *Ullibarri de los Olleros: Uribarri Nagusi / Ullibarri de los Olleros*
 - *Ullivarri-Viña: Uribarri Dibina / Ullivarri-Viña*
 - *Uzkiano: Uzkiano*
 - *Virgala Mayor: Birgara Goien / Virgala Mayor*
 - *Zuazo: Zuhatzu*
 - *Zuazo de San Millan: Zuhatzu Donemiliaga*
 - *Zumelzu: Zumeltzu*
- *Navarrete*-ko kontzejuaren izena euskaratzeko egindako eskaera aztertu du batzordeak, eta xehetasun urritasunez, ikerketa sakonagoa egitea erabaki du, bereziki Nafarroako dokumentuetan.

Erakunde eta elkarte desberdinen kontsultak

- Bizkaiko Foru Administrazioak eskatuta, *La Herradura / Orueta* eta *Ibarsusi* izenei buruzko ebazpenak egin eta igorri dira. Erakunde beretik, *Arrontegi* leku- eta zubi-izenari buruzko ebazpena egin eta igorri da: gaztelarazko grafian *Róntegui* dena euskarazkoan *Arrontegi* dela. Bizkaiko Foru Administrazioaren beste eskaera haue ere erantzun zaie batzorde honetatik:
 - * *Kastrexanagana* eta *Zorrogoiti*-ko errepide berriko seinaleez.
 - * Bilboko Deustuko *Euskalduna* zubiko seinaleez.
 - * Beste eskari solte ugari.
- *Metro Bilbao*: Barakaldoko Udalak lurpeko geltokiez hartutako erabakiari buruzko ebazpena eskatu zion Metro Bilbao-k batzordeari, eta honek aztertu eta gero eman propioki, hauei buruzko irizpena eman zuen batzordeak: *Gurutzeta / Cruces*, *Barakaldo*, *Bagatza* -ez *Santa Teresa*- eta *Urbina* lurpeko geltoki-izenak direla egokiak.

- Zornotza / Amorebieta-Etxanoko Udalak *Sarasua / Saratsu* auzoaren idazkera egokiaz egindako eskaera aztertu da. Batzordeak egungo ahoskera eta idatzizko izen tradizionala ikusita *Saratsu* hobetsi du.
- Eusko Jaurlaritzako HAEE / IVAP Zerbitzuak eskatuta, Gasteizko kale-izen batzuen zalantzazko izenak aztertu eta hobetsi dira.
- Bilboko Udaleko Euskara Zerbitzuak bi leku-izen hauetaz egindako galderak aztertu eta erantzun ditu Batzordeak: *Errondoko* eta *Gorostitzagatorre*.
- *Barakaldoko kale-izendegia*: berregin eta osatu egin da eta igorri, Gasteizkoarekin egin zen bezala. Izendegi honetan Barakaldoko barruti, auzo, auzune eta kaleen izenak eskaintzen dira, gaur egun galdua dauden zenbait izen historiko batzuez gain; guztira 378 izen aztertu dira.
- Leioako auzoen izenak ofizialdu dira. Hori dela eta, Onomastika batzorde-idazkariak Leioako Hirigintza Batzordean parte hartu du.
- Hondarribiko Udalaren eskaera: *Errebellin* eta *Zezenplaza* kale-izenak onartu dira.
- *San Pedro de Gorostiza* auzoaren izena euskaratzeko egindako eskaera aztertu du batzordeak eta hau erabaki du: *San Pedro Gorostitza* izen bakarra, edo nahi izanez gero forma bikoitz hau: *San Pedro de Gorostitza / Done Petri Gorostitza*.
- AEK-k Bizkaiko eskualde-izenez egindako galdera aztertu da, eta erantzuna bidali zaio: *Enkartazioak*, *Hego Uribe*, *Ezkerraldea* eta *Somorrostro Harana* izenak hobetsi dira.
- Bilboko Zazpi Kaleetako merkatarien elkartearen eskariz, *Ibaiondo* udal-distritoaren izena onartu da.
- Labayru Ikastegitik Andra Mari batzuen itzulpenaz informazioa eskatu zaio batzordeari. Batzordeak gaia aztertzea erabaki du erantzuna eman aurretik.
- Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkarietan Beruetetik egindako kontsulta honi erantzun zaio, nola itzuli zigiluetarako *Parroquia de la Natividad de Nuestra Señora*. Batzordeak, *Andra Mariaren Jaiotzaren parrokia* ebatzi du.
- Nafarroako Gobernuko Toponimia batzordeak "Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak" izeneko txostena aurkeztu dio Onomastika batzordeari, zuzenketa edota iradokizunak egiteko. Batzordeak, zenbait zuzenketa egin ondoren, onespena eman dio txosten horri, eta euskaltzain osoen batzarrari kontu eman.
- Urizaharra eta Arabako Errioxa arteko *Sierra de Cantabria*, orain horrela ofizialduta dagoen mendikatearen izena, *Toloño* dela berretsi du batzordeak, J. A. Gonzalez de Salazar aholkulariak egindako txostena aztertu eta gero.
- Bergarako Udalak bertako toponimiaren azterketa-lana Euskaltzaindiaren Onomasticon Vasconiae bilduman argitaratzeko asmoa adierazi du. Onomastika batzordeak, lehenik batzordeak lan hori ontzat eman behar duela erantzutea erabaki da.

Kontsulta solteak

Kontsulta solte askori eman zaie erantzuna. Aipagarrienak hauek dira:

- *Navascués* herri-izena eta deituraren euskal ordainaren arteko desberdintasunak argitu dira.
- *Manzano*, *Herrero*, *Correa* eta *Vicente* erdal deiturek ez dutela euskal ordainik, alegia ez direla itzultzekoak, erabaki da. Deituren itzulpenak egiteko eskaera ez du ontzat eman batzordeak.

- *Olazti* eta *Izedia* ponte-izenez egindako kontsultari erantzunez, batzordeak lehenengoari buruz *Mariolazti* edo *Andreolazti* izenak hobetsi ditu, eta bigarrenari dagokionean *Marizedi*, *Andreizedi* eta *Izedia* berretsi ditu, sexu nahasketa dela eta batzordeak onartutako irizpideei so eginez.
- *Cayetana* erdal izena euskaraz nola adierazi behar den jasotako galderari hau erantzun dio batzordeak. Arauetan *Cayetano*-rentzat *Gaitan* dagoenez, *Gaitana* dela forma zuzena adierazi da, eta ez *Kaitana*.
- *Anttoni* izena ofizialtzeko eskaerari ezezkoa eman zaio, hipokoristikoa delako.
- *Iranzu* dela izen honen euskal grafia zuzena eta ez *Iranzu* -prentsan adierazi den bezala- adierazi du batzordeak.
- *Santiago*-ren euskal kideztzat *Jako* har daitekeen egindako galderari ezezkoa eman dio batzordeak, euskal ordain egokia *Jakue* dela adieraziz.
- *Modesto* erdal izena euskaraz *Xume* izan daitekeen galdera jaso da. Batzordeak ezezkoa eman dio, horrelako itzulpenak ez direla bidezkoak argituz.

III. Exonomastika

Gai honen esparruko zerrendak aztertu edota onartu ditu batzordeak:

- "Santutegiko izen ohikoenak" finkatzeko batzordeak erabili dituen *irizpideen txostena* onartu da, osoen batzarrean aurkezteko.
- "Mundu zabaleko uharte nagusiak" izeneko araugaia eztabaidatu eta onartu du batzordeak, eta Euskara Batuko batzordeari bidali. Ondoren, Euskaltzaindiak erabakitakoaren arabera zuzenketak egin dira zerrenda horretan, gero argitaratu ahal izateko. Guztira, 180 izen onartu dira.
- Latin jatorriko izenak eztabaidatu dira batzordean. Xabier Kintanak irizpideez txosten bat aurkeztu du eta Iñigo Ruiz Arzallusek, batzordeak eskatuta, proposamena burutu.
- "Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaratzeko irizpideei buruzko erabaki-proposamena" izeneko txostena batzordean onartu ondoren Euskara Batuko batzordeari aurkeztu eta azaldu zaio, batzorde honek, gero euskaltzainei aurkeztu dielarik.
- "Mundu zabaleko historia-izen nagusiak". Batzordea historia-hiztegitxo prestatzen hasi da, batzordean *G*-rainoko historia-izenen zerrenda aztertu eta onartu delarik.
- Santu izenetatik sortutako pertsona-izenen zerrenda prestatu eta eztabaidarako banatu da.
- Batzordekide batek *Orotariko Euskal Hiztegi*-tik ateratako latinezko izenen zerrenda aurkeztu du.
- "*Done*, *San*, *Santu* etab. noiz eta nola erabili behar diren" izeneko txostena aurkeztu da. Batzordeak, ondoren "*Santu*, *san*, *done* eta ingurukoak" izeneko txostena gauzatu eta onartu du, lehenik Euskara Batuko batzordean aurkezteko eta ondoren euskaltzain osoen batzarrean.
- "Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak" izeneko izen-zerrenda gauzatu da, lehenago onartutako "Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia" izeneko txostenaren ildo beretik.

Txostenak

Zenbait batzordekidek txosten hauek prestatu eta aurkeztu dituzte bileretan:

- "Santutegiko izenak erabiltzeko proposamena" deritzona, "Santutegiko izen ohikoenak" araugaiaren sarreran txertatzeko.
- "Santu eta pertsonaia historikoen ponte izendegiari gehigarriak" deritzon txostena.
- "Euskaraz femeninoak egiteko izan diren bideez" eta "Pertsona izenen sexu bereizketako bidea" deritzen txostenak eztabaidatu dira batzordean, zenbait ponte-izenen erabilera argitzeko.
- Udalaren eskariz, *Basauriko Toponimia* lana aztertu du Patxi Salaberri batzordekidea. Onartzeko moduan jartzeko aldaketa zenbait proposatu ditu eta batzordeak onartu.
- "Euskal Herriko Andre Marien izenen zerrenda" banatu da eta *R-raino* aztertu du batzordeak.
- *Urretxu eta Zumarragako toponimia*: agindutako batzordekideak aztertu du lan hori eta ondoren ontzat eman da. Liburu hori Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* bilduman argitaratzeko asmoa dute udal horiek.

Izendapena

Iruñeko Udalaren eskariz, bertako Toponimia batzordeko partaide izateko, Patxi Salaberri batzordekidea izendatu da.

II.1.5. LITERATURA BATZORDEA

II.1.5.1. HERRI LITERATURA AZPIBATZORDEA

Herri Literatura azpibatzerdeak 10 bilera egin ditu 1997an.

IV. Herri Literatura Jardunaldietako agiriak

Durangon, 1996ko abenduaren 6an eta 7an egin ziren Jardunaldietan irakurritako hitzaldi eta txosten hauek argitaratzeko prest utzi dira:

- "Ongi etorria": Pilar Ardanza
- "Euskal atsotitz-bildumak": Xabier Kaltzakorta
- "Sobre la paremiología española": Julia Sevilla
- "Ohiturak eta folklorea euskal atsotitzetan": Gotzon Garate
- "Gnomica Biscaiensis. Refranes y sentencias de 1596": Alfonso Irigoien
- "La fraseología comparada y su paremiología": Károly Morvay
- "Jakes Belakoaren atsotitzak eta horien iruzkinak": Txomin Peillen
- "*Refranes y sentencias*: zenbait baliabide mnemotekniko": Juan Mari Lekuona
- "Esaera zaharren azterketa soziologiaren ikuspegitik": Patxi Juaristi
- "Los refranes en la literatura": Louis Combet
- "Esaerak etnografia ikuspuntutik": Juan Manuel Etxebarria
- "Tradizioa, idazlearen kale kantoitik": Angel Lertxundi
- "IV. Herri Literatura Jardunaldiak: ondorioak": Herri Literatura azpibatzerdea.

Jardunaldi horietako hitzaldi eta txostenak 1997an argitaratu dira *Euskera*-n, Euskaltzaindiaren agerkari ofizialean (*Euskera*, 1996,3, 607-874. orr.). Hori guztia separata batean ere jaso eta argitaratu da, *Bilbao Bizkaia Kutxa*-ren laguntzaz.

Herri-literaturaren inguruko ekintzak

Epaimahaikoak

Bertso jarrien sariketa hauetako epaimahaietan hartu dute parte azpibatzerde honetako kideek:

- Zarauzko "Basarri" sarian Juan Mari Lekuonak eta Jose Mari Aranaldek.
- Orixeko "Orixeko" sarian Jose Mari Aranaldek.
- Añorgan bertsolari gazteentzat antolatutako "Orixeko" sarian Juan Mari Lekuona eta Antonio Zavala epaimahaiko izan dira eta Jose Mari Aranalde gidari.
- Zarauzko "Lizardi" sarian Pello Esnal izan da epaimahaiko eta gidari.

Ildo beretik, 1998an Pedro Mari Otañoren omenez egingo den aste kulturala eta bertso-jaialdia antolatzen eta egituratzen jardun dute Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi eta Pello Esnal batzordekideek.

Hizlariak

- Compostelako Santiagon egindako nazioarteko jardunaldietan, "La fraseología en los diccionarios eúskaros" izeneko hitzaldia egin du Xabier Kaltzakortak.
- Azore uharteetan herri-kulturaz egindako jardunaldietan "El imaginario animal vasco" izeneko hitzaldia eman du Xabier Kaltzakortak.

V. Herri Literatura Jardunaldiak prestatu

1998ko azaroan, Tolosan, Antonio Maria Labaienen jaiotzaren mendeurrenean, egingo diren Jardunaldi horien egitarauaren ildo nagusiak prestatu eta erabakita utzi ditu azpibatzerde honek 1997. urtearen amaierarako, bertan jorratuko diren gai nagusiak eta hizlariak zehaztuz.

Jardunaldiak egun eta erdikoak izango dira eta gaia herri-antzerkia.

Argitalpenak

Aurtengoa ere urte oparoa izan da herri-literaturarentzat. Batzordekide zenbaitek honako lanak prestatu edota argitaratu dituzte. Lehenik eta behin Antonio Zavala batzordekidearen lan garrantzitsu hau argitaratu da uztailen: *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* liburu bikain bezain joria. Horretaz gain, beste hauek argitaratu dira Antonio Zavalaren gidaritzapean: Biktoriano Iraolaren *Au poza senti det eta beste bertso asko*, Inozentzio Olearen *Bizitza izbide*, Lino Ayestaren *Ikusiak eta entzunak*, Joxe Ramon Zubimendi batzordekidearen *Bidezkoak*, Sebastian Salaberriren *Sagardotegiak*, Manuel Lasarteren *Kantuaren ordaiñez*, Antonio Zavalaren *Oiñez eta jakinmiñez*, Jose Azpirozen *Alkarrentzat jaiok*, Kaxiano Ibaregurenen *Kantari naiz bizi* eta Basilio Pujanaren *Oiuak*.

Bestalde, Joxe Ramon Zubimendik eta Pello Esnalek *Irakurbideak* liburua plazaratu dute ekainean, irakurgai klasikoak eta herri-literaturakoak argi eta garbi euskara batuan eskainiz.

Azkenik, Juan Mari Lekuona batzordeburuak "Euskal balada tradiziozkoen estiloaz" dihardu Euskaltzaindiaren Iker-10 liburuan, Federiko Krutwig euskaltzainaren omenez egindakoan.

II.1.5.2. LITERATURA IKERKETA AZPIBATZORDEA

Literatura Ikerketa azpibatzeak urtean zehar hamar bilera egin ditu. Euskal literaturaren alorrean oso gutxi landua dagoen gai hau aztertzen eta burutzen ari da azpibatzeak: Euskal Literatura Hiztegia. Hiztegi horrek, hitz-zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango dituzten maila eta neurri desberdineko txostenak eskainiko ditu: txosten luzeak, ertainak eta laburrak. Hiztegiak, guztira, berrogei artikuluz luze, ehun artikuluz ertain eta seihun artikuluz labur izango du.

Literatura hiztegiako txostenak idatzi eta eztabaidatu

Batzordeak urtean zehar txosten hauek prestatu eta eztabaidatu ditu. (Marka hau -(*)-duten txostenak egileek berridatzi egin dituzte eta batzordeak berraztertu):

Txosten luzeak

Bataz beste 7-8 orrialdekoak izaten dira hauek:

- Errealismoa
- Kantu, kanta, kantore (*)

Txosten ertainak

Bataz beste 2-3 orrialdekoak izaten dira hauek:

- | | |
|-----------------------|-------------------|
| - Egitura-figurak | - Klasikoa |
| - Errepikapen-figurak | - Metafora |
| - Hamalaukoa | - Naturalismoa |
| - Idealismoa | - Oina |
| - Ilustrazioa | - Pizkunde-garaia |
| - Inpresionismoa | - Satira |
| - Ironia | - Sinboloa |
| - Kostunbrismoa | - Tragedia |

Txosten laburrak

Bataz beste, normalean, orrialde batekoak izaten dira:

- | | |
|---------------------------|----------------------------|
| - Anakoluto (*) | - Funtzio fatikoa |
| - Anastrofe (*) | - Funtzio konatiboa |
| - Antitesia | - Funtzio metalinguistikoa |
| - Calambour | - Funtzio poetikoa |
| - Drama liturgikoa | - Haikua |
| - Ekibokoa | - Happening |
| - Epifora | - Hiperbaton |
| - Erreduantzia | - Hizkera |
| - Funtzio adierazkorra | - Homoteleton |
| - Funtzio erreferentziala | - Idazkera |

- Idilioa
- Inaute
- Ikuskizun
- Ikusle
- Inbertsioa
- Irudikatu
- Iruditeria
- Irri mingarria
- Itzal antzerkia
- Jostirudia
- Katarsia
- Kiasmoa
- Klimax
- Libreto
- Lira
- Maskara
- Mimo
- Misterio
- Opera
- Opereta
- Oximoron
- Pantomima
- Parada
- Paradoxa
- Parafrasia
- Paralelismoa
- Paronomasia
- Pleonasmoa
- Polisindeton
- Sainete
- Satanak
- Sataneria
- Sketch
- Sujeta
- Tragikomedia
- Turkak
- Txotxongiloa
- Vaudeville
- Zarzuela
- Zintzarrotsak
- Zirkoa.

Antoine d'Abbadie-ren mendeurreneko Biltzarra

1997ko irailaren 24tik 27ra, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak antolatuta egin den Biltzarrean hitzaldi edota txosten hauek irakurri dituzte Literatura Ikerketa azpibatzerde honetako kideek:

- "Bidaia-ikuspenak A. Abbadiaren 1835eko karnetean": Aurelia Arkotxa
- "Pello Mari Otaño Lore Jokoetako poeta bat Hegoaldean": Juan Mari Lekuona
- "Lore Jokoak Hegoaldean": Ana Toledo
- "Euskal nortasunaren irudiak XIX. mendeko bigarren partean": Jon Casenave
- "Galesko Lore Jokoak": Jon Kortazar
- "Lore Jokoetako saridunen ideologia": Jean Haritschelhar
- " 'Zazpiak bat' gaia XIX. mendean": Xabier Altzibar.

II.1.6. BATZORDE SUNTSIKORRAK

II.1.6.1. EUSKARA BATUKO BATZORDEA

Euskararen batasunerako bidean, gai jakin bat hizkuntz arau bihurtu behar denean Euskaltzaindiak kasuan kasuko erabakia hartzen du. Azken proposamena euskaltzain osoen batzarrari aurkezten diona Euskara Batuko batzordea da, nahiz eta gaien azterketa eta oinarrizko proposamenak dagokion batzordetik prestatuak datozen.

Euskara Batuko batzordeak, hala derizkion kasuetan, ohargileei eta iritzi-emaileei kontsulta egiten die. Pertsona horiek, gehienak, Euskaltzaindiaz kanpokoak dira, euskalgintzako alor desberdinetan lanean ari diren profesionalak: administrazioetako funtzionarioak, argitaletxeetako eta komunikabideetako euskara-zuzentzaileak, irakaskuntza-munduko teknikoak, itzultzaileak eta idazleak.

Euskara Batuko batzordeak 1997an zehar hamabost bilera egin ditu, bilera horietako gehienak egun osokoak izan direlarik.

Araugai berriak

Dagokion batzordetik (aurten Hiztegi Batukotik, Onomastikatik eta Gramatikatik) zetozen txosten eta hitz-zerrenda hauek aztertu eta eztabaidatu ditu batzordeak hilez hil. Ondoren, euskaltzain osoen hileroko batzarrean aurkeztu dira hitz-zerrendak eta txostenak, oharrak egiteko epea jarri delarik. Euskaltzain osoek egindako oharrak ere aztertu ditu batzorde honek eta bere iritzia ere eman du erabakia hartu behar zen hurrengo osoen batzarrean, I.2. atalean esan bezala. Hitz-zerrenda eta txosten hauek izan ditu batzorde honek eztabaidagai:

Hiztegi Batua

1. *erretreta* - *esplotazio*

- a) *erretreta* - *esplotazio*-ren eztabaida amaitu
- b) Oharrak: *erreus*, azpisarrera: *akatasuna*; *espiritu*, azpisarrera: *Espiritu Santu*.

2. *esponja* - *expres*

- a) *esponja* - *expres*-en eztabaida
- b) Oharrak: *esponja*; *esposatu*; *espres*; *espresuki*, *espreski*; *etsamina*, *etsaminatu*; *etzi-nalde*, *mendebalde*; *etxabere*; *eukalitu*; *eurrez*; *eusko*, *euskotar*; *exkax*.

3. *ez* - *fotografo*

- a) *ez* - *fotografo*-ren eztabaida
- b) Oharrak: *ez*; *ezagun*; *ezagutza*; *ezdeus*; *eze*; *ezen*; *ezeuki*, *ezeduki*; *ezin*; *ezkonarazi*, *ezkontarazi*; *ezkontsari*; *ezpata(-)arrain*, *ezpata(-)dantza...*; *faborez*; *faksimile*; *film(e)*; *filmoteka*, *zinemateka*; *finki*; *fite*; *fluor*; *foral*; *forja*, *forjari*; *fortunatu*; *Foru Aldundia*, *Foru Diputazioa*.

4. fotokonposaketa - gainalde

- a) *fotokonposaketa* - *gainalde*-ren eztabaida
b) Oharrak: *flanela; fondo, funts; fotokonposizio, fotokonposatze, fotokonposaketa; fotokopia, fotokopiagailu; fotosintesi; frankezia; franko; frantziman; freno, galga; fresa, fresatu; fruta, fruitu; fuera; fuselaje, fuselaia; furgoneta; futbol-zelai; gabon; Gabonak, Eguberriak.*

5. gainazal - garaño

- a) *gainazal* - *garaño*-ren eztabaida
b) Oharrak: *gain dizka, gainezka; gainera; gainerateko; gaineztu; gainordoki; gaizpide, gaitz bide; gaitzigarri; gaitzitu; gaixo; gaixotegi; gakatu, gakotu; gako; galapan; galdegin; galdekizun; sabai; ganbara, ganbera; ganbara, kamara ganderailu; ganga; gantzatu; gar; gara-; gara; garaño, garaino; garaje.*

6. garandu - gogoangarri

- a) *garandu* - *gogoangarri*-ren eztabaida
b) Oharrak: *g; garau; garbigailu; garbitasun; gardu; gartzela; gartak; gaskoiera; gatzandel; gatzitu; gau; gaztigatu; gaztigu; general; gereta; gerizpe; gerok; gerrauntzi, gerraontzi; gestio; geureganatu; gibelatu; gibo; gimnastika; ginarra; giputz, gipuzkoar; gizon; gizakoi; goait; gobernail; gobernutiar.*

7. gogobete - hautsarazi

- a) *gogobete* - *hautsarazi*-ren eztabaida
b) Oharrak: *gogaindu; gogoetatu; gogoeta egon; gogorarazi; gogaindu, gohaindu; gogoramen, gogorapen; gogordura; goiburu; goizalde; goizarrats; goizerra; goizizar; goizkara; goizartu; gol; golardo; golf; golo; gona-motz; gonazpiko; gonbidapen; gontz; gora; gorraldi; gorribeltz; gorridura; gorriño; gorritzta; gorta, korta; gotortasun; gotzain; gotzainburu; gotzaindegi; gotzaindu; gotzaingo; gozatu; gozodun; goxoki; granito; greko, greziar, greziera; gris; guda; gune; guraize; gusto, gustu; gutxi, gutti; hagitz; haina; hainbesteko; haizagailu; haizatu; haize errota, haize-errota; haize gorri; haize oihal, haize-oihal; haize orratz, haize-orratz; haize-zirimola; haize zurrunbilo, haize-zurrunbilo; haizu; handiuste, hantuste; handigai; hankabiko, hankabidun; hanka hezur, hanka-hezur; hanka zain, hanka-zain; haraindi eta honaindi; arma denda, arma-denda; harikor; harizti; harmen; harmora; haro; harpe; harpidetu; harpidetza; harrarte; harrezin; harrigin; harrigiltz; harritxintzar; hartze; harzuri; hastio; haurriderdi; haurrorde.*

8. hautsezin - iguzki

- a) *hautsezin* - *iguzki*-ren eztabaida
b) Oharrak: *hautu; hautuz, hautuzko; hauzu; hazaita; hazi; hazibide; haziera; hazleku; haztatu; hedamen; hegaldia; hegaldatu; hegalkin; hegatu; hegatzu; hegi; hein; helen; heredatu; heredero; herentzia; herio; heriosuhar; herri; hertsu; herskailu, hesgailu; heterogeneo; hezur; hilberri; hiletzi; hilgarriki; hiliki; hipotekatzaile; histu; hitzez-hitzezko(tasun); hizpa(tu), hizpaketa; hola; holatsu; homogeneo; hona hemen; hontz; horma; horra hor; horrenbestez; horretarako; hortaz; hotsandiko; hozkailu; hozpera; hutsal(du), hutsalgarri, hutsalkor; iaz, igaz; iaio; ibaiertz; iberiora; ibilge(tu); idazpen; idaztaldi; idazti; idoi; idorrean; iduri; ifrentzu; igali; igan; igarle; igeri; igerika; igongailu, igogailu, igortzaile; iguriki.*

9. *ihabali - irudi*

- a) *ihabali - irudi*-ren eztabaida
- b) Oharrak: *ihabald*; *ihardu-*, *jardu-*, (*jarduera*); *ihaurri*; *ihaute*, *inauteri*; *ihes-hodi*; *ihinztagailu* / *ihinztailu*; *ikareria*; *ikasmahai*; *ikasnahi*; *ikastun*; *ike*; *ikertze*; *ikuska*; *ikus-onetsi*, *ikus-onespen*; *ikuzi*; *ilaun*, *ilaundu*; *ilbeltz*; *ile-motots*; *ilenti*; *ilki*; *iloba*; *ilun*, *ilunetan*; *imilaun*; *imina*, *iminaka*; *iminerdi*; *immunizatu*, *immunizazio*; *inaurkin*; *inbertitzaile*; *inbertsio*; *inbertitu*; *inbidia*; *inda*; *indaba*; *independentzia*; *independiente*; *indigaztaina*; *induljentzia*; *indusmakina*; *industu*; *industrializazio*; *industrializatu*; *inesibo*; *infernuratu*; *ingeniari* / *injineru*, *ingeniaritza* / *injinerutza*; *inguruabar*; *ingurebaki*; *ingurugiro*; *inkesta*; *inperatibo*; *inperkadore*; *inporta izan*; *inprenta*; *inprimategi*; *integrista*; *intelektual*; *intseminazio*; *inurrutu*; *iod*; *ipurtikara*, *buztanikara*; *irabazpide*; *ira*; *iragazgaitz*; *iragazi*, *irazi*; *irakigarri*; *irakitu*; *irarke*, *irarkola*, *irarlan*, *irarle*, *irarri*; *iraungitasun*; *iratzarri*; *iri*; *irizpen*; *irrigai*; *irriño*; *irozo*; *irten*.

10. *irudialdatu - jorratzaile*

- a) *irudialdatu - jorratzaile*-ren eztabaida
- b) Oharrak: *irudipen*; *iruzkingilea*; *iruzkina egin*; *isatsdun*, *isatsgabe*; *itsas gaztaina*, *indigaztaina*; *isastu*; *iseki*; *isil*; *isilbidez*, *isilbildezko*; *isilgorde*, *isilgordea*; *isil-poltsa*; *isiotu*; *istapeka*; *isurkari*; *isurketa*; *itaxur*; *itsasikara*; *itsaslabar*; *itsaso-lehorreko*; *itsasontzi*; *itsulapiko*; *itxura*; *itxuroso*; *itzaingo*; *itzarrik*; *ixi*; *izakin*; *izan*; *izarniarazi*, *izarniatu*; *izen on*; *izozkidenda*; *izendun*; *izpiritu*, *espiritu*; *jabal*; *jabari*; *jabeldu*; *jagi*; *jakinarazpen*; *jakinzale*; *janaridenda*; *janaritegi*; *janiza*; *jantxakur*; *japoniar*; *jaraunsle*; *iharduera*, *jarduera*, *iharduketa*; *jargoi*; *jariakortasun*; *jariodun*; *jarraigo*; *jarraipen*; *jarraitasun*; *jasanbera*; *jaugin*; *jauki*; *jaundone*, *jondoni*; *jauntasun*; *jautsi*; *jazo*; *jeinu*, *jenio*; *jendekin*; *jentilizio*; *jesan*; *jesapen*; *jesulagun*; *joaki*; *jornal*.

11. *josi - koala*

- a) *josi - koala*-ren eztabaida
- b) Oharrak: *jubilazio*; *judizio*; *junta*; *jurisdikzio*; *jurisprudenzia*; *justifikatu*; *justu*; *juzgatu*; *kabiar*; *kabitu*; *kadena*; *kafetxe*; *kaina*; *kaixo*; *kakalarritu*; *kakazu*; *kale*, *karrika*; *kalte*; *kalifa*, *kalifaldi*, *kaliferri*; *kalostra*, *kalostrape*; *kalumnia*; *kaltzada*; *kanari(o)*; *kanbio*; *kandelario*; *kanon*; *kanonigo*; *kanonizatu*; *kanpatu*; *kanpo*; *kanpoe*, *kanpolarrosa*; *kantini*(t)sa; *kapelategi*, *kapela-denda*; *kapitalizatu*; *kapitalizazio*; *karaktere*; *karesa*, *karesatu*; *kargu*; *karkara*; *karmen*; *karnet*, *nortasun-agiri*; *karro*, *orga*; *kartakari*; *karteldegi*, *ikuskizunak*; *kartera*; *kasketa*; *kasketaldi*; *kastigatu*; *katagorri*; *kate*; *katalan*; *katamar*; *katetu*; *kaudimen*; *kausadun*, *kausatzaile*; *katibu*; *katonatu*; *kausera*; *kautan*; *kautela*; *kauzio*; *ker*, *ker* egin; *kereilat*; *kereilatzaile*; *kiebra*; *kilker*, *kilker*, *kilker*; *kilometra*; *kirofono*; *kirolzale*; *kisu*; *klabe*; *klar*, *klarki*, *klaru*; *klaustro*; *klausula*; *klonazio*; *koadro*.

Onomastika

1. "Santutegiko izen ohikoenak"

- a) "Santutegiko izen ohikoenak": eztabaida amaitu.
- b) Oharrak: *Bittor*; *Caietano*; *Filipo*; *Jakue*; *Jon*; *Juda*; *Jurgi*; *Karmel*, *Karmen*; *Kristobare* / *Cristobalena*; *Lukas*; *Mark(os)*; *Marina*; *Norbert(o)*; *Oneka*; *Paskoal* / *Bazkoare* / *Paskual*; *Petri* / *Pedro* / *Piarres*; *Rikardo*; *Santiago*; *Saturdi*; *Segismundo*; *Ursula*; *Virginia*; *Zakaria*; *Zelso*.

2. "Mundu zabaleko uharte nagusiak"
 - a) "Mundu zabaleko uharte nagusiak": eztabaida
 - b) Oharrak: *artxipelago, uhartedi; Faroetan; Formentera; Haizealdeko uharteak, Haizebeko uharteak; Novaia Zembla / Zembla Berria; Principe ala Printze uhartea; Suaren Lurraldeala ala Herrialdea; Estatuena Lurraldeala; Puerto Rico; Jamaika; Kanaria; Mallorca; Menorca.*
3. "Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabaki-proposamena" izeneko txostena, Onomastika batzordeak prestatu eta onartua. Euskara Batuko batzordeak aztertu du eta osoen batzarrera aurkeztu.
4. "Latin izen batzuk gure idazle klasikoek idatzita" izeneko eranskina aztertu du batzordeak, Onomastika batzorde-idazkariak prestatua.
5. "Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak" izeneko zerrenda, Onomastika batzordeak prestatu eta onartua. Euskara Batuko batzordeak aztertu du eta osoen batzarrera aurkeztu.

Txostenak

- "*-go atzizkia*"

Lanbidea eta multzoa adierazteko edo *-tasun* atzizkiaren pareko izan behar duen erabaki aurretik, gai horri buruzko txostena prestatu du batzordekide batek eta ontzat eman du Euskara Batuko batzordeak, eta euskaltzain osoen batzarrean aurkeztu.

- "*Aditz Laguntzaile Batua*"

Gramatika batzordetik jaso du batzorde honek Euskaltzaindiak 1973an onartutako aditz laguntzailearen berrargitalpen-testua, zenbait gehiketarekin.

Bestelakoak:

Hizkuntz kontsultak:

- Loiola Irratiak, orduak direla eta, egindako kontsulta aztertzean, Arauen karpetan Gramatika batzordeak ere adierazi duen errakuntza dagoela ikusi da: 184. orrialdean, c) puntuak 00:30, *gauerdiko* edo *gaueko hamabi eta erdietan* esan behar du, eta ez *gauerditan*. *Gauerditan*, 00:00 bakarrik izan daiteke. Orobat, orrialde bereko a) puntuak, denda zein ordutatik zein ordutara dagoen zabalik esatean, *Arratsaldeetan* beharko luke, pluralean, eta ez mugagabeen.
- Rudolf de Rijk ohorezko euskaltzainak eskaturik, aditz arazlearen araua aztertu dute batzordekideek. *Euskarari irauarazi diote* bezalako perpausak erabiltzen badira ere, batzordekideen iritziz, arau orokorra bere horretan utzi daiteke; hots, Euskaltzaindiak erabakia baitu objektu bizigabeekin aditz arazleak *du* laguntzailea hartu behar duela. Hala ere, aditz batzuekin bestelako joskerak oso hedatuak daudela zehazteak ez du inolako kalterik egiten eta ez doa arauaren kontra.

II.1.6.2. AHOSKERA AZPIBATZORDEKO LANTALDEA

Euskaltzaindiak, 1993an, 75. urteurreneko ekintzetarako sortu zuen batzorde hau, eta horrela, 1994ko maiatzean III. Ahoskera Jardunaldiak antolatu zituen, eta 1994ko urrian Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean parte hartu zuen. Ekintza horietan zehar, oso nabarmen geratu zen hizkuntzaren ahoskera-batasuna oraindik zer urrun dagoen, alor honetan zenbat ikerlan dagoen egiteko eta bestetik zer nolako interesa sortzen duen gai honek euskaldungoaren barnean, bereziki komunikabideen esparruan. Hori guztia kontuan harturik, Ahoskera batzordeari jarraipena eman beharra ikusi zuen Euskaltzaindiak. Aurrelanak prestatzeko, batzorde horri atxikitako lantaldea ere sortu da. Aldiro lantaldea biltzen da ikerketak eta proposamen zehatzak egiteko.

Prosodia aztertu

Ahoskera lantaldeak zazpi bilera egin ditu 1997an.

Lantaldeak 1996an eta 1997an zehar prosodiaz egindako azterketen ondoren, zirriborroa prestatu du urtearen bukaerarako. Urtean zehar egindako lana bi arlotan banatzen da: batetik, prosodiaren azterketa eta bestetik, ebakimena (*-il* nola ahoskatu, adibidez).

Praktikan begiratu beharreko hipotesien azterketa

Katean zehar -maila zainduan- egin beharreko bilakabideen gertagarritasun-hierarkia aztertu da: puntu bakoitza berrikusi eta osatu ondoren, adibidez eta kontradibidez hornitu da. Ondoren datozen puntuei dagozkienak berraztertu dira:

1. Hizkera zaindurako bakarrik arau direnak.
2. Hizkera zainduan gutxienez egin beharrekoak eta gainerako hizkera-mailetan gaizki ez daudenak.
3. Hizkera zaindurako direnak baina salbuespenak dituztenak eta eredu bat baino gehiago dutenak.
4. Salbuespenik ez dutenak.
5. Ia salbuespenik ez dutenak.

Prosodia lantzeko eta irakasteko saio praktikoak

Mintegiak egin dira, zirriborroan proposatzen direnak egingarriak direla ikusteko. Hots, nola irakatsi ikasleei erritmoa, prosodia egokia, hotsak ondo ahoskatzen... Horretarako saio praktikoak egin dira irakaskuntzan ari diren profesional batzuekin: irakasleak euskalduntzen ari direnekin (EAEko IRALEko irakasleekin eta Nafarroako Irakasleen Birtzikelai Ikastegiko -IBIko- irakasleekin).

Ahoskeraren estandartzea dela eta, Ahoskera lantaldeburua lantaldeko kide bakoitzarekin eta hauen lankideekin bildu da. Mintegi horietan, alde batetik Ahoskera lantaldeak burututako lana aurkeztu da, lankideen iritziak jaso dira eta elkarren artean eztabaidatu dira.

II.2. JAGON SAILA

Jagon sailak 1997an hamar bilera egin ditu.

Harreman sarea

1996ko urrian Tolosan egindako II. Jagon Jardunaldien ondoren, harreman iraunkorrak ezarri dira euskalgintzan dabilten erakunde nagusiekin, eta ohiko jokabideari jarraiki, galdeketa egin zaie hainbat erakunde eta elkarteri. Bi helburu izan ditu gonbiteak: batetik partaidetzarako eskaintza egin da eta bestetik euskararen erabileran sortzen diren zalantzak aurkezteko aukera eskaini.

Hauek dira gutuna eta galdeketa bidali zaizkienak:

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza, *Euskaldunon Egunkaria*, HABE, Elhuyar, UZEI, EITB, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Ikerketa Saila eta bertako Euskara Zerbitzua, AEK, IRALE, Euskal Herriko Ikastolen Elkarte, Euskal Kultur Erakundea, IKAS, Garapen Kontseilua, Donostiako Herri Irratia, Arrate Irratia, Segura Irratia, Bizkaia Irratia, Irulegi Irratia, Xuberoko Boza, Baionako Gure Irratia, *Herria* aldizkaria, *Xirrista*, Herrien Arteko Euskal Sindikata, Euskal Idazleen Elkarte, EIZIE, IKA, Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza eta Euskara Zerbitzua, Nafarroako Parlamentua, Xorroxin Irratia, Euskal Herria Irratia, EUDEL, UEMA, HAEE/IVAP, Labayru Ikastegia, *Ttipi-ttapa* aldizkaria, Deustuko Unibertsitatea (Donostia) eta Bilboko Euskara Zerbitzua, Bizkaia Jaureriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua.

I. Jagon Topaketak

Maiatzaren 16an, Bilboko egoitzan, arratsaldeko 16:00etan egin da Jagon saileko topaketa-bilera. Bileran, Jagon saileko zortzi kidez gain, euskalgintzan ari diren erakunde edota elkarte hauetako kideak izan dira:


Nafarroako Gobernuko Euskara Zerbitzua, EUDEL (Euskal Herriko Udalen Elkarte), HAEE/IVAP (Herri Administrazioarako Euskal Erakundea), Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusa, Deustuko Unibertsitateko Bilboko Euskara Zerbitzua, EITB (Euskal Irrati Telebista), *Euskaldunon Egunkaria*, AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea), EAEko IRALE (Irakasleen Alfabetatze Euskalduntzea), Elhuyar Kultur Elkarte, Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta *Herria* astekaria.

Euskalgintzan ari diren erakunde eta elkarteekin batera, hizkuntzarekiko sortzen diren zalantza eta eskariak nola bidera daitezkeen aztertzea izan da I. Jagon Topaketa hauen helburua. Horretarako, besteren artean, harreman hauek iraunkorrak izan daitezzen erakunde bakoitzak pertsona bat izendatzea dela egokiena ikusi da; bestetik, elkarren arteko lana bultzatzeko teknologia berriek eskain dezaketen laguntza aipatu da: Web orria, posta elektronikoa, kontsultetarako "kluba" eta antzerakoak. Bilduen artean eta Jagon sailarekin lankidetzan ari zeko gogoia badagoela ikusi da Topaketa hauetan.

II. Jagon Topaketak

Jagon sailak antolatuta egin dira, 1997ko azaroaren 21ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, II. Jagon Topaketak Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan.

Horrela, aurreko urtean hartutako konpromisua, hots, urtean behin horrelako bilera egitekoa bete nahi izan du Jagon sailak. Miren Azkarate Jagon sailburuak, hogeitau elkartek bidali dituzten galderei erantzunez, hamar orrialdeko txostena egin du eta bilduei banatu zaie, nahiz eta ez den oraindik osoa eta behin betikoa erantzun-txosten hori. Behin betiko txostena dago-kion *Euskera*-n argitaratuko da. Banatutako txosten horretan, jasotako zalantza eta galderetatik abiatuz, gai hauek jorratu dira: oinarritzko irizpideak, hitz elkartuen idazkera, letra larriak, lexikoa: eratorpena eta hitz elkarketa, terminologia, aditzaren ingurukoak, izen sintagmaren ingurukoak, juntagailuak, menderakuntza, nominalizazioa, toponimia eta onomastika, esapi-deak eta eskaera orokorrak.



Euskaltzaindiaren egoitzan, 1997-XI-21ean, II. Jagon Topaketak; ezkerretik eskuinera: Dionisio Amundarain, Xabier Mendiguren, Miren Azkarate.

Honako hauek izan dira II. Jagon Topaketa horietan:

Portugaleteko Udal Euskaltegia, HAEE/IVAP, IRALE (Donostia), AEK (Bilbo, Ortuella), Nafarroako Unibertsitate Publikoa, AEK-Kulturgintza (Bilbo), Ibaizabal Argitaletxea, Portugaleteko Udal Euskaltegia, Zornotzako Udal Euskaltegia, Durangoko Udal Euskaltegia, Santurtziko Udal Euskaltegia, Mungiako Udal Euskaltegia, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzua, Nafarroako Gobernu IBI (Irakasleen Birtziklai Ikastegia), Miluze Euskaltegia (Iruñea), Deustuko Unibertsitatea, *Euskaldunon Egunkaria*, Eusko Jaurlaritza, Pasaiako Udal Euskaltegia, Ibaizabal Argitaletxea, UZEI (Donostia), HABE (Donostia), Irusoin S. A. eta EIZIE.

Topaketa hauetan, goian aipatutako gaiez gain beste huez ere hitz egin da: *Euskaltzaindiaren Arauak* ezagutarazteaz, hizkuntza zenbateraino arautu behar den eta emandako arauak aplikatzerakoan gertatzen diren arazoez.

Kontsulta-erantzunak datu-basean jasotzeaz

– Jagon sailaren ustez, Euskaltzaindiak bere hizkuntz erabakiak *Euskera*-n eta *Euskaltzaindiaren Arauak* argitalpenean kaleratzeaz gain, eguneroko lanean sortzen diren zalantza eta arazoak konpontzeko lagun dezakeen beste bide bat ere ireki behar-

ko luke. Hots, Akademiak maila apalagoan ematen dituen erantzunak bildu eta horiek hiritarren eskueran jarri, ez bakarrik galdera edo kontsulta egin duenaren jakinean. Euskararen ikerketa eta arautze-bidean horrenbeste gai aztertzeke eta erabakitzeko dagoen une honetan, maila apalagoan emandako erantzun horiek biziki lagungarri gerta daitezke beste askorentzat; bestetik, kontuan hartzekoa da batzuetan galdera bera behin baino gehiagotan egiten zaiola Euskaltzaindiari eta erantzuna ere beste horrenbestetan, jakina.

- Hizkuntzaren egokitasunaz txostena prestatu du batzordekide batek, "Euskararen kalitatea: zuzentasuna eta egokitasuna" izeneko. Bertan, euskararen erabileran sumatzen diren akatsak eta hobetu beharrekoak aipatzen dira. Batzordeak aztertu egin du txosten hori.
- Joxe Ramon Zubimendi eta Xabier Mendiguren batzordekideek hitzaldia eman dute hizkuntzaren kalitateaz Gasteizko Landatxo Gizartegunean, bertako Udalak eskatuta. Orobat, lehenak Iruñean hitzaldia eman du, Nafar Ateneoaren babesean, euskara batuaren ajeez eta korajeez.
- Euskaltzaindiak, Iruñean 1997ko maiatzaren 8, 9 eta 10ean egindako "Europako Hizkuntzak eta Hizkuntz Legeen III. Sinposiuma"n parte hartzeko gonbitea jaso du. Akademiaren izenean Miren Azkarate Jagon sailburua eta Andres Urrutia sailkidea izan dira.
- Tolosan 1996ko urrian egin ziren II. Jagon Jardunaldietan irakurritako txostenak *Euskera*-n argitaratu dira, baina horiek separata batean ere kaleratu dira Gipuzkoako *Kutxa Fundazioa*-k emandako diru-laguntzari esker. Separata horiek II. Jagon Jardunaldietan eta 1997ko bi Topaketetan parte hartu dutenen artean banatu dira.
- Batzordeak, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak prestatutako "Hizkuntzaren Kalitatea. Kezka nagusiak eta proposamenak" deritzon txostena aztertu du eta oharrak egin.
- Euskararen kalitatea dela eta, EGA agiriaren inguruko informazioa eskatu zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Ikerketa Sailari.
- Unibertsitatean zenbait aztertzailek hauta-probetan erabiltzen dituen irizpideak direla eta, gai hori aztertu da, proposamen batzuk egin direlarik.

Euskaltzaindiaren corpusen erabileraz

- Euskaltzaindiak azken urteotan sortu dituen hizkuntz corpusak (*Orotariko Euskal Hiztegia* -OEH-, Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa -EBS-, Lexiko Erizpideen Finkapena -LEF adibidetegia-, Euskal Herriko Hizkuntz Atlas -EHHA-) ikertzaileen eskueran jarri ahal izateko proposamena prestatu du batzordeak. Lehenik, batzordeak sailkide bati eman dio txostena egiteko enkargua. Horrek "Euskaltzaindiaren Corpusaren jabetzaz gutunerako proposamena" izeneko txostena prestatu du eta batzordean aurkeztu. Zenbait zuzenketa eta gehitze egin ondoren, ontzat eman da. Txosten hori Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari aurkeztu dio Jagon sailburuak.
- Proposamen horrek, erabakiak hartu baino lehen aztertu eta argitu beharreko gai hauek jarri ditu mahai gainean: corpus horien jabegoa, corpus horiek Euskaltzaindiaren etxepan jartzea, corpus horien ustiaketa (etxe barneko eta kanpoko erabilerak), corpus horien informatika-arazoak eta informatika-baliabideak, zabaldunderako bide posibleak (CD-ROM, Web orria...) eta horren guztiaren diru-kostua.

- Ildo beretik, Euskaltzaindiaren informatika-plana esleitu zaion etxeko teknikoekin elkarrizketatu da batzordea, informatika-baliabideek corpusak ikertzaileen eskueran jartzeko orduan eskain dezaketen laguntzaz iritzia emateko.

Bestelakoak

- Euskararen Unibertsoa izeneko mugimendua eta hortik sortu den Euskalgintzako Gizarte Erakundeen Kontseiluarekiko harremanak eta Euskaltzaindiak hor parte hartzea aztertu da.
- Nafarroan sortu den irriti-baimenen auzia dela-eta, Nafarroan euskarazko irratia izateko aukera arriskuan ikusi denez, gai honetaz Euskaltzaindiak adierazpena egin dezala eskatu dio Jagon sailak Zuzendaritzari. Euskaltzaindiak 1997ko urriko osoen batzarrean adierazpena onartu du eta Nafarroako Gobernubururari helarazi.
- Euskal deituren grafia-aldaketan sortzen diren eragozpen eta luzamenduen aurrean, argitaratzeaz dagoen liburuak arazo horri eman diezazkiokeen irtenbideak aztertu dira.

III. Erakunde zerbitzuak

III. 1. Sarrera

III.2. Egoitza

III.3. Ordezkaritzak

III.3.1. Donostiakoa

III.3.2. Gasteizkoa

III.3.3. Iruñekoa

III.3.4. Baionakoa

III.4. Azkue Biblioteka

III.4.1. Azkue biblioteka zerbitzua

III.4.2. Azkue biblioteka batzordea

III.4.3. Azkue bibliotekako katalogazio zerbitzu atala

III.5. Argitalpenak

III.5.1. Edizio zerbitzua

III.5.2. Argitalpen batzordea

III.5.3. Argitalpenen banaketa zerbitzua

III.6. Ekonomia zerbitzua: 1997ko balantzea

III.7. Prentsa zerbitzua

III. 1. SARRERA

Euskal Herriko Hizkuntzaren Akademia denetik, Euskaltzaindiari dagokio, euskararen arautzea eta baita ere normaltzearen alor garrantzitsu bat. Horregatik hizkuntzaren gaurko egoerari lotuta dituen premia ugari aurre egin beharrean aurkitzen da. Une honetan Euskaltzaindiaren jardunak hiru alor hauek besarkatzen ditu: 1. Erakunde barnera begira, Zuzendaritza, batzordeak eta barne zerbitzuak; 2. Beste erakundeei zuzenduak: Gobernu, Diputazio, Udal, Unibertsitate, enpresa publiko, kultur elkarte, eta beste; 3. Zein-nahi hiritarri eskaintzen dizkionak.

Euskaltzaindiak bere egoitzan eta ordezkarietzan dituen baliabide mugatuekin horiei guztiei erantzun ahal izateko zenbait arazo ditu. Larriena, egungo baliabide informatikoak eskura ez izatea:

- Batzorde eta egitasmo guztien datu-base informatiko oparo bat, zeinek datu-base zentraletik, ordezkarietza, batzorde-egitasmo arduradun, lankide eta ikerle hitzartu orori berehalakoan zerbitzatzeko modua izango bailuke.
- Baliabide informatiko horiek, aspalditik Jagon sailak amesten duen hizkuntzaren kalitate edo euskara egokiaren kontsulta sarea gauzatu ahal izango lukete.
- Orobat, egunero eta etengabe, egoitza eta ordezkarietza guztietara idatziz, telefonoz edo bertara etorriaz, zein-nahi erakunde, elkarte eta gizabanakok galdetzen dizkiguten ehundaka argitasun, ziurtagiri eta irizpenei erantzun bateratua berehala emateko.
- Baliabidetze honetan ezin da ahanzi Azkue Bibliotekak, Internet sareak ematen dituen aukerekin, euskal herrialde guztietara eta munduko lau haizeetara, eskain dezakeen artxibo akademikoaren berehalako zerbitzua.

XXI. mendearen bezperetan hori du Euskaltzaindiak erronka nagusia eta horretarako 1997. urtean, enpresa aditu bati plangintza informatiko orokor bat agindu dio. Plangintza hau gauzatzeko urtean zehar zerbitzu eta batzorde guztiekin harremanetan jarri da enpresa hori. Datozen urteetan informatizazio hori guztia martxan jarri ahal izateko, herri aginte eta enpresen laguntza kudeatu beharko du Akademiak.

1997an Lege-ekonomi batzordeak, Zuzendaritza barne, Euskaltzaindiarentzako Fundazioa sortzeko lehen urratsak eman ditu. Beste Akademia eta antzeko erakunde asko baliatzen dira lege figura horretaz bere egitasmo eta eginkizun anitz gauzatu ahal izateko, diru baliabideak kudeatzeko ezinbesteko tresnatzat bihurtu baitira gaur egun fundazioak edozein gizarte garatutan.

III.2. EGOITZA

Erabilera

Bilboko Plaza Barrira 5240 pertsona etorri dira 1997. urtean. Euskaltzaindiaren zerbitzuez baliatzera hurbildu dira gehienbat. Ondoko zerrendan ageri denez, onomastikari buruzko galderen erantzunak eta Azkue Bibliotekaren erabilpena izan dira eman diren zerbitzu ugariak. Horrezaz gain aipatzekoa da eten gabe bisitari taldeak izan direla egoitza ikusten. Areto nagusia ere kultura erakunde eta elkarteei irekia egon da, bertan hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurreko zenbait egin direlarik.

Administrazioa	1172	lagun
Biblioteka	999	"
Sarrera	858	"
Egitasmoak	245	"
Bestelakoak	1966	"
Guztira	5240	"

Aretoaren erabilera

Areto nagusia ekintza askotarako erabili dela esan da. Horretarako prozedura finkatuta dago, bestalde, euskararen inguruko gaiekin zerikusia duten ekintzeei aukera emateko.

Aurten kanpoko erakunde edo elkarte hauek baliatu dute:

- Euskararen Unibertsoaren Jardunaldien aurkezpena, urtarrilean.
- Euskal Kulturaren Batzarrak, urtarrilean, helduen euskalduntzeaz SIADECO-k egingako ikerketaren aurkezpena.
- Euskal Kulturaren Batzarrak, otsailean, prentsaurrekoak haurren matrikulazioa dela eta.
- Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak, martxoan, Korrika-ren aurkezpena egin du.
- ERTOBA (Asociación Vasco-Georgiana) Elkarteak, Georgia eta Euskal Herriaren arteko harremanen berri emateko prentsaurrekoa, maiatzean.
- AEK-k eta ARGIA astekariak, ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko, elkarrekin egingako hitzarmenaren aurkezpena, irailean.
- Bilbo Zaharra Euskaltegiak, bere 25. urteurreneko ospakizun ekitaldia egin du aretoan, urrian, eta urtean zehar hitzaldi ugari antolatu ditu bertan.
- Euskal Idazleen Elkarteak, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko idazleek egingo dituzten Jardunaldien aurkezpena, urrian.

Zuzendaritzaren kokagunea

Gobernu batzorde denetik, batzorde eta egitasmoen arta izatea eta orobat, Erakundearen barne funtzionamenduaren agintea Zuzendaritzari dagokio. Zuzendaritzak ere egoitzan du bere kokagunea.

Gutxienez, hilean bi aldiz biltzen da eta bertatik idazkariordeak antolatzen du kudeaketa, dagokion kargudunarekin, hau da, euskaltzainburu, buruorde, idazkari eta diruzainarekin hitz egin ondoren, administrazio arazoak antzinatuz gaien arabera, eta eragileekin asteroko bileretan lana zuzenduz.

Batzordeen eta iker-lanen koordinazio zerbitzua

Eragile teknikariaren egiteko zuzena egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipena egitea da. Horrela, Euskaltzandiaren Zuzendaritza, zerbitzu orokor eta batzordeekiko harremanak hurbilagoak dira. Bestetik, egitasmo eta batzordeetan egiten diren lanen berri Euskaltzaindiko Zuzendaritzari ematen zaio aldiro-aldiro eta baita Herri Administrazioei ere.

Batzordeekiko harremanak

Hau da, nagusiki, alor honetan eragile teknikariak burututako lana:

- Euskara Batuko batzordearen bilera deiak egin ditu.
- Aldiro, batzordeen bileretara joan izan da.
- Batzordeetan irakurritako txostenak jaso ditu, horien berri Zuzendaritzari emanaz eta Argitalpen eragileari pasa argitaragai izan daitezkeenean.
- Batzordeen bilera-agiriak jaso ditu eta bileretako partaidetza-orriak aztertu edo prestatu eta ontzat eman ondoren, Diruzaintzara bideratu ditu, izan ditzaketen ondorioetarako.
- Egitasmo eta batzordeei, hurrengo urterako ekintza-plana eskatu die eta zuzenketa eta egokitze lanak egin ondoren, hori guztia Zuzendaritzari aurkeztu.
- Egitasmo eta batzorde akademikoei, egindako lanen errendapen txostenak eskatu dizkie, batzuei hiru hilabetetatik behin eta beste batzuei urtean behin. Jasotako informazioarekin txosten bateratu bat egin ondoren, horren guztiaren berri Zuzendaritzari eta sailburuei eman die.
- Egitasmo eta batzordeei *Oroitidazkia* egiteko txostena eskatu die. Jasotako informazioa aztertu eta argitalpen horretarako lehen testua prestatu du.
- Osoen hilero batzarretako hizkuntz gaiak prestatzeko, idazkariorde-kudeatzailearekin batera, Euskara Batuko batzordearekiko koordinazio-lana burutu du.

Herri Aginteen Batzorde Teknikoarekiko harremanak

Egitasmo eta batzordeen hurrengo urteko ekintza-plana, egindako lanen errendapen txostena aurkeztea eta behar den informazio osagarria ematea da, laburbilduz, alor honetan izandako zeregina. IV.1. atalean ematen dira gai honi buruzko azalpen xeheagoak.

Albiste Orria

Euskaltzaindiaren barneko informazio-boletina da aldizkari hau. Hilero egiten den aldizkari honetan Akademiak burutu edota burutuko dituen ekintza nagusiak, Zuzendaritzakoei, egitasmo eta batzordeetako buru eta idazkariei, gainontzeko euskaltzain osoei eta

Euskaltzaindiko langile guztiei helaraziz.

1997an zehar, 22.etik 30.era bitarteko zenbakiak kaleratu dira, biak barne, guztira 68 orrialde betez. Bertan, nagusiki, era honetako ekintzen berri eman da kasuan kasuko atalean: osoen batzarrean hartutako hizkuntz erabakiak, osoen hileroko batzarren egutegia, Zuzendaritzaren bilerak, egitasmo eta batzordeenak, Euskaltzaindiak erakunde edo elkarte desberdinekin izandako harremanak, ospakizun ekitaldiak, jardunaldiak, liburu aurkezpenak, sari-banaketak, izendapenak, epai-mahaikideen hautaketak, hitzarmenak, akordioak, bulegoen erabilerak, txosten eta adierazpen garrantzitsuenak, eta abar. Boletin hau eragile teknikariak prestatzen du, eta idazkariordeak zuzendu eta osotu ondoren banatzen da.

III.3. ORDEZKARITZAK

III.3.1. DONOSTIAKOA

Gipuzkoako ordezkariak bete ditu azken urteotan eskuarki bere gain eduki dituen eginkizunak. Bestalde, urtean zehar eman dira zenbait urrats gestio gintzan, eta xehetasun berriak ere jaso dira. Jarraian azaltzen dira aipagarrienak.

Erakundearen azpiegitura

Herrialde honetan eta gehienbat Donostian egin dituzte beren bilerak, premien arabera, Zuzendaritzari, ikerketa batzordeei eta lan azpibatzaordeei, bertako bulego-idazkariak arduratu direlarik azpiegitura ematen. Zein eta noiz bildu diren adierazteko, hona kalendera:

Urtarrila

Hizkuntz Atlasa, Zuzendaritza-Sailburu-batzordeburuak, Jagon Saila, Literatura Ikerketa, Herri Literatura, Euskara Batua.

Otsaila

Literatura Ikerketa, Jagon Saila, Herri Literatura, Euskara Batua eta hileko osoko batzarra.

Martxoa

Literatura Ikerketa eta Jagon Saila Arantzazun, (Korrika-ren hasiera eta Aita Villasanteren omenaldia), Gramatika, Hizkuntz Atlasa, Euskara Batua eta Herri Literatura.

Apirila

Zuzendaritza, Jagon Saila, Literatura Ikerketa, Gramatika, Ahoskera, Hizkuntz Atlasa eta Herri Literatura.

Maiatza

Hizkuntz Atlasa, Euskara Batua, Literatura Ikerketa, Gramatika, Herri Literatura eta hileko osoko batzarra.

Ekaina

Zuzendaritza (Eusko Ikaskuntzarekin bilera, d'Abbadieren Kongresua antolatzeke), Herri Literatura (Laurgainen, Aian, Euskaltzaindiko domina bertakoei emanez), Literatura Ikerketa, Gramatika, Jagon Saila, Hizkuntz Atlasa eta Argitalpen batzordea.

Uztaila

Literatura Ikerketa, Euskara Batua, Gramatika eta hileko osoko batzarra.

Iraila

Hizkuntz Atlasa, Onomastika, Euskara Batua, Jagon Saila eta Herri Literatura.

Urria

Literatura Ikerketa, Gramatika, Hizkuntz Atlasa eta Herri Literatura.

Azaroa

Gramatika, Literatura Ikerketa, Zuzendaritza, Herri Literatura eta Euskara Batua.

Abendua

Gramatika, Ahoskera, Herri Literatura eta Jagon Saila.

Bestalde, Euskal Herriko Atlaseko ikerlarietarikoa bik, ordezkariak honetan dute beren lanlekua.

Ordezkaritza honetan antolatu dira Euskaltzaindiaren prentsaurrekoetarikoa bi: urtarrilaren 13an (1997ko egutegia, urteko planak eta ekintza nagusiak adierazteko), eta apirilaren 18an (Eusko Ikaskuntzarekin batera Miramar Jauregia, A. d'Abbadieren Kongresuko informazioa banatzeko).

Beste erakunde eta jendearekiko harremanak

Ohiko zabaltasunez eutsi die Gipuzkoako Diputazioak ordezkariak honekiko harremanei, urteen buruan emandako laguntzei jarraipena emanez: ordezkariaren lekua eta mantentzea, osokoen bilkurak Donostian egiten direnean eta Gramatika batzordearen bilera gehienetarako Jauregia eskainiz.

Udalak, Orotariko Euskal Hiztegiaren kokagunea izateko Esterlines kalean emandako lokalen arazoa ez da konpondu ahal izan. Odon Elorza alkatearekin, Ramon Etxezarreta eta Beatriz Otaegi zinegotziekin eta Iñaki Maiza, PARVISAKo kudeatzailearekin zenbait bilera izan dituzte ordezkariak eta idazkariorde-kudeatzaileak.

Euskal Herriko Unibertsitateari esker, Ategorrietako Villa Asunción etxean, Hizkuntz Atlaseko Gipuzkoako langileentzako lekua lortu da.

Jendearekiko harremanei dagokionez, *Euskal Deituren Izendegia* argitaratu bitartean, azken bi urteotako abiada bera izan da euskal izenen eta deituren kontsultetan eta agirietan. Eta ohartarazi behar da, baita ere, zenbait herritatik, kanpaina moduan, multzoka datozela horrelako eskabideak.

Barne-lanak

Azkartu egin dela esan behar ziurtagirien erritmoa 200 gehiago egin direnez; eta gutunerian ere, antzeko zerbait gertatu da.

Ziurtagiriak: 616 izan dira, ia denak deiturei buruzkoak. Beste urteetan bezala, kontsulta ugari egiten dira ordezkarietan, bai bertara etorritz, bai telefonoz.

Argitalpen zerbitzua bezeroei hurbiltzeko, salgai daude ordezkarietan Euskaltzaindiaren lanik eskatuenak, aldian-aldian ekartzen direlarik erakundearen argitalpen berriak.

Euskaltzaindiaren ordezkapena

Gipuzkoako ordezkariak Erakundearen izenean honako ekintzetan parte hartu du:

- Jose Antonio Ardanza: Lehendakariaren harrera, Miramar jauregian, abuztuaren 29an.
- *Korrika*: martxoaren 14an, Arantzazun hasiera eta Luis Villasanteren omenaldia.



Arantzazun, 1997-III-14an, Korrika-ren hasiera: Luis Villasante lekukoa eramaten.

- *Kilometroak 97*: Lezo-Pasaiako ikastolen alde, urriaren 5ean.
- *K. Mitxelenaren X. urteurrena*: urriaren 13an, Errenteriako Udaletxean.
- *UZEI*: 20. urteurrena, Miramar jauregian, urriaren 17an.
- *Elhuyar*: 25. urteurrena, Miramar jauregian, urriaren 31n.
- *Ikerkuntzako II. Euskadi Saria*: Miramar jauregian, abenduaren 17an.

III.3.2. GASTEIZKO ORDEZKARITZA

Hiru ardatz nagusitan egin da lana Gasteizko bulegoan: lehendabizi, Erakundearen zerbitzu orokorretako eginkizunetan eta atxekitako batzordeak funtzionamendurako behar dituzten baliabideez hornitzen; bigarrenik, foru eta udal administrazioetako sail desberdinei, zenbait elkarte eta hiritarri hurbileko harreman eta zerbitzuak ematen; hirugarrenik, Arabako ordezkariak Akademiaren errepresentazioa eraman du herrialdean izan diren gertakizun ofizial eta kulturazko ekintza garrantzitsuenetan. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeek eta Estatuko Administrazioak ordezkariak Gasteizen kokatuta dituztenez, batzuetan Euskaltzaindiaren eta hauen arteko harremanak ordezkarietatik bideratzen dira. Hona hemen, laburbilduz, 1997an egin diren eginkizun aipagarrien azalpena.

Akademi lanak

Batzorde eta zerbitzuak

- Argitalpen zerbitzua. Iaz argitaratutako *Aita Juan Mateo Zavalaren Sermoiak (I)*, Euskararen Lekukoak argitalpenaren jarraipena izango den II. liburukiaren prestateka lanetan aritu da ordezkariak bulego arduraduna, Aita Luis Villasanteren zuzendaritzapean.
- Jagon saila. Ordezkaritzara heldu diren salaketak eta kezak (hizkuntzaren erabilpen ez egokiagatik, errotuluak elebkarrez daudelarik edo hizkuntz akatsak dituztelako) jaso egin dira eta, behar izan denean, bideratu.
- Prentsa zerbitzua. Arabako ordezkariak bulego arduradunak lagundu ohi dio prentsako zerbitzuburuari honen zereginetan, aurtun Antoine d'Abbadie-ren mendeurrenkari izan den XI. Biltzarrean.
- Gramatika batzordeari eta Ahoskera lantaldeari azpiegitura zerbitzua eskaini zaie Arabako ordezkarietatik: bilera-deiak, agiriak, txostenak eta bestelako materiala banatuz.
- Azken urteetan bezala, bulegoko arduradunak parte hartu du, idazkariorde-kudeatzailer eta eragile teknikariarekin batera, *Oroitidazkia*-ren erredakzioan eta zuzenketa lanetan.

Hiriburuko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, 1996ko azaroan sortu zen bertako toponimia biltzeko lantaldea. Lan honetan lau bekadunek dihardute ordezkarietan, H. Knörr Onomastika batzordeburuaren zuzendaritzapean eta J. A. Gonzalez Salazar jaunaren koordinazioaz. Dagoeneko, Arabako Artxibategi Probintzialesetik ia 4.000 protokolo arakatu dituzte, 100 lur-neurtze, 92.301 toponimoren fitxak sortuz. Gainera, lan guztia informatizaturik dago, bigarren fase batean dagokion mailaketa egiteko, mapetan kokatzeko, eta inguruko lanak bideratzeko.

Erakundeentzako eta kanporako lanak

Orokorrak

Ziurtagiriak. Euskaltzaindiaren beste bulegoetan bezala, izen eta deituren agiri ugari

egin dira, Onomastika batzordetik bideratzen diren zerrenda eguneratuz baliatuz. Zalantzaszko kasuetan, ohi denez, batzorde-idazkariarengana jo izan da. Ponte-izenei dagozkien galdera eta eskabide gehienak exonimoei, hots, jatorriz euskal izenak ez direnei buruzkoak izan dira. Geroz eta gehiago dira Euskal Herritik kanpoko Erregistro Zibiletatik jasotzen diren galderak.

Hizkuntz zalantzak. Arau akademikoei buruzkoak argitzeko etorri da jendea: ikasleak, euskaltegi-tako nahiz IRALeko irakasleak, administrazioetako teknikoak, kazetariak, itzul-pengintzakoak, eta beste.

Hizkuntzaren erabilerari buruzko kontsulta zehatzak, Gramatika batzordera pasatu dira, gehienbat, eta dagozkien erantzun edo irizpenak eragile teknikariaren bitartez bideratu. Onomastikari buruzkoak, prozedura berbera jarraituz, aztertuak izan dira batzorde horretan.

Hizkuntzaren zuzentasuna. Araban, euskararen erabilpen ofiziala dela eta, bai norbana-koak bai elkarteak ordezkari-tzara zuzendu dira beren kezkak azaltzera: euskarazko testu ofi-zialak eta errotulazioak akatsez beterik daudela, elebakarrekoak (gaztelania hutsean) direla. Honen guztiaren informazioa jaso eta behar denean, dagokionari helarazten zaio behar den aholkua.

Egoitzaren erabilera. Arabako zenbait elkartek eskatuta, Euskaltzaindiaren aretoa era-bili izan da bilerak eta aurkezpenak egiteko.

Udalak

Gasteizko udalarekin iaz sinatutako hitzarmenari lotuta dauden lanen errendapena eman du Euskaltzaindiak txosten batez. Horretarako euskaltzainburuak, idazkariak eta buruordeak eta Onomastika lantaldearen burua den H. Knörrek bisita egin diote Jose Angel Cuerda Alkateari. Alkate jaunak aurtengo Udalaren laguntza ziurtatu du.

- Euskarari buruzko argibideak. Zerbitzu desberdinetatik egin diren galderei erantzun zaie.
- Arabako Udal eta Administrazio Batzordeek Gasteizko bulegora jo dute euren izen ofizialari buruzko irizpenak eskatuz.
- Ponte-izenak eta deituren aldaketak egiteko ziurtagiriak ere zuzenean eskatu dituzte herri batzuetatik: Aramaio, Agurain, Legutiano, Amurrio, Biasteri, besteak beste.
- Ekintza kulturalak. Euskaltzaindiaren partaidetza eskatu denean, Ordezkariak bete du zeregin hau. Ohikoena, “Araba Euskaraz” ikastola pribatuen jaia da.

Erregistro Zibila

- Hiritarrei bideak errazteko asmoz, etengabeko harremanak sortu dira Gasteizko Erregistro Zibilarekin. Izen-deiturez eta zalantzaszko ortografiaz argibideak ematen dira.

III.3.3. IRUÑEKO ORDEZKARITZA

Ordezkarialdaketak

Euskaltzaindiaren Ordezkaritza Nafarroan 1979an ezarri zenetik, ordezkarialdaketan 17 urtez izan den Jose Maria Satrustegik utzi ondoren, Euskaltzaindiak 1997ko urtarrilean Andres Iñigo euskaltzain urgazlea izendatu du ardura horretarako.

Akademiak

Bilerak

Aita Polikarpo Iraizozkoaren jaioturtearen mendeurrena dela-eta, Euskaltzaindiak martxoaren 21a eta 23a bitartean hiru ekintza akademiko ospatu ditu euskaltzain oso zenaren sorterrian, hala nola:

- X. Barne-jardunaldiak. Nafarroan egin diren bigarrenak, V.ak ere lurralde honetan burutu baitziren, Lekarozen 1985ean hain zuzen.
- Martxoko osokoen bilkura.
- Aita Polikarporen omenaldia. Ospakizunaren lekuko oroitarri bat ezarri da omendua- ren sortetxean.



Iraizotzen, 1997-III-21ean: Euskaltzainak hileko batzar-egunean.

Aipatu beharra dago, ekintza hauetarako zenbait erakundek emandako laguntza, besteak beste, Ultzamako Udalak eta Euskara Zerbitzuak, Iraizozko Kontzejuak eta Ikuztegi elkar-te kulturalak. Aipatzekoa, halaber, ultzamarren harrera ona.

Onomastika batzordeak, bere exonomastika azpibatzaordearekin batera, urteko bi bilera egin ditu Iruñeko ordezkarietan, alde batetik apirileko bilera arrunta eta, bestetik, uztailean bi eguneko bilera berezia.

- Euskaltzaindiaren zuzendaritzak ere Iruñean egin du ohiko bileretako bat.

Barne lanak

Iraizozko jardunaldiei eta Aita Polikarporen ospakizunari buruzko prentsaurrekoa Iruñeko ordezkarietan eman da. Bertan, Euskaltzaindiaren ordezkariarekin batera, Ultzamako eta Iraizozko alkateek eta hizlariek hartu dute parte.

Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak argitaratzeko, Patxi Ondarrak prestatu duen Aita Polikarporen *Hitz neurtuzko lanak* liburuaren informatika lan osoa ordezkarietako bulego arduradunak egin du.

- Nafarroako prentsan hainbat adierazpen eta mezu zabaldu da.

- Hartutako eskakizunei erantzuna eman, zenbait idazki eta txosten luzatu dira eta, batez ere, izen eta deituei buruzko 57 ziurtagiri. Zalantzazko kasuetan, ohi denez, zuzendaritzara edo dagokien batzorde-idazkariengana jo izan da erantzuna eman aurretik.

Erakunde ofizialekin eta beste elkarteekin izandako harremanak

- Gobernu aldetetan ohi den bezala, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, Nafarroako ordezkariarekin batera, Miguel San jaunari bisita egin dio otsailaren 4an. Gobernuburu berriak euskararen aldeko asmo ona agertu du eta, azkeneko urteetan egin-dakoari jarraituz, aurrerantzean ere beharreko dirulaguntza ematearen aldeko jarrera adierazi du.

- Iruñeko Udalarekiko hitzarmena. Aurreko urtean Iruñeko Udalbatzak Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatzeko agertutako asmoa, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak eta Javier Chourraut alkateak otsailaren 19an gauzatu dute, Akademiaren ordezkari zabal batek Udaletxera egindako bisita ofizialean. Hitzarmen horretan, Akademiak Udalari eta iruindarrei hizkuntza gaietan eskaini beharreko bere aholkularitza, batetik, eta Udalak urtean ordaindu beharreko dirulaguntza, bestetik, zehaztu da.

Aipatu hitzarmena, hurrengo urterako gaurkotzearen, Nafarroako ordezkaria, idazkariorde-kudeatzailea eta ekonomi eragilea alkateorde eta kultura zinegotzia den Joaquin Pascalekin elkartu dira urrian.

- Ordezkariak Fernando Pérez de Viñaspre Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiarekin zenbait bilera izan ditu urtean zehar, bi erakundeen arteko harremanei buruzko gaiez aritzeko, besteak beste, Nafarroan ospatutako jardunaldiez -nahiz Nafarroako Gobernuak nahiz Euskaltzaindiak antolatutakoez-, argitalpen proposamenez, hizkuntza eskakizunaren Foru Dekretuaz, eta abarrez.

- Andres Iñigok Euskaltzaindia ordezkatu du lurralde honetako hainbat ekintzatan, bertzeak bertze, Iruñean ospatu den 25. Udako Euskal Unibertsitatearen hasiera-ekintzan, Tafallan egin den Nafarroa Oinez ikastolen jaialdian eta Euskalerrira Irratiaren "Larreko" sariaren epaimahaian. Halaber, Nafarroako Gobernuaren

Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan, maiatzaren 8a eta 10a bitartean ospatutako Europako Hizkuntzak eta Legediei buruzko Nazioarteko III. Simposioan parte hartu du P. Xarriton, M. Azkarate eta A. Urrutia euskaltzainekin batera.

- Nafarroako Ikastolen Federazioak eskatuta, halaberrezko txostena egin du Federazio honek V. Jardunaldi Pedagogikoak Iruñean ospatzeko eskatuz, Europako Batzordeak duen herrialdeko hizkuntza bulegoan aurkeztu behar zuen espedientean sartzeko.
- Euskaltzaindiaren izenean, Jose Maria Satrustegi euskaltzainak Nafarroako Parlamentuak itzultzaileak hartzeko egindako hautatze-frogetako epaimahaian parte hartu du eta Patziku Perurena euskaltzain urgazleak, Iruñeko Udalaren urteroko literatura lehiaketakoan. Bestalde, Patxi Salaberri Onomastika batzordekideak ordezkatzan du Euskaltzaindia Udal honek eraturako Toponimia batzordean.
- Nafarroako Euskararen Kontseiluak, non Jean Haritschelhar euskaltzaiburua berezko kidea den eta Jose Maria Satrustegi Euskaltzaindiaren ordezkaria, bere eratze-bilkura ekainaren 11n egin du eta bigarrena azaroaren 5ean.

Euskararen egoera Nafarroan

573/1976 Errege Dekretuan eratuta dauden estatutuek jarritako helburuak betetzeko, eta hizkuntza eskubideen alde agertzeko, Akademiak berriro bere kezka eta kexa adierazi du eskubide horiek kaltetuak izan direnean, edo behar bezala bermatu ez direnean, hurrengo kasu hauetan bereziki:

- Barañaingo Udalak 1994ko oposizio-deialdi batean euskararen ezagutzea eskatzen zuen lanpostu batzuetarako eta baldintza horren aurka Nafarroako Auzitegi Nagusiak 1997ko otsailaren 20an emandako epaiaren aurrean, Euskaltzaindiak publikoki jakinarazi du epaiak indarreko legeria hautsi duela, euskararen ezagutzea eskatzeak Administrazioaren zenbait lanpostutarako nahitaezkoa izan behar duela, eta Barañaingo Udalak aipatutako deialdiaren oinarriak onartu zituenean ongi aski egin zuela bat herriaren gaurko egoera sozialarekin. Hori dela-eta, Jose Maria Satrustegik eta Andres Iñigo ordezkariak, Jesús Rodríguez Ferrero, Nafarroako Auzitegi Gorenaren lehendakariarekin elkarrizketatu dira, Auzitegiak emandako epaiak sortutako kezka eta beren desadostasuna agertzeko, hizkuntza eskubide konstituzionalak eta autonomikoak garbi hausten dituelako.
- Nafarroako Gobernuak bertze zortzi irrti frekuentzia esleitzeko egindako deia dela-eta, Euskaltzaindiak, 573/1976 Erret Dekretuan eraturako helburuei leial izateko eta nafar euskaltzainen eta Jagon sailaren proposamena onartuz, idazki bat igorri dio Miguel Angel Sanz Gobernuko lehendakariari, Nafarroako 18/1986 Euskararen Foru Legearen 27.1 artikulua aitzakiarik gabe betetzeko eskatuz. Aldi berean, erran zaio aipatutako deialdiak aurreikusi beharko lukeela eremu euskaldunean behar diren euskarazko irratiak izateko posibilitatea eta gaur egun herrialdeko euskal hiztun gehien duen Iruñerrian ere gutxienez euskarazko irrati bat izatea. Bertzela, zera gertatuko bailitzateke, Foru Erkidegoan gaztelaniazko 30 irrati izanen genituzkeela eta euskarazko bakarrik ere ez, Nafarroako biztanleriaren kopuru garrantzitsu baten hizkuntza eskubideen kaltetan, alegia.
- *Diario de Navarra*-n bere zuzendari ohiak argitaratutako artikulua batzuetan euskara eta Euskaltzaindia gogor erasotu dituela-eta, Nafarroako ordezkariak, erantzuteko eskubidean oinarriturik, idazki bat igorri du aipatutako egunkarira, baina honek ez du argitara eman nahi izan.



III.3.4. BAIONAKO ORDEZKARITZA

Aldaira

1997an Baionako Euskaltzaindiaren ordezkariak jakin du Herriko Etxetik Panneau karrikako 37an izan duen egoitza utzi beharko zuela lehenbaitlehen. Gaztelu-Berrian eskainiko dio egoitza Hiriak ordainez Angelesen Dorrean. Baina izanen da lan, 2 urte bederen, prestakuntza egiteko eta horregatik, anarlean Garcia Larretxe familiak Thiers karrikan eskainiko dio aterbe Euskaltzaindiari.

Anton d'Abadiaren mendeurrena

Anton d'Abadiaren mendeurrena ospatu du Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzarekin partzuergoan eta ordezkarietatik kudeatu dira, bereziki Frantziako erakundeekin, udal, departamendu, Akitaniako eskualde, CNRS eta beste, Hendaian eta Saran irailean egin den Nazioarteko Biltzarra prestatzeko izan diren urratsak. Jakintza mailan fruitu nabariak eman ditu ekintza honek ondoren aterako diren argitalpenetan ikusi ahal izango direnez.

Ohiko lan eta harremanak

Baionako ordezkariak ohiko harremanak izan ditu bai Bilboko egoitzarekin eta bai beste hirietako ordezkariarekin. Baita ere Iparraldeko IKAS, SEASKA, AEK, UEU, EKE eta beste kultur erakunde eta elkarte nagusiekin.

Urtero bezala, bere gain hartu du ordezkariak honek Iparraldeko EGaren udako eta udazkeneko azterketen antolatzea.

Ohi denez, Erakundearen lanen ezagutarazteko asmoz, Iparraldean antolatzen diren liburu erakusketa eta azoketan parte hartu du, adibidez, Donibane Lohizunen eta Saran.

Ordezkaritzara bertara hurbiltzen dira zenbait bezero Euskaltzaindiaren argitalpenak erosteko edo harpidetzeko asmoz.

Hizkuntz Atlasgintzako lanak Baionako Fakultatean egiten ditu batzorde-idazkariak. Bulegoko arduraduna R. Lafon-en lan hautatuen prestateta bururatu ondoren, E. Goyhenetxeren "Onomastique du Pays Basque Nord, XVIIIe. siècle" ikerlanari lotu da.

III.4. AZKUE BIBLIOTEKA

III.4.1. AZKUE BIBLIOTEKA ZERBITZUA

Aurten trantsizio-urtea izan da Azkue Bibliotekan, urte luzeetan zuzendari izan den Jose Antonio Arana Martija erretiratu baita, bere ordez Pruden Garzia Isasti izendatu delarik, hautapen-prozesu luze baten ondoren. Hala eta guztiz ere, Jose Antonio Aranak bibliotekari akademiko izaten jarraitzen du eta, ondorioz, segitzen du aholkulari gisa laguntzen. Beraz, zuzendari berriaren lana, funtsean, biblioteka ezagutzeaz gain azken urteotan abiatu diren proiektuei jarraipena ematea izan da.

Ondarearen egoera

Azkue Biblioteka honako ataletan banatzen da: Biblioteka, Hemeroketa, Fonoteka eta Artxiboa. Une honetan 60.000 dokumentu zaintzen dira bertan, horietatik 40.000 monografia eta gainerakoak aldizkari, liburuxka, mapa, irudi, mikrofitxa eta soinuzko materiala (ZM eta CD). Horretaz gain Artxiboa dugu, bitan banatzen delarik: Euskaltzaindiaren artxiboa eta zenbait euskaltzaleren ondarea (Azkue, Broussain, Guerra, Tauer, Apraiz, Zaitegi eta beste). Material guztia sailkatua eta apaletan ezarria da eta une honetan monografiaren katalogo informatiko berria egiten ari da (xehetasun gehiagorako ikus beherago ABK proiektuaz esaten dena).

Azkue Biblioteka euskal gaietan espezializatua dago, batez ere Humanitateen esparruan. Hori dela eta zaintzen dituen liburu eta aldizkariak batez ere Hizkuntzalaritza, Filologia, Literatura, Historia, Antropologia, Filosofia, Teologia, Arte Ederrak eta abarri buruzkoak dira. Hala eta guztiz ere era guztietako dokumentuak erosi eta eskuratzen ditu, euskal kultur gaiekin zerikusirik duten neurrian, beti ere baliabideen arabera.

Zerbitzuak eta eskurapenak

Zerbitzuak

Azkue Bibliotekak honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Erreferentzia sailaren kontsulta zuzena: publikoa eta doan.
- Eskaera bibliografiko arrunta: publikoa eta doan.
- Dokumentazio eta informazio zerbitzua: aholku bibliografikoak, era guztietako bilaketak eta informazio orokorra erabiltzaile guztientzat dira, doan; euskaltzain eta Euskaltzaindiko proiektuei atxekitakoentzat, berriz, zerbitzu berberak sakontasun maila haundiagoz egiten dira.
- Mailegua: soilik euskaltzain edo Euskaltzaindiko egitasmoei atxekitako lankideentzat, edota Herri Aginte eta Euskal Herriko unibertsitateentzat, arauetan zehaztutakoren arabera.
- Dokumentuen erreprodukzioa: arauetan zehaztutakoa legez.

Aurten 999 irakurle izan dira Bibliotekan, horietatik 136 berri. Artxiboa kontsultatzea eskatu dutenak 24 izan dira. Orotara 1100 eskari bibliografiko desberdin bideratu dira eta, bestalde, informazio zerbitzuak seiehun bat galderari erantzun dio, horietatik 40 gutunez edo faxez (erreferentzia saileko kontsultak ez dira kontuan hartu). Horretaz gain, 155 liburu utzi dira maileguan eta 35.000 fotokopia gin dira.

Azkue Bibliotekaren zerbitzua ikerlari eta goi mailako ikasleei bideratua da eta, ondorioz, erabiltzaile gehienak euskara edo euskal kulturarekin lotutako ikerketetarako baliatu dira aipatu zerbitzuez.

Eskurapenak

Liburuak

	<u>Aleak</u>	<u>Balioa</u>
- Erosiak	722	2.342.473 pta.
- Dohainekoak	198	381.332 pta.
- Trukezkoak	514	952.330 pta.
Orotara	1.434	3.676.135 pta.

Aldizkariak

Une honetan Azkue Bibliotekak 1498 izenburu ditu, horietatik 405 bizirik daude, eta 1.093 gaur egun argitaratzen ez direnak dira. Trukez 109, doan 231, eta erosita 65 hartzen dira, azken horietatik 48 harpidetzaren bitartez.

Aurten orotara 50 izenburu berri eta 1671 ale sartu dira, eta kostuari dagokionez 509.637 pta. erabili dira.

Erosketa bereziak

Erosketa hauek bereziki aipagarriak dira:

- *Berceo* aldizkaria mikrofitxetan
- A. Ortelius: *Theatrum Orbis Terrarum*: berrargitalpena
- G. Braun: *Civitates Orbis Terrarum*
- G. Bowles: *Introducción a la historia natural y a la geografía de España*
- Planeta-ren Entziklopedia tematikoa
- Lur-en Entziklopedia tematikoa
- Bibliograf-ek argitaratutako Entziklopedia (dohainik, Azkue Bibliotekak argitaletxe horri utzitako ilustrazioengatik esker onez)
- Harriet-en hiztegia mikrofilmatu da, Pierre Andiazabal euskaltzain urgazlearen bitartekaritza esker; originala Baionako Apaizgaitegian dago.
- R.J. Cuervo: *Diccionario de construcción y régimen de la lengua castellana*.

Proiektuak

Azkue Bibliotekaren katalogoa (ABK proiektua)

Hauxe da une honetan Azkue Bibliotekaren proiektu nagusia, eta bere munta eta garrantziagatik Euskaltzaindiaren mugak gaingitzen ditu aise. 1995ean abiatu zen, helburua

katalogo berri informatizatua, nazioarteko arau estandarren arabera egitea zelarik. Baina, oro-ren gaintetik, ezaugarri nagusia euskara hutsez izatea da, alegia, hauxe da Euskal Herrian euskaraz egiten den lehenengo katalogo osoa eta estandarra, formato informatikoan gainera. Alde horretatik, dudarik gabe berebiziko itzala izango du aurrerantzean katalogoak euskaraz edota bi hizkuntzatan egitea erabakitzen duten biblioteketan.

Gaiaren garrantzia kontuan harturik, zuzendari berriak txosten bat egin du horri buruz: “Bibliotekaren katalogazio prozesua”, Biblioteka batzordeak 1997ko urriaren 10eko bileran onartu duelarik. Horren bertsio laburtu bat Euskaltzaindiaren osoen batzarrean irakurri da, euskaltzainen artean interesa eta onespena eskuratuz (“Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK): Euskaltzaindiaren proiektu estrategikoetarikoa bat”, 1997ko azaroaren 28an irakurritako txostena). Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuordearen eskariz “Euskarazko katalogazioari buruzko memoranduma” egin eta eman da (abenduaren 23an), euskarazko katalogazioaren arazoak azalduz eta ildo honetan Jaurlaritzak abia dezakeen edozein ekimenetan Euskaltzaindiaren laguntza eskainiz.

ABK proiektuak lehentasun osoa du Azkue Bibliotekaren lan-plangintzan, eta berari esleitzen zaio aurrekontuaren zati nagusia. Aurten 7.022 liburu katalogatu dira.

Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren aurkibidea

1997an soinuuzko material guztien bikoizketa eta euskarri-aldaketa prozesua burutu da, une honetan hiru dokumentu mota daudelarik: jatorrizko grabazioak (ZM formatoan), CD bertsio berezia (*master* izenekoa) eta bertsio konprimituak (CD formatoan). Material hauek guztiak Azkue Bibliotekari esleitu zaizkio, zainduak eta kudeatuak izan daitezten. Zuzendariak txosten bat egin du dokumentu hauen egoera eta erabilera aztertuz (*EHHaren soinuuzko dokumentuei buruzko txostena*), eta horren arabera aurkibide bat prestatzea erabaki da. Lan hau Azkue Biblioteka eta EHHako lantaldearen artean egin da, zeharo burutu ez bada ere.

Gaintekoak

Georges Lacomberen biblioteka

1996ko *Oroitidazkia*-n agertzen den bezala, euskaltzaina eta Euskaltzaindiaren bibliotekaria izan zen Georges Lacomberen biblioteka, egun Maria Josefa Ganuza anderearen jabetzapekoa dena, Bergarako Olaso Dorrean dago. Biblioteka horri dagokion artxiboa 1996an Azkue Bibliotekara ekarri zen taiutua eta sailkatua izateko. Lan hori 1997an bukatu, Olaso Dorrera itzuli da urte horretako apirilaren 17an, eta ekainaren 18an hitzarmen bat sinatu da osorik mikrofilmata izateko Bergaran bertan dagoen Irargi etxean. Hitzarmen horren arabera dokumentu guztien bi kopia egingo dira, bata Olaso Dorrean eta bestea Azkue Bibliotekan gordeko direlarik.

Erakusketak

Aurten Azkue Bibliotekak erakusketa bat antolatu du Bilboko egoitzan urtarriletik apirilera, *Euskalzale* aldizkariaren mendeurrena ospatzeko. Aldizkari hau, bere garaiko beste batzuk eta *Euskalzale*-n inprimitutako liburuak erakutsi dira.

Horretaz gain, beste lau erakusketetan hartu du parte:

- Bilboko Udalaren Bidebarrieta Kulturguneak antolatutako Federiko Krutwig erakusketarako zenbait liburu eta argazki utzi dira.
- Ikeder-ek antolatutako bi erakusketetarako (Euskal Idazleak eta Euskal Poesia) zenbait liburu utzi dira.

- Gasteizko Sancho el Sabio erakundeak antolatutako Escritores erakusketetarako Azkue eta J. C. Guerraren zenbait dokumentu utzi dira hiriburu horretarako, urtarri-lean, eta Iruñerako, otsailean eta martxoan.
- Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneak antolatutako Koldo Mitxelenaren omenez erakusketarako zenbait argazki eta dokumentu utzi dira, martxotik maiatzera.

Bisitaldiak

Bisitari aipagarrienen artean aurten izan da Vahan Sarkisian (Erevan-go –Armeniako– Unibertsitateko irakaslea eta *Araxes* euskal-armeniar aldizkariko erredaktorea) eta Suzuko A. Tamura (Waseda Unibertsitateko –Tokioko– irakaslea eta euskaltzain urgazle japoniarra).

Horretaz gain, bilera publikoak egoitzan egin direnean, hainbat agintariri eta orohar interesatuei erakutsi zaie biblioteca.

III.4.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Batzorde akademiko honek, guztira, bost bilera egin ditu urtean zehar.

Egindako lana

Urteko lehen bilera maiatzean egin da, hil horretan hasi baita lanean Azkue Bibliotekako zuzendari berria, hots, batzorde-idazkaria dena. Urtarriletik maiatzera arteko epean zuzendariaren aukeraketa-lanak egin dira Euskaltzaindian, horretan batzordeko zenbaitek ere parte hartu dutelarik.

Batzordeak lan hauek izan ditu esku artean:

- Terminologiari buruzkoak: gaiak, izenburuak, egileak, erakundeak eta abarren izenak eta terminologiari dagozkion arazo orokorrak. Urtearen hasieratik atzeratuta zegoen lana egin da.
- Katalogatze-prozesua sakonki aztertu da. Gai horretaz txostena prestatu du zuzendariak eta batzordeak onartu, eta ondoren Euskaltzaindiaren osoen batzarrean aurkeztu da: "Azkue Bibliotekaren katalogoa (ABK): Euskaltzaindiaren proiektu estrategikoe-tariko bat". Azkenik, *Euskera* agerkarian argitaratuko dena.

Txosten horretan, katalogatzearen garrantziaz ezezik Euskaltzaindiko gainerako batzordeekiko harremanez ere hitz egiten da; Euskal Herriko bestelako bibliotekekiko harremanez ere badihardu txostenak, eta horretarako guztirako irizpideak finkatzen ditu.

III.4.3. AZKUE BIBLIOTEKAKO KATALOGAZIO ZERBITZU ATALA

Euskaltzaindiak 1995ean ekin zion Azkue Bibliotekan katalogatu gabe zegoen funtsa katalogatzeari. Aurten hiru langile hitzartu aritu dira lanean Bilboko egoitzan dagoen Azkue Bibliotekan bertako katalogatzailearen ardurapean. Egindako planaren arabera, sei urte barru funts bibliografiko osoa katalogatuta egotea espero da.

Egindako lanaren emaitza

Katalogatze-lana, Azkue Biblioteka batzordeak emandako irizpide akademikoei jarraiki egiten da, terminologia gaietan batik bat. Tartean sortzen diren era guztietako arazoei irtenbidea emateko ere batzordeak aholkua ematen du.

Guztira, 1997an zehar, 7.022 dokumentu katalogatu dira:

- 1. hiruhilean, 1.870 liburu
- 2. hiruhilean, 2.407 "
- 3. hiruhilean, 1.679 "
- 4. hiruhilean, 1.066 "

Katalogatu diren monografiak gai hauetakoak izan dira:

- historia: 1.870
- euskal historia, etnografia eta literatura: 2.407
- erdal literatura: 1.679
- bestelakoak (gai desberdinetakoak): 1.066

III.5. ARGITALPENAK

III.5.1. EDIZIO ZERBITZUA

Euskaltzaindiaren edizio zerbitzu honek 1997. urtean zehar ondoren zehazten diren argitalpenak kaleratu ditu, zerbitzu honetako argitalpen eragilearen ardurapean, hots:

1.- *Euskera* (1996, 3). Liburuki honek 1996ko irailetik abendura arteko batzar agiriak, erabakiak, arauak, txostenak, berriak eta hil-berri txostenak jasotzen ditu 660 orrialdetan zehar:

A) Jose Ariztimuño 'Aitzol'-en mendeurrena: "Aitzolen mendeurrena, Aitzolen jarduera akademikoa"; "Jose Ariztimuño 'Aitzol'-en mendeurrena"; "Aitzol eta bere garaia"; "Hiru aldiz ikusi dut Aitzol"; "Aitzolen kazetaritza"; "Aitzol eta *Euskaltzaleak*".

B) II. Jagon Jardunaldiak: "Euskara batua eta euskalkiak"; "Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan"; "Herri-euskararen eremua"; "Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean"; "Euskara batua / euskalkien erabilera Iparraldeko hiru euskal irratietan"; "Euskalkiak EITBn: orain arteko jokabidea eta ondorioak"; "Euskaltzaindiaren araugintza"; "Euskararen hizkuntz ereduaz eta kalitateaz zenbait gogoeta".

C) Herri Literaturaren IV. Jardunaldiak Paremiologiaz: "IV. Herri Literatura Jardunaldiak: Paremiologiaz"; "Euskal atsotiz-bildumak"; "Sobre la paremiología española"; "Ohiturak eta folklorea euskal atsotizetan"; "Gnomica Biscaiensis: *Refranes y Sentencias* de 1596"; "Harri batez bi kolpe. Cuestiones de fraseología comparada"; "Jakes Belakoaren erran zaharrak eta filosofia"; "*Refranes y Sentencias*: zenbait baliabide mnemotekniko"; "Esaera zaharren azterketa soziologiaren ikuspegitik"; "Los refranes en la literatura"; "Esaerak etnografia ikuspuntutik"; "Tradizioa, idazlearen kale kantoitik"; "Ondorioak".

D) Euskaltzaindiaren erabakiak. *Euskaltzaindiaren Arauak*: 64. Hiztegi Batua: *epai - erretratu*; 65. Hiztegi Batua: *erretreta - esplotazio*. Batzar agiriak: 1996.eko irail, urri, azaro eta abendukoak. "1997. urterako Euskaltzaindiaren batzar egutegia".

E) Jasotako txostenak: Onomastika: "Grumeran edo Triano mendikatearen okerreko izenez". Lexikografia: "Erroibarko lexikoaren gainean"; "Commentaire critique sur les 'materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca'". Literatura: "Los restos de la biblioteca de Francisco Ignacio de Lardizabal"; "Iztueta y el euskera"; "Aspectos de la personalidad de Iztueta".

F) Berriak: "Ayuntamiento de Vitoria / Gasteiz-Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia: Hitzarmena / Convenio". "Palabras de Jean Haritschelhar, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, con ocasión de la audiencia concedida por la Excm. Señora Dña. Esperanza Aguirre, Ministra de Educación y Cultura a la Junta de Gobierno de la Institución el día 30 de octubre de 1996".

G) Aurkezpenak: Juan Mateo Zabala. *Sermoiak (I)*: "Aurkezpena"; "Aita Juan Mateo Zabala"; "Aita Zabalaren Euskal sermoien argitalpena (1. liburukia)"; "Juan Mateo Zabala: *Sermoiak (I)*". Aurten Bai Fundazioa - Euskaltzaindia: "Euskaltzaindia eta Aurten Bai Fundazioaren artean *Euskera* agerkaria informatizatzeke Hitzarmena". Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia: Literatura sariak; "Bilbao Bizkaia Kutxa-Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia: literatura sariak, 1996"; "Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia: 1996.eko Literatura sariak".

H) Euskaltzaindiaren aurkitegia eta organigrama.

I) *Euskera* agerkariaren Aurkibidea, 1996.

2.- *Euskera* (1997, 1-2). Zenbaki bi hauek liburuki bakar batean argitaratu dira. Liburuki honek, 1997.eko urtarrietik uztailetera arteko omenaldiak, arauak, erabakiak, adierazpenak, txostenak, berriak eta hilberri-txostenak jasotzen ditu 408 orrialdetan:

A) Jose Ignacio Aranaren omenez: "Jose Ignacio Aranaren mendeurrena"; "Jose Ignacio Arana, bibliografoa"; "Jose Inazio Arana jesuitaren bizitza (1838-1896)"; "Jose Ignacio Aranaren *Reseña histórica de la Lengua Cántabra o Bascongada*"; "Pertsona-izenen zerrenda".

B) Aita Polikarpo Iraizozkoaren mendeurrenako ospakizunak: "Polikarpo Iraizozkoaren mendeurrena"; "Aita Polikarpo Iraizozkoa"; "Aita Polikarporen goratarretan"; "Aita Polikarporen bizitza eta obrak"; "Aita Polikarpo Iraizozkoa"; "Aita Polikarpo Iraizozkoaren mendeurrena".

C) Euskaltzaindiaren erabakiak eta adierazpenak. *Euskaltzaindiaren Arauak*: 66. Santutegiko izen ohikoenak; 67. Hiztegi Batua: *esponja - expres*; 68. Hiztegi Batua: *ez - fotografo*; 69. Hiztegi Batua: *fotokonposaketa - gainalde*; 70. Mundu zabaleko uharte nagusiak; 71. Hiztegi Batua: *gainazal - garaño*; 72. Hiztegi Batua: *garandu - gogoangarri*; 73. *-go* atzizkia eta izen multzokariak; 74. Hiztegi Batua: *gogobete - hautsarazi*; 75. Hiztegi Batua: *hautsezin - iguzki*. Euskaltzaindiaren adierazpenak: "Euskaltzaindiaren Adierazpena hizkuntzei buruz Frantziako Estatu Kontseiluak eman duen iritziaz"; "Barañaingo Udalaren 1994ko deialdi batez Nafarroako Epaitegi Gorenaren 1997ko otsailaren 20ko epaia dela eta Euskaltzaindiaren adierazpena"; "Pronunciamento de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia a propósito de la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia de Navarra del 20 de febrero de 1997 sobre una convocatoria de 1994 del Ayuntamiento de Barañain"; "Batetik, Eusko Jaurlaritzan, Nafarroako Gobernua, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta, bestetik, Euskaltzaindiaren arteko 1997.eko urterako protokoloa, 1995.eko urriaren 27an izenpetutako hitzarmenaren eranskina"; "Convenio entre el Ayuntamiento de Pamplona / Iruña y la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia"; "Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena".

D) Barne txostena: "Hileroko batzarretako lan banaketaz gogoeta".

E) Batzar agiriak: 1997ko urtarril, otsail, martxo, apiril, maiatz, ekain eta uztailekoak.

F) Jasotako txostenak. Onomastika: "Euskaraz femeninoak egiteko diren bideez"; "Euskaltzaindiaren irizpena Sopelako herri izenez"; "Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre el nombre vasco de Sopelana"; "Berricano"; "Legutiano"; "Mañueta". *Euskera* agerkaria: Index: "*Euskera* agerkarian egile aurkibidea (1980-1996)". Gramatika: Gramatika batzordeak emandako erantzun-txostenak; "*Portale / Portalea*"; "Leku esangurako posposizioetako batzuk"; "*Zein* izenordain erlatiboaren deklinabidea". Beste txosten batzuk: "Zinpekoak"; "Euskalkietako hitzen morfologia finkatzerakoan agertzen den arazo batez"; "GERO liburua erretorikaren argitan (aurkezpen modura)"; "*Euskalzale* aldizkariaren mendeurrena".

G) Berriak: "Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: 'Resurreccion Maria Azkue' literatura sariak"; "BBK-Euskaltzaindia: 'R. M. Azkue' literatura sariak, 1995"; "Donostiako Udala-Euskaltzaindia / Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián-Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia"; "1997. urteko 'Korrika'-ren aurkezpena"; "X. 'Korrika'-ren aurkezpenean".

H) Hilberri txostena: "Alfonso Irigoien Etxebarria".

3.- *Euskaltzaindiaren Arauak*: 64. Hiztegi Batua: *epai - erretratu*; 65. Hiztegi Batua: *erretratu-esplotazio*; 66. Santutegiko izen ohikoenak; 67. Hiztegi Batua: *esponja - expres*; 68. Hiztegi Batua: *ez - fotografo*; 69. Hiztegi Batua: *fotokonposaketa - gainalde*; 70. Mundu zabaleko uharte nagusiak; 71. Hiztegi Batua: *gainazal - garaño*; 72. Hiztegi Batua: *garandu - gogoangarri*; 73. *-go* atzizkia eta izen multzokariak; 74. Hiztegi Batua: *gogobete - hautsarazi*; 75. Hiztegi Batua: *hautsezin - iguzki*. 76. Latin eta greziar pertsona-izen klasi-koak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia.

4.- *Federiko Krutwig-i omenaldia*. (Iker-10). Euskaltzaindiak F. Krutwig euskaltzain oso izendatu zuenetik 50 urte bete direla eta, egindako omenaldia.

- 5.- *Toponimia Medieval en el País Vasco (B, C, CH, D, E, F, G letrak)*. Angeles Líbano Zumalacarregui-k paratua. *Onomasticon Vasconiae*, 16. Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz argitaratua.
- 6.- Antoine d'Abbadie-ri buruzko hiru liburu, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak elkarrekin argitaratuak. Patri Urkizu euskaltzain urgazleak prestatutako edizioak dira eta Akitania - Euskadi - Nafarroa Lankidetzarako Fondoak babestu ditu argitalpen hauek:
- *Antoine d'Abbadie: Pensées, études et voyages de 1835 (carnet inédit)*.
 - *Antoine d'Abbadie: Recueil de textes (ethnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires)*
 - *Antoine d'Abbadie: Koplarien guduak (Bertso eta aire zenbaiten bilduma, 1851-1897)*
- 7.- *Morfología del verbo auxiliar labortano*. Pedro de Yrizarrek prestatua eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz argitaratua.
- 8.- *Hautsi da kristala*. Mattin Irigoien Ainiza. "Torobio Alzaga" antzerki-saria, 1996; Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.
- 9.- *Europako (zein?) batasuna*. Julen Zabalo Bilbao. "Mikel Zarate" saiakera-saria, 1996; Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.
- 10.- *Argitalpenen Katalogoa*. Prestatzaileak: Rosa M. Arza, Jon Arza eta Ricardo Badiola. Euskaltzaindiak orain arte kaleraturiko argitalpenen zerrenda, hamabost sailetan banatua, liburu bakoitzari buruzko iruzkinarekin. Bilbao Bizkaia Kutxak babestu du argitalpen hau.
- 11.- *Euskaltzaindiaren Oroitidazkia (1996)*. Erakundeak 1996. urtean buruturiko ekintza eta lanen azalpenak eta zehaztasunak ematen ditu argitalpen honek.



III.5.2. ARGITALPEN BATZORDEA

Batzorde honek 1997. urtean zehar hiru bilera egin ditu, eta, besteak beste, argitalpenok argitaratzea erabaki du:

1. *Euskera* (1996,3) eta *Euskera* (1997, 1-2).
2. *Euskaltzaindiaren Arauak* (64-76).
3. *Federiko Krutwig-i omenaldia*.
4. *Toponimia Medieval en el País Vasco* (B-G)
5. *Antoine d'Abbadie* (hiru liburuki).
6. *Morfología del verbo auxiliar labortano*.
7. *Argitalpenen katalogoa*.
8. *Euskaltzaindiaren Oroitidazkia, 1996*.

III.5.3. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

Argitalpen salmenta

Euskaltzaindiaren Arauak argitalpenak 2.145 harpidetza ditu dagoeneko. Beste 300 inguruk liburudendetako salmenta bidez eskuratu dute arau-bilduma hori.

Gainerako argitalpenen salmentari dagokionez, liburudendei 153 liburu saldu zaizkie, ordainez 316.155 pezeta jasoaz.

Liburuen banaketa-etxeei dagokienez, 2.343 liburu saldu zaizkie, ordainean 2.590.014 pezeta jasoaz, eta gizabanakoei 268 liburu, ordainean 280.854 pezeta jasoaz.

Orotara 3.008 liburu saldu dira, Durangoko Azoka barne, ordainean 3.464.023 pezeta jasoaz. Geihen saldu diren liburuak hauek izan dira: *Oinak* (505 ale), *San Braulioko eroa* (464 ale), *Euskal Gramatika laburra: Perpaus Bakuna* (388 ale) eta *Linguae Vasconum Primitiae 1545 - 95* (225 ale). Lau argitalpen hauen salmentak guztiaren % 52,6 suposatu du. Aipatzekoak dira ere *Cancionero Popular Vasco, Refranes y Sentencias, Azkue Hiztegia* eta *Ipuin Beltzak* liburuek izan dituzten salmentak. Biltegian dauden hainbat argitalpenen banaketa bultzatzeko eskaintza berezia egin da, horren xehetasunak geroago ematen direlarik.

Argitalpen salmentaren kokapen geografikoaz, gehientsuenak Euskal Herrian saldu direla esan behar da, % 95,4a, eta kanpoan gainontzeko 4,6a.

Euskera agerkaria, batetik 360 harpidedunen artean eta bestetik, instituzioen artean 109 ale banatu dira elkartrukez, argitaraldi bakoitzeko. 1997an argitalpen honekin atera den diru kopurua 1.435.861 pezetakoa izan da.

Urte honetan, argitalpen salmentari dagokionez, orotara diru kopuru hau jaso da: *Euskera* agerkariaren harpidetza eta ohiko liburuen salmentagatik (argitalpenen eskaintza berezia eta XXXII. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka barne): 5.229.884 pezeta. Bestalde Arauen harpidetzagatik 11.442.058 pezeta jaso dira. Beraz, guztira, 16.741.942 pezetako emaitza izan du Argitalpen Salmenta Zerbitzuak 1997. urtean.

Dohaineko banaketa

Argitalpenen Banaketa Zerbitzuak 1997an 1.950 liburu banatu ditu dohainik. Banatutako liburuak zazpi multzo desberdinetan sailkatu dira:

- Erakunde ofizial, instituzio eta Herri Agintariak: 257 liburu.
- Pertsonalitateak eta laguntzaileak: 386 liburu.
- Liburuen egileak: 164 liburu.
- Komunikabideak eta kultura elkarteak: 167 liburu.
- Euskaltzain oso eta ohorezkoak: 322 liburu.
- Trukezko harremanak eta ordezkariak: 581 liburu.
- Bestelakoak: 73 liburu.

Biltegia

Stockean dauden liburuei irtenbide bat emateko asmoz, iaz hasitako Eskaintza Bereziari jarraipena eman zaio, eskaintza hau hainbat tokitara helaraziz: Akademiaren zerbitzuetakoei, Erakundearen argitalpen desberdinen harpidedunei, Euskal Herriko udal liburutegiei, unibertsitateetako zenbait fakultateri, hizkuntza eskolei, euskaltegiei, kultura elkarteei, ikastetxeei, udalei, etab.

Guztira 135 eskaera izan dira, 2.553 liburu banatu direlarik. Eskaintza Berezian, hainbat liburu jakin erosteagatik beste hainbat liburu dohainik eskaini dira, hauek, besteak beste: *Hitz Egin* metodoa, 1988. urtera arteko BBK - Euskaltzaindia sariak, *Euskararen Liburu Zuria*, *Agiriak*. Bestalde, beherapenez 182 liburu saldu dira, *Morfologia* eta *Opera Omnia Vasconice* bildumakoak. Eskaintza honekin stockean zegoen liburu mordoska bat probetxua aterako zaion esparruetara heleraztea eta banatzea lortu nahi izan da, bide batez gordailuan beste argitalpen batzuentzat toki handiagoa geratu delarik. Diru kopuruari dagokionez, 1997an emaitza 400.000 pezetakoa izan da.

Bestalde liburuak hobeto mantentzeko, gordailuko leihoak ilundu dira zuriz margoztuaz eta apal berriak jarri dira haietan zenbait argitalpen kokatuz eta egokituz.

Azokak

- XXXII. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan, abenduaren 4, 5, 6, 7 eta 8an bi saltokitan egon da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau. 1997. urteko argitalpenetatik *Euskaltzaindiaren Arauen* 1. eta 2. karpetak, *Refranes y Sentencias*, *Toponimia Medieval en el País Vasco B - G*, *Morfología del verbo auxiliar Labortano*, *Hautsi da kristala* eta *Europako (zein?) batasuna* aurkeztu dira bertan.

Azoka honetan Euskaltzaindiak urteko argitalpenak aurkeztu eta gainontzeko argitalpen guztiak erakutsi nahi dizkie herritarrei. Helburu nagusia erakustea bada ere, guztira 244 liburu saldu dira eta Arauen harpidetza berriak egin dira, guztira 457.000 pezeta bilduaz.

- 1997ko LIBER liburu Azokan ez du Euskaltzaindiak parte hartzerik izan. Azken urteotan Euskaltzaindiak, Eusko Jaurlaritzak antolatutako erakustokian jartzen zituen bere argitalpenak; 1997an Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila ez da izan Azoka horretan. Zenbait Diputazioarekin jestioak egin diren arren, ez da biderik ikusi Euskaltzaindia Azoka horretan izateko, Erakundeak ez baitu behar besteko baliabiderik.

III.6. EKONOMIA ZERBITZUA: 1997KO BALANTZEA

Euskaltzaindiaren osoko batzarrak, 1996ko uztailean, 383 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen 1997rako. Urte horretan zehar ia 342 milioitara murriztu da aurrekontu hori, batez ere urtebeteko aurretiaz nekez asma baitaiteke zein diru-sarrera izango den, batez ere Herri Administrazio desberdinen diru-laguntzen aldetik eta lortu beharreko bestelako finantziabideenetik. Egitasmoek behar lezaketen beste diru lortu ez arren, Erakundeak ez du bere burua zorretan sartu nahi izan; horregatik urtean zehar etengabe ari izan da Euskaltzaindia gastuak diru-baliabideetara egokitzen.

Egokitze ekonomiko hau Zuzendaritzak, Diruzaintzak eta Lege-Ekonomia batzordeak zaintzen dute. Urte honetan zenbait bilera egin duen batzorde horretatik atera da *Euskaltzaindiaren Alde* Fundazioa sortzeko ideia, 1997ko abenduaren 19ko osoko batzarrak onartu duena, hain zuzen; datorren urtean Fundazio hori etekinak ematen hastea espero da.

Herri Administrazio hauen (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioen) diru-laguntzak ez dira aldatu azken hiru urteotan. Euskaltzaindiak biziki eskertzen ditu diru-laguntza horiek Erakundearen lanaren zati handi batentzako aurrekontua ziurtatzen baitute. Bestetik, poz handiz aipatzekoa da Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioak aurrekontu arrunterako diru-laguntza 80 milioitik 100era igo duela, eta horrezaz gainera 3 milioi pezeta eman duela *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren X. liburukia argitaratzeko. Iparraldeko Herri Administrazioetatik 2,5 milioi jaso dira eta Akitania Eskualdetik 3 milioi. Bihoazkie guztiei gure eskerrik beroenak.

Nafarroako Gobernuak 3 milioi pezeta eman du Hendaian Anton d'Abbadieren omenez egin den Biltzarrerako. Euskal Herriko Unibertsitateak hitzarmena sinatua du Euskaltzaindiarekin, eta Abadiaren Biltzarrerako 2 milioi pezeta lortu dira, eta 4 milioi Biltzarreko hitzaldiak eta txostenak argitaratzeko, eta beste argitalpen batzuetan laguntzeko.

1997. urtean BBV Fundazioarekin hitzarmena sinatu du Euskaltzaindiak; Fundazio horrek 8,5 milioi pezetarekin Hiztegi Batua egiten ari den lantaldearen lana, horren guztiaren osoko batzarrerainoko bidea, ordaintzen du. Bestetik, Gasteizko Udalak bost bekadunen lana ordaintzen du, 8 milioi pezetako laguntzarekin, hiriburu horretako toponimia aztertzeko. BBK Fundazioak Durangon Paremiologiaz egin ziren Jardunaldietako hitzaldi eta txostenen argitalpena ordaindu du. Kutxa Fundazioak, berriz, Tolosan Jagon sailak antolatutako Jardunaldietakoena ordaindu du. Horiei guztiei eskerrak ematen dizkie Euskaltzaindiak jendaurrean. Akademiak, finantziabide pribatuetatik era honetako babesak ugaritzen joatea nahi luke.

Azken ohar gisa, hau esan beharrean gaude: hemen adierazitako kopururen batekin bat ez baletor errendapen-txostenekoa, BEZari dagokion zatia kendu zaiolako da.

1997. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

SARTZEAK		341.726.796
1. Ustiaketarako sarrerak		304.281.449
1.1. Herri Aginteak		269.197.118,-
- Hezkuntza eta Kultura Ministeritza	(100.000.000)	
- Eusko Jaurlaritza	(95.947.000)	
- Nafarroako Gobernua	(16.990.289)	
- Arabako Foru Diputazioa	(7.404.296)	
- Bizkaiko Foru Diputazioa	(26.952.494)	
- Gipuzkoako Foru Diputazioa	(16.990.289)	
- Iparraldeko Herri Aginteak	(2.500.000)	
- Udalak	(2.412.750)	
1.2. Gizabanakoak		1.281.500,-
1.3. Batzorde eta egitasmoetarako laguntzak		26.566.260,-
- Hezkuntza eta Kultura Ministeritza	(3.000.000)	
- Nafarroako Gobernua	(3.000.000)	
- Europako Erakundeak (Akitania)	(3.238.674)	
- Gasteizko Udala	(8.000.000)	
- B.B.V. Fundazioa	(7.327.586)	
- E.H.U.- Hitzarmena (A. Abbadie-Biltzarra)	(2.000.000)	
1.4. Argitalpenetarako laguntzak		7.236.571,-
- Bizkaiko Foru Diputazioa	(1.381.531)	
- B. B. K. Fundazioa	(1.129.120)	
- Kutxa Fundazioa	(725.920)	
- E.H.U.- Hitzarmena	(4.000.000)	
2.- Kudeaketa sarrerak		21.109.318,-
2.1. Argitalpenen salmentak		16.806.249,-
2.2. Bestelako zerbitzuak		4.303.069,-
3.- Sarrera finantziarioak		16.336.029,-
3.1. Korrituak		86.029,-
3.2. Maileguetarako laguntzak		16.250.000,-
- Eusko Jaurlaritza	(9.490.488)	
- Nafarroako Gobernua	(1.680.575)	
- Arabako Foru Diputazioa	(432.387)	
- Bizkaiko Foru Diputazioa	(2.665.975)	
- Gipuzkoako Foru Diputazioa	(1.680.575)	

1997. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

IRTETEA		341.726.796,-
1. Epe luzerako zorra		375.000,-
2. Ibilgetu materiala		4.497.958,-
3. Epe laburreko maileguen amortizazioa		16.176.387,-
4. Kanpo zerbitzuak		43.468.896,-
- Ikerketa gastuak	12.843.472	
- Egitura batzordeak	7.031.901	
- Alokatzekak	910.476	
- Konponketak eta zaintzekak	6.712.594	
- Zerbitzu profesionalak	2.051.858	
- Bidalketak	1.755.662	
- Aseguruak	656.038	
- Banku zerbitzuak	465.688	
- Kanpo harremanak eta zabalduke lanak	758.630	
- Horniketarak	9.722.633	
- Bestelako funtzionamendu gastuak	559.944	
5. Batzorde eta egitasmoak		121.266.330,-
- Euskara Batua	1.791.919	
- Hiztegia Batua	8.547.219	
- Orotariko Euskal Hiztegia	57.695.740	
- Gramatika	3.777.147	
- Ahoskera	276.523	
- Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa	22.543.509	
- Onomastika	10.532.104	
- Herri Literatura	973.061	
- Literatura Ikerketa	1.395.168	
- Jagon	1.178.431	
- Argitalpen eta Lege-Ekonomia	218.855	
- Azkue Biblioteka	12.336.654	
6. Zergak		124.973,-
7. Gizabanakoen ordainketak		118.198.847,-
- Arduradunen esleipenak	8.237.448	
- Langilego finkoa	87.393.055	
- Gizarte Asegurantzak	22.116.176	
- Bestelako gizarte gastuak	452.168	
8. Gastu finantziarioak		2.829.094,-
9. Ibilgetu galerak eta jectio gastuak		6.670.756,-
10. Egitasmo eta argitalpen bereziak		25.089.876,-
11. Horniduren zuzkidurak		3.028.679,-

III.7. PRENTSA ZERBITZUA

1997an jarraipena eman dio Prentsa Zerbitzuak bertoko nahiz kanpoko komunikabide-ekiko harremanak sendotzeari, eta berauen beharrei erantzuteari. Nerea Azurmendi kazetaria-
ren ardurapean, Gasteizko bulego arduraduna den Itziar Rekalderen lankidetzaz, Prentsa
Zerbitzuaren helburua Euskaltzaindiaren jardueraren berri zuzen eta zehatza ematea izan da,
kazetarien bidez Akademiaren lana gizartera hel dadin.

1995ean zerbitzu iraunkor bezala finkatu zenetik, Euskaltzaindiaren lan arrunten berri
emateaz gain urtean zehar egin diren ospakizun bereziak ezagutzera ematen ere saiatu da
Prentsa Zerbitzua. 1997an bi izan dira ospakizun garrantzitsuenak: Euskaltzaindiak martxoan
Ultzamako Iraizotzen egin dituen saio bereziak eta, batez ere, Eusko Ikaskuntzarekin batera
Antoine d'Abbadieren omenez irailean Hendaian egin den Biltzarra.

Bi jarduera hauek aukera aparta eskaini diote Prentsa Zerbitzuari Nafarroako eta
Iparraldeko komunikabideekiko harremanak sendotzeko. Aurretik ere onak ziren herrialde
horietako komunikabideekin genituen harremanak, baina ez ziren Araba, Bizkaia eta
Gipuzkoarekin genituenak bezain estuak. Nafarroan eta Iparraldean ekitaldi garrantzitsuak
antolatu izanak Euskaltzaindiaren inguruko komunikazio-kanpaina berezia eratzeko bidea
eman digu.

Aurreko urteetan irekitako bidetik, hileroko gutxienez agerpen publiko bat egitea finkatu
da 1997rako helburu bezala, prentsaurrekoa nahiz oharra izan horretarako bidea.

Ondoko zerrendan biltzen diren jarduerak Euskaltzaindiaren Prentsa Zerbitzuaren eki-
menez burututakoak dira, ezinezkoa baita komunikabideen eraginez bideratutakoak laburbil-
tzea (elkarrizketa, txosten bereziak, informazio-eskaerak eta beste).

Jardunaldi eta biltzarrak

Iraizotzko Aita Polikarporen mendeurrena. Euskaltzaindiaren X. Barne Jardunaldiak. Euskaltzain oso berriaren hautaketa.

Iraizotz, Ultzama (Nafarroa). Martxoaren 21 eta 22a. Egun bitan elkartu da jarduera
garrantzitsu horien berri emateko Ultzaman bertan finkatu den Prentsa Zerbitzua,
Larraitzarren dagoen Ultzamako Udaletxean, hain zuzen, eta bertako udalaren laguntzaz.

Komunikabideei Iraizotzera hurbiltzea zaila gertatu zaien arren, gehienak saiatu dira
Aita Polikarporen omenezko ekitaldian egoten. Gainerako jarduerari buruzko informazio-
banaketa Prentsa Zerbitzuaren esku utzi dute, eta aurrez lotutako banakako hitzarmenei esker
arazorik gabe bete dira komunikazio-helburu guztiak.

Antoine d'Abbadieren omenezko Biltzarra, irailaren 24tik 27ra.

Esan bezala, Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak elkarrekin antolatu dute
Nazioarteko Biltzarra, eta Biltzarreko Prentsa Zerbitzuaren lana ere erakunde biotako Prentsa
Zerbitzuen artean banatu da Biltzarreko egunetan.

Aurkezpenei dagokienez, Arrangoitzen egin du uztailaren 10ean Eusko Ikaskuntzak
erakunde honi dagokiona, Euskaltzaindiaren Prentsa Zerbitzuaren lankidetzaz. Eus-

kaltzaindiak, berriz, irailaren 9an egin du Biltzarraren atariko aurkezpena Abbadia Jauregian. Bisitaldi gidatu berezia antolatu zaie Iparraldeko eta Hegoaldeko kazetariei Jauregiko ardura-dunen laguntzaz, eta bisitaldi horretan zehar eman zaie ezagutzera d'Abadieren bizitza eta lana, bai eta Biltzarrari buruzko azken orduko informazioa ere. Aipatzekoa da d'Abadieren omenetan hainbat ekitaldi antolatu duten beste erakunde batzuek bisitaldia antolatzeke eskaini diguten laguntza.

Biltzarreko egunetan, Hendaiaiko Biltzar Jauregian kokatu da Prentsa Zerbitzua, eta bertatik banatu da egunero Biltzarrak eman duenaren berri Hegoaldeko nahiz Iparraldeko komunikabideetara.

Prentsaurrekoak, argitalpen-aurkezpenak eta ekitaldi irekiak

- Euskaltzaindiaren 1997rako egitasmoen aurkezpena. Urtarrilaren 26a, Donostia.
- *Euskalzale* aldizkariaren mendeurrena eta Alfonso Irigoienek oroitzapenezko ekitaldia. Urtarrilaren 26a, Bilbo.
- Azkue sarien banaketa. Otsailaren 14a, Bilbo.
- Donostiako Udala eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Otsailaren 28a, Donostia.
- Iraizozko Aita Polikarporen mendeurrenaren inguruko ekitaldien aurkezpena. Martxoaren 12a, Iruñea.
- Bilbao Bizkaia Kutxaren eta Euskaltzaindiaren literatura-sarien aurkezpena. Maiatzaren 16a, Bilbo.
- Antoine d'Abadieren omenezko nazioarteko Biltzarraren aurkezpena Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzan. Uztailaren 10a, Arrangoitze.
- *Euskera* agerkariaren CD-ROMaren aurkezpena. Uztailaren 22a, Bilbo.
- D'Abadieren omenezko Nazioarteko Biltzarraren aurkezpena. Irailaren 9a, Hendaia.
- Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak argitara emandako liburuen aurkezpena. Urriaren 16a, Bilbo.
- Koldo Mitxelena eta Pompeu Fabrari egindako omenaldia. Urriaren 30a, Bilbo.
- Federiko Krutwig-i egindako omenaldia. Azaroaren 28a, Bilbo.
- Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiaren literatura-sarien banaketa. Abenduaren 11, Bilbo.

IV. Herri Administrazio eta erakundeekikoak

IV.1. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako herri aginteak eta Euskaltzaindia

IV.2. Udalak

IV.3. Euskal Herriko Unibertsitatea

IV.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA NAFARROAKO HERRI AGINTEAK ETA EUSKALTZAINDIA

Urteko protokolo eranskina

Urteko protokolo eranskina sinatu dute 1997ko urtarrilaren 13an bost herri-agintarik eta Euskaltzaindiak: Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak; Fernando Pérez de Viñaspre, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak; Mikel Mintegi, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatuak; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatuak eta Koruko Aizarna, Gipuzkoako Kultura eta Euskara foru diputatuak.

Dokumentu honetan, Euskaltzaindiko egitasmo eta batzorde desberdinek urtean zehar egingo dituzten ekintzak eta Administrazio hauek urte horretan Euskaltzaindiari emango dizkioten diru-baliabideak jaso dira.

Jarraipen Batzordea

Aipatutako agintariek eta euskaltzainburuak 1995eko urrian sinatu zuten bost urteko iraupena duen II. Hitzarmena. Hitzarmen hori urtero sinatzen den protokolo edo eranskinean gauzatzen da, eta horren segimentua egiteko biltzen da Jarraipen Batzordea. Beronen osakera honela da: Herri Administrazioetatik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria; Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kultura diputatuak; Euskaltzainditik, euskaltzainburua eta idazkaria botoarekin eta buruordea, diruzaina, idazkariorde-kudeatzailea eta ekonomia eragilea. Aurten hiru aldiz bildu da batzorde hau:

- 1997ko irailaren 9an bildu da Jarraipen Batzordea Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Bertan, Euskaltzaindiak 1996an burututako ekintzei buruz Batzorde Teknikoak prestatutako txostena aztertu da.
- 1997ko urriaren 14an bildu da Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Gai nagusiak hauek izan dira: Euskaltzaindiaren 1998ko lan-programak eta aurrekontuak aztertzea.
- 1997ko abenduaren 4an bildu da Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Gai nagusia 1998rako protokolo erantsia aztertzea izan da; dokumentu horretan, batetik, Euskaltzaindiak datorren urtean zer lan-programa burutuko duen agertuko da, eta bestetik, Herri Administrazioek zer baliabide eskainiko duten.

Batzorde teknikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko bilerak

Hitzarmenaren Batzorde Teknikoa, Herri Agintek eta Euskaltzaindiak bost urterako sinatua duten Hitzarmenaren jarraipen-lanean aritzen da. Une honetan hiru teknikariek osatzen dute jarraipeneko batzorde hau: Joseba Alcalde, Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailekoak, Mirari Alberdi, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzakoak eta Joseba Erkizia, Gipuzkoako Foru Diputaziokoak; Euskaltzaindiaren aldetik, Juan Jose Zearreta, ekonomia-eragileak eta Pello Telleria, eragile teknikariak parte hartu dute batzorde honekin izandako harremanetan.

Batzorde Teknikoak urtean zehar lau bilera egin du Euskaltzaindiko ordezkariekin, eta gai hauek izan dira hizpide nagusiak bilera horietan:

- Batzordeen 1996ko urte osoko errendapen-txostenak aztertu dira banan-banan.
- Egitasmo eta batzordeen 1997ko hiruhilekako errendapen-txosten desberdinak.
- Jarraipen Batzordearen bileretan egindako galderen erantzunak.
- Aurkeztutako Euskaltzaindiaren 1996ko ekonomia errendapen-txostena; diru-ordainketak egin ahal izateko Herri Administrazioek eta Euskaltzaindiak egin beharreko tramineak eta ordainketen egoera.
- Zenbait egitasmo eta batzorderen jarraipena egin da, eskatutako informazio osagarria emanaz.
- 1998rako egitasmo eta batzordeen lan-programak aztertu dira.
- 1998rako protokolo erantsiaren testua aztertu da.

IV.2. UDALAK

Gasteizko Udaletxean, 1996ko irailaren 27an sinatu zuten Hitzarmena Jose Angel Cuerda alkateak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Hitzarmen horrek aurrean ere izan du segida; ondorioz Akademiak hizkuntzari buruzko ikerketak bideratu ahal izan ditu, hala nola, udal barrutiko toponimia ikerketa eta argitalpenak. Gerardo López de Guereñuren *Voces Alavesas* lanaren bigarren edizio zuzendu eta gehituaren prestatzeari ere arreta berezia eskaini ahal izan dio. Lan hauek dagozkien ataletan garatu dira. Aurreko urteko diru kopuru berbera, 8 milioi pezetakoa eman dio Udalak Euskaltzaindiari.

Iruñeko Udalak eten gabe eman dio urteko diru-laguntza Euskaltzaindiari. Hiriburuko alkateak eta euskaltzainburuak sinatutako hitzarmenaren arabera, eta jasotako diru-laguntzaren truke, Euskaltzaindiak hizkuntza aholkularitza eta argitalpenak eman dizkio Udalari.

Otsailaren 28an, Donostiako Udalak *Orotariko Euskal Hiztegiko* lanetarako bulegoak uzteko hartutako akordioaren berri eman dio Euskaltzaindiari. Odon Elorza alkateak, Jean Haritschelhar euskaltzainburuari eta udaletxean bertan bilduta zeuden gainontzeko euskaltzainei jakinarazi die. Ondoren, behar diren egokitzapenak burutu beharko dira.

Iparaldeko herri andana batek, zehazkiago esanda, hamar udalek, Euskaltzaindiaren sostengurako beraien aurrekontuetatik dirulaguntza eman dute, guztira 15.720 libera, hain zuzen. Kopuru nagusia Baionakoak eman du, 5.000 libera. Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorrak, bere aldetik, 100.000 libera eman du.

IV.3. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Unibertsitateak Euskaltzaindiarekin sinatuta duen hitzarmenaren arabera, sei milioi pezeta eman ditu, hots, aipatuko diren argitalpen eta ekintzen finantziatzeko kostuaren %50a.

Dirua lan hauek estaltzeko eman da:

- René Lafon-en lan hautatuen argitaratze-lanetarako.
- Antoine d'Abbadie-ren Biltzarrerako.
- Antoine d'Abbadie-ren Biltzarreko agiriak argitaratzeko.

V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia

V.1. Euskaltzainen eta karguen zerrendak

V.2. Euskaltzaindiko batzordeak

V.3. Euskaltzaindiaren barne-organigrama

V.4. Aurkitegia

V.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUEN ZERRENDAK

EUSKALTZAIN OSOAK

Patxi Altuna
Jose Antonio Arana Martija
Miren Azkarate
Pierre Charritton
Jean-Louis Davant
Xabier Diharce "Iratzeder"
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar
Xabier Kintana
Henrike Knörr
Federiko Krutwig
Emile Larre
Juan Mari Lekuona
Beñat Oihartzabal
Patxi Ondarra
Txomin Peillen
Pello Salaburu
Juan San Martin
Ibon Sarasola
Jose Mari Satrustegi
Andres Urrutia
Luis Villasante
Patxi Zabaleta
Antonio Zavala

ZUZENDARITZA

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua
Henrike Knörr, buruordea
Patxi Goenaga, idazkaria
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina.

ORDEZKARIAK

Gipuzkoa: Juan Mari Lekuona

Araba: Patxi Goenaga

Nafarroa: Andres Iñigo

Iparraldea: Pierre Charritton.

ERAGILEAK

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea

Juan Jose Zearreta, ekonomia eragilea

Pruden Garzia, Azkue bibliotekako zuzendaria

Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea

Pello Telleria, eragile teknikaria.

V.2. EUSKALTZAINDIKO BATZORDEAK (*)

IKER SAILA

Iker sailburua: Beñat Oihartzabal

I. HIZTEGIGINTZA batzordea

Buru: Ibon Sarasola.

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da:

I.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) lantaldea

Arduradun: Iñaki Segurola

Kideak: Arantza Egia, Gabriel Fraile, Elixabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea

Arduradun: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Luis Baraiazarra, Piarres Charritton, Jean-Louis Davant, Koro Nabarro, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia.

II. GRAMATIKA batzordea

Buru: Patxi Altuna

Idazkari: Jesus M. Makazaga

Kideak: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Piarres Charritton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose M. Larrarte, M. Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Francisco Ondarra, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

III. DIALEKTOLOGIA batzordea

Buru: Beñat Oihartzabal

Atlasgintza lantaldea

Arduradunak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain

Kideak: Isaak Atutxa, Ana M. Etxaide, Jose M. Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

(*) Izendapen hauek 1997-1998rako dira

IV. ONOMASTIKA batzordea

Buru: Henrike Knörr

Idazkari: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose M. Satrustegi.

Exonomastika

Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana, Federiko Krutwig.

Aholkulariak:

Ricardo Cierbide, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Jose M. Jimeno Jurío, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Patxi Uribarren.

V. LITERATURA batzordea

Buru: Juan M. Lekuona

V.1. Herri Literatura azpibatzerdea

Arduradun: Juan M. Lekuona

Idazkari: Pello Esnal

Kideak: Jose M. Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus M. Etxezarreta, Jose M. Iriondo, Xabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea

Arduradun: Juan M. Lekuona

Idazkari: Karlos Otegi

Kideak: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Luis M. Mujika, Lourdes Otaegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

VI. BATZORDE SUNTSIKORRAK: EUSKARA BATUA ETA AHOSKERA

VI.1. Euskara Batuko batzordea

Buru: Pello Salaburu

Idazkari: Miren Azkarate

Kideak: Patxi Altuna, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

VI.2. Ahoskera azpibatzerdea

Buru: M. Lourdes Oñederra

Idazkari: Pilartxo Etxebarria

Kideak: Jose Luis Alvarez "Txillardegia", Jean-Louis Davant, Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Iñaki Gaminde, Jose Ignazio Hualde, Bernhard Hurch, Rosa Miren Pagola, Xarles Videgain.

Lantaldea:

Buru: M. Lourdes Oñederra

Lankideak: Pilartxo Etxebarria, Igone Etxebarria (EITBko aholkularia), Jon Kortabarria (Arabako IRALEko irakaslea), Jon Aurre (Bizkaiko IRALEko irakaslea), Juan Carlos Hernandez (Gipuzkoako IRALEko irakaslea), Adelaida Kintana (Nafarroako IBIko irakaslea).

JAGON SAILA

Jagon sailburua: Miren Azkarate

VII. JAGON saila

Buru: Miren Azkarate

Idazkari: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak: Dionisio Amundarain, Erramun Baxok, Joseba Butron, Piarres Charritton, Igone Etxebarria, Patxi Goenaga, Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Daniel Landart, Juan M. Lekuona, Xabier Mendiguren, Manuel M. Ruiz Urresarazu, Andres Urrutia.

EGITURAZKO BATZORDEAK

VIII. ARGITALPEN batzordea

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija, Beñat Oihartzabal, Miren Azkarate, Patxi Altuna, Juan Luis Goikoetxea.

IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea

Buru: Jose Antonio Arana Martija

Idazkari: Pruden Garzia

Kideak: Andolin Eguzkitza, Sebastián Garcia Trujillo, Henrike Knörr, Jose M. Larrarte, Juan San Martin.

X. LEGE-EKONOMIA batzordea

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Patxi Goenaga, Henrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija.

Lege azpibatzerdea:

Abel Muniategi

Andres Urrutia

Patxi Zabaleta

Ekonomia azpibatzerdea:

Jon Castañares


Xabier Erdozia

Sebastian Garcia Trujillo

Jose M. Makua Goienetxe

Juan Jose Zearreta, idazkari

EUSKALTZAINDIA



V.4. AURKITEGIA

EGOITZA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: 94-415 81 55
Faxa: 94-415 81 44
Posta elektronikoa: euskalbilbo@jet.es
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: 94-415 27 45
Faxa: 94-415 00 51
Zuzendaria: Pruden Garzia

GORDAILUA

Bilbo-Donostia errepidea, z/g - 4,5 km
SAGA etxea, 1. solairua
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf.: 94-440 62 58
Arduraduna: Rosa Mari Arza

ORDEZKARITZAK

ARABA

San Antonio, 41
01005 GASTEIZ
Telf.: 945-23 36 48
Faxa: 945-23 39 40
Ordezkarria: Patxi Goenaga
Posta elektronikoa: euskalgasteiz@jet.es

NAFARROA

Conde Oliveto, 2-2
31002 IRUÑEA
Telf.: 948-22 34 71
Faxa: 948-21 07 13
Ordezkarria: Andres Iñigo

GIPUZKOA

Hernani, 15
20004 DONOSTIA
Telf.: 943-42 80 50
Faxa: 943- 42 83 65
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

IPARRALDEA

18 Thiers karrika
64100 BAIONA
Telf.: (0) 559 25 64 26
Faxa: (0) 559 59 45 59
Ordezkarria: Pierre Charritton





